| | |
|---|---|
| **ORGANOA:** | Udalbatzar Txit Garaia |
| **ÓRGANO:** | Excmo. Ayuntamiento Pleno |
| | |
| **BATZARRALDIA:** | Ohikoa |
| **SESIÓN:** | Ordinaria |
| | |
| **TOKIA:** | Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa |
| **LUGAR:** | Salón de Plenos de la Casa Consistorial |
| | |
| **EGUNA:** | 2021eko maiatzak 27 |
| **FECHA:** | 27 de mayo de 2021 |
| | |
| **HASIERA ORDUA:** | 09:30 |
| **HORA DE COMIENZO**: | 09:30 h |
| | |
| **LEHENDAKARIA:** | Eneko Goia Laso jauna, Donostiako Udal Txit Garaiko Alkatea. |
| **PRESIDE:** | Don Eneko Goia Laso, Alcalde del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián. |
| | |
| **ETORRITAKOAK:** | Alkateorde jaun-andreak: |
| **ASISTEN:** | Los/las señores/as Tenientes de Alcalde: |

Doña Miren Nekane Arzallus Iturriza andrea
Doña Marisol Garmendia Beloqui andrea
Doña Duñike Agirrezabalaga Ugarte andrea
Don Juan Ramón Viles Mitxelena jauna

Eta ondorengo zinegotzi jaun-andreak:
Y los/las señores concejales/as:

Doña Pilar Arana Pérez andrea
Don Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga jauna
Doña Aitziber San Román Abete andrea
Don Martin Ibabe Eceiza jauna
Don Jon Insausti Maisterrena jauna
Doña Mª. Jesús Idoeta Madariaga andrea
Doña Reyes Carrere Zabala andrea
Don Jon Markel Ormazabal Gaztañaga jauna
Doña Olaia Duarte López andrea
Don Ricardo Burutaran Ferre jauna
Doña Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andrea
Don Zigor Etxeburua Urbizu jauna

Don Miguel Ángel Díez Bustos jauna
Doña Cristina Lagé Manich andrea
Doña Ane Oyarbide Ochoa andrea
Don Borja Corominas Fisas jauna
Don Mikel Lezama Zubeldia jauna
Don Jorge Mota Iglesias jauna
Doña Aitzole Araneta Zinkunegi andrea
Doña Haizea Garay Gallastegui andrea
Doña Marta Huarte Paño andrea

**EZ DA ETORRI:** Ondorengo zinegotzi andrea:
**NO ASISTE:** La señora concejala:
Doña Miren Jaione Hervás Sáez de Arregi andrea

**IDAZKARIA:** Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga jauna, Donostiako Udal Txit Garaiko Udalbatzarreko idazkari nagusia.
**SECRETARIO:** Don Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga, Secretario General del Pleno del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián.

**KONTU-HARTZAILEA:** Julian Ortiz Arruabarrena jauna, Udal Kontuhartzaile Nagusia.
**INTERVENTOR:** Don Julián Ortiz Arruabarrena, Interventor General Municipal.

---------------


| LABURPENA | Zk/ Nº | SUMARIO | Pág Orr. |
|---|---|---|---|
| Gai Zerrendatik Kanpoko 1. gaia presazkotzat jotzea. | | Tratamiento de Urgencia del asunto n.º 1 Fuera del Orden del Día del Pleno. | 5 |
| Gai Zerrendatik Kanpoko 2. gaia presazkotzat jotzea. | | Tratamiento de Urgencia del asunto n.º 2 Fuera del Orden del Día del Pleno. | 6 |
| Gai Zerrendatik Kanpoko 3. gaia presazkotzat jotzea. | | Tratamiento de Urgencia del asunto n.º 3 Fuera del Orden del Día del Pleno. | 7 |
| Gai Zerrendatik Kanpoko 4. gaia presazkotzat jotzea. | | Tratamiento de Urgencia del asunto n.º 4 Fuera del Orden del Día del Pleno. | 7 |
| Gai Zerrendatik Kanpoko 5. gaia presazkotzat jotzea. | | Tratamiento de Urgencia del asunto n.º 5 Fuera del Orden del Día del Pleno. | 8 |
| 2021eko martxoaren 31n eta apirilaren | 1 | Aprobación, si procede, de las actas | 8 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 29an izandako bileren aktak onartzea, ontzat joz gero. | | de las sesiones celebradas los días 31 de marzo y 29 de abril de 2021. | |
| Eskuordetzeei buruzko Akordioaren aldaketaren eta eskuordetutako ahalmenak eta eskumenak erabiltzeko arauen zuzenketaren berri ematea. | 2 | Dar cuenta de la modificación del Acuerdo sobre delegaciones y de la corrección de las Normas para el ejercicio de las facultades y atribuciones delegadas. | 9 |
| Alkatearen ebazpenen kontu ematea. | 3 | Dación de cuenta de Resoluciones de Alcaldía. | 15 |
| Bozeramaileen Batzordean onartutako erakunde adierazpenen berri ematea. | 4 | Dar cuenta de las Declaraciones Institucionales aprobadas en la Junta de Portavoces. | 18 |
| **ERABAKI ZATIA** | **I** | **PARTE RESOLUTIVA** | |
| **LURRALDE GARAPEN ETA PLANIFIKAZIO BATZORDEA** | | **COMISIÓN DE DESARROLLO Y PLANIFICACIÓN DEL TERRITORIO** | |
| Behin betiko onartzea Eraikuntzako Ordenantza Osagarriak. | 5 | Aprobación definitiva de las Ordenanzas Complementarias de Edificación. | 21 |
| Behin betiko onespena ematea Donostiako IN.07 Baratzategi Hirigintza-Eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziari The English School en lurzatiari dagokionez behin betiko onarpena. | 6 | Aprobación definitiva del Plan Especial de Ordenación Urbana. AU IN.07 Baratzategi parcela The English School. | 33 |
| **GUNE PUBLIKOEN BATZORDEA. OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK** | | **COMISIÓN DE ESPACIO PÚBLICO. OBRAS Y SERVICIOS URBANOS.** | |
| Donostiako Udalaren eta euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren arteko lankidetza hitzarmena, Europar Batasuneko Espainia ez beste estatu kide batean matrikulatutako ibilgailuak abiadura gainditzeagatik burututako arau hausteen inguruan. | 7 | Convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de San Sebastián y la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en relación con las infracciones por exceso de velocidad de vehículos matriculados en un estado miembro de la Unión Europea distinto de España. | 37 |
| **OGASUN BATZORDEA** | | **COMISIÓN DE DE HACIENDA** | |
| Arau-proposamenaren ekimena, PP taldeak aurkeztua, Udal-jabari publikoa okupatzeagatiko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala aldatzeko. | 8 | Iniciativa de proposición normativa, presentada por el Grupo PP, de modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora de las Tasas por la Ocupación del Dominio Público Municipal. | 42 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEA** | | **COMISIÓN DE SERVICIOS A LAS PERSONAS** | |
| Miramar Jauregia Partzuergoko estatutuetako osoko aldaketa onartzea. | 9 | Aprobación de la modificación integral de Estatutos del Consorcio Palacio Miramar. | 43 |
| **ZERBITZU OROKORREN BATZORDEA** | | **COMISIÓN DE SERVICIOS GENERALES** | |
| Toki Erakunde Txikia eratzeko prozesuaren hasiera onartzea. | 10 | Aprobación inicio proceso Entidad Local Menor de Igeldo. | 45 |
| **IRADOKIZUN ETA ERREKLAMAZIO BATZORDE BEREZIA** | | **COMISIÓN ESPECIAL DE SUGERENCIAS Y RECLAMACIONES** | |
| Berri ematea 2020ko Txostena, urte horretako kontsultak, iradokizun/oharrak, kexak eta esker onak jasotzen dituena. | 11 | Dar cuenta del Informe de las Consultas, sugerencias/avisos, quejas y agradecimientos recibidos durante el 2020. | 51 |
| **INFORMAZIO, SUSTAPEN ETA KONTROLA** | **II** | **INFORMACIÓN, IMPULSO Y CONTROL** | |
| **MOZIO ARRUNTAK** | **II.1** | **MOCIONES ORDINARIAS** | |
| Mozio arrunta, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Uliako hobi komuna berreskuratzeko egindako urratsei buruzkoa. | 12 | Moción ordinaria, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa a los pasos dados para la recuperación de la fosa común de Ulia. | 52 |
| Mozio arrunta, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, tokiko kultura-sektoreari laguntzeko ildoei buruzkoa. | 13 | Moción ordinaria, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre líneas de apoyo al sector cultural local. | 59 |
| * * * | | * * * | |
| Erakunde Adierazpena, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, ingurumenaren gaineko eragina oinarri hartuta merkataritzako elkartasun tasa bat garatzeari buruzkoa. | | Declaración Institucional, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa a la creación de una tasa de solidaridad comercial con impacto ambiental. | 66 |
| * * * | | * * * | |
| **KONTROL MOZIOAK** | **II.2** | **MOCIONES DE CONTROL** | 69 |


---------------

**DONOSTIAKO UDALBATZAR TXIT GARAIAREN OHIKO OSOKO BILKURA HASITAKOTZAT JOTZEN DA.**

**SE DECLARA ABIERTA LA SESIÓN PLENARIA ORDINARIA DEL EXCMO. AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN.**

---------------

**GAI ZERRENDAKO AZTERGAIAK BOZKATZERAKOAN FALTA ZIREN ZINEGOTZIAK:**

**- ZIGOR ETXEBURUA URBIZU JAUNA (EH BILDU), 7. GAIAREN BOZKETAN.**

**- BORJA COROMINAS FISAS JAUNA (PP), 9. GAIAREN BOZKETAN.**

**- JAIME DOMINGUEZ-MACAYA LAURNAGA JAUNA (EAJ/PNV), 9. GAIAREN BOZKETAN.**

**- PILAR ARANA PEREZ ANDREA (EAJ/PNV), 9. GAIAREN BOZKETAN.**

**- GARBIÑE ALKIZA LOPEZ DE SAMANIEGO ANDREA (EAJ/PNV), 10. GAIAREN BOZKETAN.**

**- MIKEL LEZAMA ZUBELDIA JAUNA (PP), 3. KONTROL MOZIOAREN BOZKETAN.**

**AUSENCIAS DE LOS/LAS SRES./SRAS. CORPORATIVOS A LA VOTACIÓN DE LOS DIFERENTES PUNTOS DEL ORDEN DEL DÍA:**

**- D. ZIGOR ETXEBURUA URBIZU (EH BILDU), EN LA VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 7.**

**- D. BORJA COROMINAS FISAS (PP), EN LA VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 9.**

**- D. JAIME DOMÍNGUEZ-MACAYA LAURNAGA (EAJ/PNV), EN LA VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 9.**

**- D.ª PILAR ARANA PÉREZ (EAJ/PNV), EN LA VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 9.**

**- D.ª GARBIÑE ALKIZA LOPEZ DE SAMANIEGO (EH BILDU), EN LA VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 10.**

**- D. MIKEL LEZAMA ZUBELDIA (PP), EN LA VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 3.**

---------------

**Gai Zerrendatik Kanpoko 1. gaia presazkotzat jotzea.**

**Tratamiento de Urgencia del asunto n.º 1 Fuera del Orden del Día del Pleno.**

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga jaunak, Haizea Garay Gallastegui andreak, Borja Corominas Fisas jaunak eta Jon Insausti Maisterrena jaunak parte hartu dute, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Intervienen los/la señores/a D. Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, D.ª Haizea Garay Gallastegui, D. Borja Corominas Fisas y D. Jon Insausti Maisterrena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:**<br>**BAZTERTUA.**<br>**GEHIENGOA.**<br>**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**<br>**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**<br>**ABSTENTZIOAK: 0.** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**<br>**RECHAZADO.**<br>**MAYORÍA.**<br>**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**<br>**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**<br>**ABSTENCIONES: 0.** |

---------------

| | |
|---|---|
| **Gai Zerrendatik Kanpoko 2. gaia presazkotzat jotzea.** | **Tratamiento de Urgencia del asunto n.º 2 Fuera del Orden del Día del Pleno.** |

Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Borja Corominas Fisas jaunak eta Olaia Duarte Lopez andreak parte hartu dute, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Intervienen el/las señor/as D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Borja Corominas Fisas y D.ª Olaia Duarte López, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:**<br>**BAZTERTUA.**<br>**GEHIENGOA.**<br>**ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**<br>**AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**<br>**ABSTENTZIOAK: 0.** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**<br>**RECHAZADO.**<br>**MAYORÍA.**<br>**VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**<br>**VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**<br>**ABSTENCIONES: 0.** |

---------------

**Gai Zerrendatik Kanpoko 3. gaia presazkotzat jotzea.**

**Tratamiento de Urgencia del asunto n.º 3 Fuera del Orden del Día del Pleno.**

Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Borja Corominas Fisas jaunak, Marisol Garmendia Beloqui andreak eta Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak parte hartu dute, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Intervienen el/las señor/as D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Borja Corominas Fisas, D.ª Marisol Garmendia Beloqui y D.ª Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**Gai Zerrendatik Kanpoko 4. gaia presazkotzat jotzea.**

**Tratamiento de Urgencia del asunto n.º 4 Fuera del Orden del Día del Pleno.**

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak eta Borja Corominas Fisas jaunak parte hartu dute, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Intervienen el/las señor/as D.ª Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi y D. Borja Corominas Fisas, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**

**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**Gai Zerrendatik Kanpoko 5. gaia presazkotzat jotzea.**

**Tratamiento de Urgencia del asunto n.º 5 Fuera del Orden del Día del Pleno.**

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak eta Borja Corominas Fisas jaunak parte hartu dute, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Intervienen el/las señor/as D.ª Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi y D. Borja Corominas Fisas, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**1. 2021eko martxoaren 31n eta apirilaren 29an izandako bileren aktak onartzea, ontzat joz gero.**

**1. Aprobación, si procede, de las actas de las sesiones celebradas los días 31 de marzo y 29 de abril de 2021.**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUAK.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADAS.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**2. Eskuordetzeei buruzko Akordioaren aldaketaren eta eskuordetutako ahalmenak eta eskumenak erabiltzeko arauen zuzenketaren berri ematea.**

**2.1.**

“GOBERNU BATZARRARI

ESKUORDETZEEN GAINEKO ERABAKIA ALDATZEA

2019ko ekainaren 15ean Udalbatza eratu eta gero, ekainaren 18ko ebazpen bat dela bitarte eratu zen Gobernu Batzarra ere.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 127. artikuluaren arabera, Gobernu Batzarrak 2019ko ekainaren 21eko akordio bitarte, bere eskumen gehienak eskuordetu zituen hainbat Gobernuko zinegotziengan.

Zehazki, Gobernantzako Ordezkaritzan, izendatu zitzaizkion JUAN RAMON VILES MITXELENA zinegotziari administrazio unitate hauei izendaturiko gaien eskumenak eta ahalmenak:

- Lehendakaritza Zuzendaritza.

- Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren Zerbitzuko Berdintasun, Lankidetza, Giza Eskubide eta Aniztasun Kulturalaren Ataletik, Giza Eskubideen Bulegoa.

2019ko irailaren 25ean, Udalaren antolamendu egitura aldatzea erabaki zuen alkateak,

**2. Dar cuenta de la modificación del Acuerdo sobre delegaciones y de la corrección de las Normas para el ejercicio de las facultades y atribuciones delegadas.**

**2.1.**

“A LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

MODIFICACIÓN DEL ACUERDO SOBRE DELEGACIONES

Tras la constitución de la Corporación el 15 de junio de 2019, por Resolución de Alcaldía de fecha 18 de junio quedó conformada la Junta de Gobierno Local.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 127 de la Ley 7/1985 reguladora de las Bases de Régimen Local, la Junta de Gobierno Local, con fecha 21 de junio de 2019, acordó delegar parte de sus atribuciones en diversos Concejales de gobierno.

En concreto, en la Delegación de "Gobernanza”, realizada a favor del corporativo D. JUAN RAMON VILES MITXELENA, se asignaron atribuciones y facultades relativas a las siguientes unidades administrativas:

- Dirección de Presidencia.

- Del Servicio de Educación y Promoción Social, de la sección de Igualdad, Cooperación, Derechos Humanos y Diversidad Cultural, el Negociado de Derechos Humanos.

Mediante Decreto de Organización de fecha 25 de septiembre de 2019, la Alcaldía resolvió

Pertsonak Kudeatzeko Zuzendaritza sortuz, ordura arte Lehendakaritza Zuzendaritzan integratuta egondakoa.

Hori dela eta, bidezkoa da Pertsonak Kudeatzeko Zuzendaritza administrazio unitate berri hori Gobernantzako Ordezkaritzari atxikitzea.

Beraz, alkate honek honako hau proposatzen du

AKORDIOA

LEHENA.- Gobernu Batzarraren 2019ko ekainaren 21eko Akordioaren II. atala aldatzea. Atal hori honela idatzita geratuko da:

II. Gobernantzako Ordezkaritza

1 - JUAN RAMON VILES MITXELENA zinegotziaren esku uztea administrazio unitate hauei izendaturiko gaiei dagozkien ahalmen eta eskumen hauek:

- Lehendakaritza Zuzendaritza.

- Pertsonak Kudeatzeko Zuzendaritza.

- Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren Zerbitzuko Berdintasun, Lankidetza, Giza Eskubide eta Aniztasun Kulturalaren Ataletik, Giza Eskubideen Bulegoa.

Erabaki honetan jasotako ordezkaritzak Eskuordetzeak erabiltzeko Baldintza Orokorrak bete behar ditu (Eskuordetutako eskumen eta ahalmenei eta haien erabilerari buruzko Arauetako 1. atalean ageri dira baldintza orokorrok).

modificar la estructura organizativa del Ayuntamiento, creando la Dirección de Gestión de Personas, la cual estaba hasta entonces integrada en la Dirección de Presidencia.

Por ello, procede asignar esta nueva unidad administrativa “Dirección de Gestión de Personas” a la Delegación de “Gobernanza”.

Por todo ello, esta Alcaldía propone la adopción del siguiente

ACUERDO

PRIMERO.- Modificar el apartado II del Acuerdo de la Junta de Gobierno de 21 de junio de 2019 sobre delegaciones, que queda redactado como sigue:

II. Delegación de “Gobernanza”

1 - Delegar en el Corporativo D. JUAN RAMÓN VILES MITXELENA las atribuciones y facultades que se detallan en relación con las materias asignadas a las siguientes unidades administrativas:

- Dirección de Presidencia.

- Dirección de Gestión de Personas.

- Del Servicio de Educación y Promoción Social, de la sección de Igualdad, Cooperación, Derechos Humanos y Diversidad Cultural, el Negociado de Derechos Humanos.

La delegación contenida en este Acuerdo tiene como alcance y queda sujeta a las Condiciones generales de ejercicio de delegaciones incluidas en las Normas sobre atribuciones y facultades delegadas y su ejercicio (Apartado 1 de las referidas Normas).

Eskuordetutako ahalmen eta eskumenen barruan sartzen dira bai alorra oro har zuzendu eta kudeatzeari buruzkoak bai administrazio egintzak gauzatu eta kontratuak eta hitzarmenak sinatzeari loturikoak, ondoren zehaztutako esparruak kontuan hartuta.

Esta delegación de atribuciones y facultades comprende tanto atribuciones y facultades en relación con la Dirección y Gestión general del Área como atribuciones y facultades en relación con la realización de actos administrativos y firma de contratos y convenios, todas ellas en el marco que a continuación se precisa.

1.a. Arloa oro har zuzendu eta kudeatzeari buruzko eskumenak eta ahalmenak hauek dira:

1.a. Las atribuciones y facultades delegadas en relación con la Dirección y Gestión general del Area son las siguientes:

• Eskuordetutako eskumen eta ahalmenei eta beren erabilerari buruzko Arauetan arloko zuzendaritza eta kudeaketa orokorrari dagokionez modu homogeneoan zehaztutakoak (arauetako 2. atala).

• Las determinadas con carácter homogéneo en las Normas sobre atribuciones y facultades delegadas y su ejercicio en lo que corresponde a la Dirección y Gestión General del Área (Apartado 2 de las referidas Normas).

• Berariaz zehazten den beste edozein:

• Cualesquiera otras que específicamente se concreten:

Memoria historikoaren sustapen eta garapena, Giza Eskubideen atalak garatutakoak.

Se excluye el impulso y gestión de Memoria Histórica que se desarrollen por el Negociado de Derechos Humanos.

1. b. Administrazio egintzei lotuta eskuordetutako eskumenak eta ahalmenak hauek dira:

1. b. Las atribuciones y facultades delegadas en relación con actos administrativos son las siguientes:

• Eskuordetutako eskumen eta ahalmenei eta beren erabilerari buruzko Arauetan administrazio egintzak ebazteari dagokionez modu homogeneoan zehaztutakoak (arauetako 3. atala), honako hauek izan ezik:

• Las determinadas con carácter homogéneo en las Normas sobre atribuciones y facultades delegadas y su ejercicio, en lo que corresponde a la resolución de actos administrativos (Apartado 3 de las referidas Normas), con las exclusiones siguientes:

• Udal jarduera alorrak eta antolamendu egitura guztiak sortu, gainbegiratu, elkartu eta berritzea.

• Creación, supervisión, fusión y reforma de las Areas de Actuación municipal y de todas las estructuras organizativas.

- Langile finko eta aldi baterakoak aukeratzeko oinarriak onartzea.

- Aprobación de bases para selección de personal fijo y, en su caso, temporal.

- Lanpostuak hornitzeko oinarriak onartzea.

- Aprobación de bases para provisión de puestos

de trabajo.

- Enplegu publikoaren eskaintza onartzea.

- Aprobación de OPEA.

- Lanpostuen zerrenda onartzea.

- Aprobación de la relación de puestos de trabajo.

- Langileen ordainsariak onartzea, Udalbatzak onartutako aurrekontuaren arabera.

- Aprobación de las retribuciones del personal de acuerdo con el presupuesto aprobado por el Pleno.

- Alorren zuzendariak aukeratu, izendatu eta kargugabetzea.

- Selección, nombramiento y cese de Directores de Area.

- Dedikazio esklusiboko gehigarria aldi baterako izendatzea.

- Asignación temporal de C.D.E.

- Banaka izendatzea langileei ekoizgarritasun osagarria eta sariak.

- Asignación individualizada del complemento de productividad y gratificaciones.

- Arau hauste larri-larriengatiko zigorrak ezartzea.

- Imposición de sanciones por faltas muy graves.

- Berariaz zehazten den beste edozein: Eskuordetzean sartuta dauden aparteko orduak onartzearen eta behin-behineko funtzionarioak nahiz lan-kontratupeko behin-behineko langileak izendatzearen berri Gobernu Batzarri emango zaio.

- Cualesquiera otras que específicamente se determinen: De los actos de aprobación de las horas extraordinarias que se incluyen en la delegación y del nombramiento de funcionarios interinos y de personal laboral temporal se dará cuenta a la Junta de Gobierno Local.

1. c. Kontratu eta hitzarmenak sinatzeari loturiko ahalmenak eta eskumenak hauek dira:

1. c. Las atribuciones y facultades en relación con la firma de Contratos y Convenios son las siguientes:

• Eskuordetutako eskumen eta ahalmenei eta beren erabilerari buruzko Arauetan kontratu eta hitzarmenak izenpetzeari dagokionez modu homogeneoan zehaztutakoak (arauetako 4. atala).

• Las determinadas con carácter homogéneo en las Normas sobre atribución y facultades delegadas y su ejercicio en lo que corresponde a la firma de contratos y convenios (Apartado 4 de las referidas Normas).

• Berariaz zehazten den beste edozein: bat ere ez.

• Cualesquiera otras que específicamente se determinen: Ninguna.

2. Araubide Orokorreko Antolamendu eta Jarduerari buruzko Araudiko 114. artikuluaren

2. De conformidad con lo establecido en el art. 114 del ROFRG sin comunicación escrita en

arabera, jakinarazpena jaso eta hiru lanegun baino lehen idatziz kontrakorik adierazten ez bada, eskuordetzea onartu egin dela joko da.

contrario en el plazo de tres días hábiles desde su recepción la delegación se entenderá aceptada.

3. Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, AOAJAko 46 eta 52. artikuluetan xedatutakoa betetzeko.

3. Proceder a la publicación del presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa en cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 46 y 52 del ROFRG.

4. Hurrena egiten duen bileran ematea erabaki horren berri Udalbatzari.

4. Dar cuenta de dicho acuerdo al Pleno en la próxima sesión que celebre.

Donostian, 2021eko apirilaren 22a

ALKATEA

Eneko Goia Laso"

**2.2.**

“GOBERNU BATZARRARI:

ESKUORDETZAN EMANDAKO AHALMEN ETA ESKUMENAK ERABILTZEKO ARAUAK ZUZENTZEA

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 127. artikuluaren arabera, Gobernu Batzarrak eskumen ugari ditu, eta, artikulu horren 2. atalak jartzen duenez, eskuordetu egin ditzake batzuk.

2019ko ekainaren 21ean, Toki Gobernu Batzarrak erabaki zuen Gobernu Batzarraren ahalmen eta eskumen hauek ematea hainbat Gobernuko zinegotziei.

Data berdinean, Toki Gobernu Batzarrak erabaki zuen onartzea “Eskuordetzan emandako ahalmen eta eskumenak erabiltzeko arauak”.

**2.2.**

“A LA JUNTA DE GOBIERNO:

CORRECCIÓN DE LAS NORMAS PARA EL EJERCICIO DE LAS FACULTADES Y ATRIBUCIONES DELEGADAS

De acuerdo con lo establecido en el artículo 127 de la Ley 7/1985 reguladora de las Bases de Régimen Local, la Junta de Gobierno Local detenta un importante número de competencias. Y según el apartado 2 de ese mismo artículo, puede delegar parte de ellas.

El 21 de junio de 2019, la Junta de Gobierno Local acordó realizar las delegaciones de atribuciones y facultades de la Junta de Gobierno en diversos Concejales de gobierno.

En igual fecha, la Junta de Gobierno Local acordó aprobar las “Normas para el ejercicio de las facultades y atribuciones delegadas”.

Aipatu Arauen 1.g. puntuaren arabera, eskuordetutako esparruetatik kanpo daude, haien izaera orokor eta homogenoagatik, administrazio egituran berariazko organo bereziei izendatutako gaiak. Hala nola:

- Giza Baliabideak (Pertsonen Zuzendaritza).
- Kontratazioa (Ogasun Zuzendaritza).
- Ondarea (Ogasun Zuzendaritza)
- Artxiboa (Gobernantzako Zuzendaritza).
- Administrazio prozedurak, zehaztea eta onestea porposatzea (Gobernantzako Zuzendaritza).
- Lege Aholkularitza (lege zuzendaria).
- Fede publikoa (idazkari nagusia).

Halere, antzematen da aipatutako Zuzendaritzen izenak ez direla egokiak.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen 39/2015 Legeko 109.2 artikuluarekin ados, Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

Horiek horrela, Alkate honek honako hau proposatzen dio Gobernu Batzarrari

E R A B A K I A K

Lehenengoa.- Zuzentzea antzemandako akatsak 2019ko ekainaren 21ean onartutako Eskuordetzan emandako ahalmen eta eskumenak erabiltzeko arauen 1.g puntuan, eta ondorioz:

Eta zioen lekuan

- Giza Baliabideak (Pertsonen Zuzendaritza).
- Kontratazioa (Ogasun Zuzendaritza).

De conformidad con el apartado 1.g de dichas Normas, se excluyen de los ámbitos delegados las materias que, por su carácter general y homogéneo, se atribuyen en la estructura administrativa a órganos específicos comunes. Así:

- Recursos Humanos (Dirección de Personas)
- Contratación (Dirección de Hacienda).
- Patrimonio (Dirección de Hacienda).
- Archivo (Dirección de Gobernanza)
-Procedimientos administrativos, determinación y propuesta de aprobación (Dirección de Gobernanza)
- Asesoría Jurídica (Director Jurídico).
- Fé pública (Secretario General).

Sin embargo, se detecta que son incorrectas las denominaciones de las Direcciones mencionadas.

De conformidad con el artículo 109.2 de la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las Administraciones Públicas podrán, rectificar en cualquier momento, de oficio o a instancia de los interesados, los errores materiales, de hecho o aritméticos existentes en sus actos.

A la vista de cuanto antecede, asta Alcaldía propone a la Junta de Gobierno la adopción de los siguientes

A C U E R D O S

Primero.- Rectificar los errores detectados en el apartado 1.g de las Normas para el ejercicio de las facultades y atribuciones delegadas de 21 de junio de 2019, y por consiguiente:

Donde decía

- Recursos Humanos (Dirección de Personas)
- Contratación (Dirección de Hacienda).

- Ondarea (Ogasun Zuzendaritza)
- Artxiboa (Gobernantzako Zuzendaritza).
- Administrazio prozedurak, zehaztea eta onestea porposatzea (Gobernantzako Zuzendaritza).
- Lege Aholkularitza (lege zuzendaria).
- Fede publikoa (idazkari nagusia).

Honako hau esan behar du

- Giza Baliabideak (Pertsonak Kudeatzeko Zuzendaritza).
- Kontratazioa (Ekonomia Kudeaketaren Zuzendaritza).
- Ondarea (Ekonomia Kudeaketaren Zuzendaritza)
- Artxiboa (Lehendakaritza Zuzendaritza).
- Administrazio prozedurak, zehaztea eta onestea porposatzea (Lehendakaritza Zuzendaritza).
- Lege Aholkularitza (lege zuzendaria).
- Fede publikoa (idazkari nagusia).

Bigarrena.- Dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzea erabaki honetan xedatutakoa.

- Patrimonio (Dirección de Hacienda).
- Archivo (Dirección de Gobernanza)
- Procedimientos administrativos, determinación y propuesta de aprobación (Dirección de Gobernanza)
- Asesoría Jurídica (Director Jurídico).
- Fé pública (Secretario General).

Debe decir

-Recursos Humanos (Dirección de Gestión de Personas)
- Contratación (Dirección de Gestión Económica).
- Patrimonio (Dirección de Gestión Económica).
- Archivo (Dirección de Presidencia)
-Procedimientos administrativos, determinación y propuesta de aprobación (Dirección de Presidencia)
- Asesoría Jurídica (Director Jurídico).
- Fé pública (Secretario General).

Segundo.- Publicar en los Boletines oficiales que proceda el contenido del presente acuerdo.

Donostian, 2021eko apirilaren 22a

ALKATEA

Eneko Goia Laso"

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**JAKINEAN.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**ENTERADO.**

---------------

**3. Alkatearen ebazpenen kontu ematea.**

**3. Dación de cuenta de Resoluciones de Alcaldía.**

**3.1.**

**3.1.**

"ALKATEAREN EBAZPENA

2019ko ekainaren 27an, Alkatetza honek behin-behineko langileak izendatzea erabaki zuen: besteak beste, EH BILDU udal taldeko bozeramailearen aholkularia, Garikoitz Mugika Iriondo jauna.

EH BILDU udal-taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabala andereak bozeramailearen aholkularia aldatzeko berriki eskatu du.

Horregatik guztiagatik, Alkatetza honek honako ebazpen hau hartu du:

EBAZPENA

LEHENA.- Garikoitz Mugika Iriondo jauna EH BILDU udal taldeko bozeramailearen aholkulari-postutik kentzea, 2021eko apirilaren 25etik aurrera.

BIGARRENA.- Ebazpen honen berri ematea udalbatzari, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

"RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA

Esta Alcaldía, con fecha 27 de junio de 2019, resolvió realizar una serie de nombramientos de personal eventual: entre ellos, el relativo al Asesor de la Portavoz del Grupo EH BILDU, D. Garikoitz Mugika Iriondo.

La Portavoz del Grupo Municipal EH BILDU, Dª Reyes Carrere Zabala, ha comunicado recientemente la renuncia del Asesor de la Portavoz, solicitando su cese.

Por lo expuesto, esta Alcaldía adopta la siguiente

RESOLUCIÓN

PRIMERO.- Cesar a D. Garikoitz Mugika Iriondo, con efectos desde el día 25 de abril de 2021, en el puesto de Asesor de la Portavoz del Grupo EH BILDU.

SEGUNDO.- Dar cuenta de la presente Resolución al Ayuntamiento Pleno y proceder a su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Donostian, 2021eko apirilaren 26an

Eneko Goia Laso
ALKATEA"

**3.2.**

"ALKATEAREN EBAZPENA

2019ko ekainaren 27an, Alkatetza honek behin-behineko langileak izendatzea erabaki zuen: besteak beste, Donostiako sozialistak PSE-EE udal taldeko bozeramailearen aholkularia, Juan Carlos Lopez Pascual.

**3.2.**

"RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA

Esta Alcaldía, con fecha 27 de junio de 2019, resolvió realizar una serie de nombramientos de personal eventual: entre ellos, el relativo al Asesor de la Portavoz del Grupo Socialistas donostiarras PSE-EE, D. Juan Carlos López Pascual.

Donostiako sozialistak PSE-EE udal-taldeko bozeramaile Marisol Garmendia Beloqui andereak bozeramailearen aholkulariaren aldi baterako ordezkapena berriki eskatu du gaixotasunagatiko bajagatik, eta lanpostu horretarako Aitor Silva Hernandez jauna proposatu du, Juan Carlos Lopez Pascual jaunaren ordez.

La Portavoz del Grupo Municipal Socialistas donostiarras PSE-EE, Dª Marisol Garmendia Beloqui, ha solicitado recientemente la sustitución temporal por baja por enfermedad del Asesor de Portavoz, proponiendo para ese puesto a D. Aitor Silva Hernández en lugar de D. Juan Carlos López Pascual.

Horregatik guztiagatik, Alkatetza honek honako ebazpen hau hartu du:

Por lo expuesto, esta Alcaldía adopta la siguiente

EBAZPENA

RESOLUCIÓN

LEHENA.- Aitor Silva Hernández jauna izendatzea, 2021eko maiatzaren 3tik aurrerako ondorioekin, PSE-EE Donostiako Sozialistak taldeko bozeramailearen aholkulari posturako, Juan Carlos López Pascual jaunaren ordez, hura aldi baterako ez dagoen bitartean.

PRIMERO.- Nombrar a D. Aitor Silva Hernández, con efectos desde el día 3 de mayo de 2021, para el puesto de Asesor de la Portavoz del Grupo Socialistas donostiarras PSE-EE, en sustitución de D. Juan Carlos López Pascual, durante su ausencia temporal.

BIGARRENA.- Ebazpen honen berri ematea udalbatzari, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

SEGUNDO.- Dar cuenta de la presente Resolución al Ayuntamiento Pleno y proceder a su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Donostian, 2021eko apirilaren 28an

Eneko Goia Laso
ALKATEA"

**3.3.**

"ALKATEAREN EBAZPENA

2019ko ekainaren 27an, Alkatetza honek behin-behineko langileak izendatzea erabaki zuen: besteak beste, EH BILDU udal taldeko bozeramailearen aholkularia, Garikoitz Mugika Iriondo jauna.

EH BILDU udal-taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabala andereak duela gutxi jakinarazi

**3.3.**

“RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA

Esta Alcaldía, con fecha 27 de junio de 2019, resolvió realizar una serie de nombramientos de personal eventual: entre ellos, el relativo al Asesor de la Portavoz del Grupo EH BILDU, D. Garikoitz Mugika Iriondo.

La Portavoz del Grupo Municipal EH BILDU, Dª Reyes Carrere Zabala, ha comunicado

du bozeramailearen aholkulariak kargugabetu egin duela, 2021eko apirilaren 25etik aurrera.

recientemente la renuncia del Asesor de la Portavoz, siendo éste cesado con efectos del 25 de abril de 2021.

Ondoren, lanpostu horretarako Izar Hernando Ibero izendatzea proposatu du.

Posteriormente, ha comunicado proponer para ese puesto a Dª. Izar Hernando Ibero.

Horregatik guztiagatik, Alkatetza honek honako ebazpen hau hartu du:

Por lo expuesto, esta Alcaldía adopta la siguiente

EBAZPENA

RESOLUCIÓN

LEHENA.- Izar Hernando Ibero andrea EH BILDU udal taldeko bozeramailearen aholkulari-posturako izendatzea, 2021eko maiatzaren 10etik aurrera.

PRIMERO.- Nombrar a Dª. Izar Hernando Ibero, con efectos desde el día 10 de mayo de 2021, en el puesto de Asesora de la Portavoz del Grupo EH BILDU.

BIGARRENA.- Ebazpen honen berri ematea udalbatzari, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

SEGUNDO.- Dar cuenta de la presente Resolución al Ayuntamiento Pleno y proceder a su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Donostian, 2021eko maiatzaren 10ean.

Eneko Goia Laso
ALKATEA"

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**JAKINEAN.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**ENTERADO.**

---------------

**4. Bozeramaileen Batzordean onartutako erakunde adierazpenen berri ematea.**

**4. Dar cuenta de las Declaraciones Institucionales aprobadas en la Junta de Portavoces.**

"Udalbatzari:

"Al Ayuntamiento Pleno se da cuenta de:

1.- 2021eko maiatzaren 13an Bozeramaileen Batzordean onartutako Erakunde Adierazpenaren berri ematen zaio:

1.- Declaración Institucional aprobada en Junta de Portavoces de fecha 13 de mayo de 2021:

EAJ/PNV, EH BILDU, Donostiako Sozialistak PSE-EE, PP eta Elkarrekin Donostia udal talde politikoek aurkeztutako erakunde adierazpen bateratua, Donostian izan diren azken sexu eraso salaketen aurrean egindako Erakunde Adierazpena. (Aho batez onartua).

Declaración Institucional conjunta presentada por los Grupos políticos municipales EAJ/PNV, EH BILDU, Socialistas Donostiarras PSE-EE, PP y Elkarrekin Donostia, ante las denuncias por abuso registradas en Donostia / San Sebastián. (Aprobada por unanimidad).

2.- 2021eko maiatzaren 25ean Bozeramaileen Batzordean onartutako Erakunde Adierazpenen berri ematen zaio:

2.- Declaraciones Institucionales aprobadas en Junta de Portavoces de fecha 25 de mayo de 2021:

EAJ/PNV, EH BILDU, Donostiako Sozialistak PSE-EE eta Elkarrekin Donostia udal talde politikoek aurkeztutako Erakunde Adierazpen bateratua, Helth Work Palestinako osasun-erakundeko proiektuen koordinatzaile Juana Ruiz Sanchezen atxiloketari buruzkoa. (Gehiengoz onartua, EAJ/PNV, EH BILDU, Donostiako Sozialistak PSE-EE eta Elkarrekin Donostia udal taldeko Bozeramaileen aldeko botoekin eta PP taldeko Bozeramailearen aurkako botoarekin).

Declaración Institucional conjunta presentada por los grupos políticos municipales EAJ/PNV, EH BILDU, Socialistas Donostiarras PSE-EE y Elkarrekin Donostia, sobre la detención de Juana Ruiz Sánchez, coordinadora de proyectos de la organización sanitaria palestina Helth Work. (Aprobado, por mayoría, con los votos a favor de los Portavoces de los grupos municipales EAJ/PNV, EH BILDU, Socialistas Donostiarras PSE-EE y Elkarrekin Donostia y el voto en contra del Portavoz del Grupo PP).

EAJ/PNV taldeak aurkeztutako Erakunde Adierazpena, Covid-19aren aurkako txertoen eskuragarritasun unibertsalari buruzkoa. (Aho batez onartua).

Declaración Institucional presentada por el grupo EAJ/PNV, sobre el acceso universal a las vacunas contra la Covid-19. (Aprobado, por unanimidad).

Donostiako Sozialistak PSE-EE udal taldeak aurkeztutako Erakunde Adierazpena, Kultur Aniztasunaren Nazioarteko Eguna dela eta (maiatzaren 21a). (Aho batez onartua).

Declaración Institucional presentada por el grupo Socialistas Donostiarras PSE-EE, con motivo del 21 de mayo, día internacional de la diversidad cultural. (Aprobado, por unanimidad).

EAJ/PNV, EH BILDU, Donostiako Sozialistak PSE-EE eta Elkarrekin Donostia udal talde politikoek aurkeztutako Erakunde Adierazpen bateratua, Kolonbiako egoerari buruzkoa. (Gehiengoz onartua, EAJ/PNV, EH BILDU, Donostiako Sozialistak PSE-EE eta Elkarrekin Donostia udal taldeko Bozeramaileen aldeko botoekin eta PP taldeko Bozeramailearen aurkako botoarekin).

Declaración Institucional conjunta presentada por los grupos políticos municipales EAJ/PNV, EH BILDU, Socialistas Donostiarras PSE-EE y Elkarrekin Donostia, sobre la situación en Colombia. (Aprobado, por mayoría, con los votos a favor de los Portavoces de los grupos municipales EAJ/PNV, EH BILDU, Socialistas Donostiarras PSE-EE y Elkarrekin Donostia y el voto en contra del Portavoz del Grupo PP).

EH BILDU eta Elkarrekin Donostia taldeek

Declaración Institucional presentada

batera aurkeztutako Erakunde Adierazpena, Kubako Errepublikari ezarritako blokeo ekonomikoaren amaierari buruzkoa. PUNTUKA BOZKATU DA:

* 1. go eta 2. puntuen bozkak: Gehiengoz onartuak, EAJ/PNV, EH BILDU, Donostiako Sozialistak PSE-EE eta Elkarrekin Donostia udal taldeko Bozeramaileen aldeko botoekin eta PP taldeko Bozeramailearen aurkako botoarekin.

* 3. eta 4. puntuen bozkak: Aho batez onartuak.

Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztutako Erakunde Adierazpena, Nakbaren 73. urteurrena dela eta.

* 1. go, 2., 3., 4., 5., 6. eta 7. puntuen bozkak: Gehiengoz onartuak, EAJ/PNV, EH BILDU, Donostiako Sozialistak PSE-EE eta Elkarrekin Donostia udal taldeko Bozeramaileen aldeko botoekin eta PP taldeko Bozeramailearen aurkako botoarekin.

EAJ/PNV, EH BILDU, Donostiako Sozialistak PSE-EE eta Elkarrekin Donostiak batera aurkeztutako Erakunde Adierazpena, Ategorrietako gertakarien 90. urteurrena dela eta. (Aho batez onartua).

Erakunde Adierazpena, EAJ/PNV, Donostiako Sozialistak PSE-EE, PP eta Elkarrekin Donostia taldeek batera aurkeztua, Altzako alkateordetzaren egoitzan gertatutako erasoa gaitzesteko. (Gehiengoz onartua, EAJ/PNV, Donostiako Sozialistak PSE-EE, PP eta Elkarrekin Donostia udal taldeko Bozeramaileen aldeko botoekin eta EH BILDU taldeko Bozeramailearen aurkako botoarekin).

conjuntamente por los grupos EH BILDU y Elkarrekin Donostia, relativa al fin del bloqueo económico impuesto a la República de Cuba. VOTACIÓN POR PUNTOS:

* Votación de los puntos nº1 y nº2: Aprobados, por mayoría, con los votos a favor de los Portavoces de los grupos municipales EAJ/PNV, EH BILDU, Socialistas Donostiarras PSE-EE y Elkarrekin Donostia y el voto en contra del Portavoz del Grupo PP.

* Votación de los puntos nº3 y nº4: Aporbados, por unanimidad.

Declaración Institucional presentada por el grupo Elkarrekin Donostia, con motivo del 73 aniversario de la NAKBA.

* Votación de los puntos nº1, nº2, nº3, nº4, nº5, nº6 y nº7: Aprobados, por mayoría, con los votos a favor de los Portavoces de los grupos municipales EAJ/PNV, EH BILDU, Socialistas Donostiarras PSE-EE y Elkarrekin Donostia y el voto en contra del Portavoz del Grupo PP.

Declaración Institucional conjunta presentada por los Grupos EAJ/PNV, EH BILDU, Socialistas Donostiarras PSE-EE eta Elkarrekin Donostia con motivo del 90 aniversario de los sucesos de Ategorrieta. (Aprobada, por unanimidad).

Declaración Institucional, presentada de forma conjunta por los Grupos EAJ/PNV, Socilistas Donostiarras PSE-EE, PP y Elkarrekin Donostia, de condena a los ataques producidas en la sede de la Tenencia de Alcaldía de Altza. (Aprobada, por mayoría, con los votos a favor de los Portavoces de los grupos municipales EAJ/PNV, Socialistas Donostiarras PSE-EE, PP y Elkarrekin Donostia y el voto en contra de la Portavoz del Grupo EH BILDU).

Donostian, 2021eko Maitzaren 25an

IDAZKARI NAGUSIA
EL SECRETARIO GENERAL

Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA"

**BOZKETAREN EMAITZA: JAKINEAN.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN: ENTERADO.**

---------------

**I**

**ERABAKI ZATIA**

**LURRALDE GARAPEN ETA PLANIFIKAZIO BATZORDEA**

**5. Behin betiko onartzea Eraikuntzako Ordenantza Osagarriak.**

"UDALBATZARI

BEHIN BETIKO ONARTZEA ERAIKUNTZAKO ORDENANTZA OSAGARRIAK

Udalbatza Osoak, 2020ko urriaren 29ko bilkuran, hau erabaki zuen:

1. Eraikuntzako Ordenantza Osagarriak hasi bidez onartzea.

2. Testua jendaurrean jartzea 30 eguneko epean, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzeko 7/1985 Legeko 49. artikuluarekin bat, 1999ko apirilaren 11ko 11/1999 Legeak emandako idazketaren arabera, interesdunek egoki

**I**

**PARTE RESOLUTIVA**

**COMISIÓN DE DESARROLLO Y PLANIFICACIÓN DEL TERRITORIO**

**5. Aprobación definitiva de las Ordenanzas Complementarias de Edificación.**

"AL AYUNTAMIENTO PLENO

APROBACIÓN DEFINITIVA DE LAS ORDENANZAS COMPLEMENTARIAS DE EDIFICACIÓN.

El Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 29 de octubre de 2020, acordó lo siguiente:

1º Aprobar inicialmente las Ordenanzas Complementarias de Edificación.

2º Someter el expediente al trámite de información pública durante el plazo de 30 días según lo dispuesto en el artículo 49 de la ley 7/85, de 2 de abril de Bases de Régimen Local, a fin de que los interesados puedan presentar las

deritzeten erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Espedientea jendaurrean ikusgai jarri ondoren, honako hauek izan dira alegaziogile, horretarako ezarritako epean:

- SEO/Birdlife elkarte ornitologikoa, SEO-Donostia tokiko taldea.
- ELKARTU Gipuzkoako Gutxitu Fisikoen Federazio Koordinatzailea.
- Kalapie Hiriko Txirrindularien Elkartea.
- Joanes Ceberio Aguirresarobe jauna.
- Gipuzkoako Ostalaritzako Enpresarien Elkartea.

Udal Lege Aholkularitza eta Jardueren Zerbitzuaren buruak alegazioei buruzko txostena egin dute.

Txosten horiek oinarri hartuta, ordenantzaren testuan funtsezko izaerarik ez duten aldaketa hauek sartzea proposatu dute:

1. 6.2.2 artikuluko bigarren lerroaldea aldatu eta honela idaztea:

Korridorea ere den sukalde bat aukeratuz gero, gutxienez 1,40 m zabal izango da, oztoporik gabe.

2. 7.7.1 artikulua aldatu eta honela idaztea:

7.7.1. Sotoan edo teilatupean dauden lokalak dira, erabilera pribatuetarako erabiltzen direnak, hala nola ikasteko, jolasteko edo hobbyetarako, eta debekatuta dago espazio horiek logela edo/eta sukaldea edo/eta edo/eta egongela bezala erabiltzea eta gaitzea

3. 9.2 artikulua aldatu eta honela idaztea:

reclamaciones o sugerencias que estimen pertinentes.

Sometido el expediente al trámite de información pública, se han presentado, dentro del plazo establecido, las siguientes alegaciones:

- Asociación ornitológica SEO/Birdlife, grupo local SEO-Donostia.
- Federación Coordinadora de personas con discapacidad física de Gipuzkoa ( ELKARTU).
- Kalapie Hiriko Txirrindularien Elkartea.
- D. Joanes Ceberio Aguirresarobe.
- Asociación de empresarios de hostelería de Gipuzkoa.

Las citadas alegaciones han sido informadas por la Asesoría Jurídica Municipal y por la Jefa del Servicio de Actividades.

En base a dichos informes, se propone incorporar al texto de la Ordenanza las siguientes modificaciones que no tienen carácter sustancial:

1ª) Modificar el segundo párrafo del artículo 6.2.2 quedando el mismo redactado del siguiente modo:

Cuando se opte por una cocina que a su vez es pasillo la anchura mínima del mismo deberá ser de 1,40m libre de obstáculos.

2ª) Modificar el artículo 7.7.1 quedando el mismo redactado del siguiente modo:

7.7.1. Son los locales en sótano y/o bajocubierta que se destinan a usos privados tales como actividades de estudio, juego o hobbies, estando prohibido la habilitación y/o utilización de dichos espacios como dormitorio y/o cocina y/o salón.

3ª) Modificar el artículo 9.2 quedando el mismo redactado del siguiente modo:

9.2. Jasogailua: aparkatzeko 25 leku arteko garajeetan, igogailu mekaniko bat jarri ahal izango dute, sartzeko arrapalaren ordez; kasu horretan, irteeran espaloiarekiko koskarik ez badago, ez da beharrezkoa izango irteerako aldapa bururik edukitzea.

4. 12.2.2.4 artikulua aldatu eta honela idaztea:

12.2.2.4. Janaria manipulatu edo eraldatzeko asmoa duten jarduerek, eremu aseetan ez badaude, keak, gasak eta usainak kanporatzeko hodirik ez badute eta soilik mikrouhin labeak edo lurrunak kondentsazio bidez biltzeko sistemak badituzte (labea, frijigailua, etab.) edo lurruna sortzen duten elementuak, hala nola tenperatura baxuko egosgailuak edo sukaldeko robotak edo antzekoak, kanpaia eta gasak, keak eta usainak arazteko elementuak dituen iragazte sistema bat instalatu ahal izango dute, baldintza hauek betetzen badituzte:

12.2.4.1. Elementu eta instalazio guztiek sukaldeko gainazalaren barruan egon beharko dute, manipulazio eremua barne.

12.2.4.2. Sukaldetik datozen keak, gasak eta usainak esparru publikora berera isuriko dituzte.

12.2.4.3. Keak, gasak edo usainak igortzen dituzten instalazio guztien potentzia, guztira, 10 kW baino txikiagoa izango da.

5. 16.9 artikulua aldatu eta honela idaztea:

16.9. Ez da baimenduko erortzeko arriskua duten loreontzirik edo elementu esekirik jartzea.

9.2 Aparato elevador: en los garajes de hasta 25 plazas de aparcamiento se podrá sustituir la rampa de acceso por un elevador mecánico, en cuyo caso, cuando no exista desnivel de la salida respecto a la acera, no será necesario disponer de meseta de salida.

4ª) Modificar el artículo 12.2.2.4 quedando el mismo redactado del siguiente modo:

12.2.2.4 Las actividades en las que se proyecten manipulación o transformación de alimentos que no dispongan de conducto de evacuación de humos, gases y olores y que únicamente cuenten con microondas o sistemas dotados de recogida de vapores por condensación ( horno, freídora etc) o elementos generadores de vapor como cocederos de baja temperatura o robots de cocina o similares, podrán instalar un sistema de filtrado con campana y elementos depuradores de gases, humos y olores, siempre y cuando se ajusten a las siguientes condiciones:

12.2.2.4.1 Todos los elementos e instalaciones deberán estará dentro de la superficie de cocina, incluida la zona de manipulación.

12.2.2.4.2. Los humos, gases y olores procedentes de la cocina se evacuarán al propio recinto público.

12.2.2.4.3. La potencia total conjunta de todas las instalaciones emisoras de humos, gases u olores será inferior a 10 Kw.

5ª) Modificar el artículo 16.9 quedando el mismo redactado del siguiente modo:

16.9. No se autoriza la disposición de macetas o elementos colgantes con riesgo de desprendimiento.

6. 18. artikuluari paragrafo hau gehitzea:

Debeku da mehelinetan baoak eta leihoak irekitzea.

7. 17.1.3 artikulua aldatu eta honela idaztea:

17.1.3. Igogailu gelak

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 49. eta 70. artikuluetan zehaztutakoaren arabera, egokitzat jotzen dugu ordenantza onartu eta argitaratzea.

Horiek horrela, Udalbatzari proposatzen diogu honako erabaki hau onartzea

A K O R D I O A

1. Aintzat hartzea eta atzera botatzea aurkeztutako alegazioak, Udal zerbitzuek eginiko txostenek adierazten dutenaren arabera.

2. Behin betiko onestea Eraikuntzako Ordenantza Osagarriak, azalpen zatian adierazitako aldaketekin.

3. Ordenantzaren testu osoa argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, indarrean sar dadin.

6ª) Añadir el siguiente párrafo al artículo 18:

Se prohíbe la apertura de huecos y ventanas en los muros medianeros.

7ª) Modificar el artículo 17.1.3 quedando el mismo redactado del siguiente modo:

17.1.3. Los cuartos de ascensores

De conformidad con lo dispuesto en los Artículos 49 y 70 de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local, procede la aprobación y consiguiente publicación de la Ordenanza.

En base a lo anteriormente expuesto, se propone al Ayuntamiento Pleno la adopción del siguiente

A C U E R D O

1º.- Estimar y desestimar las alegaciones presentadas en el sentido señalado en los informes de los Servicios Municipales.

2º.- Aprobar definitivamente las Ordenanzas Complementarias de Edificación con las modificaciones indicadas en la parte expositiva.

3º.- Publicar el texto completo de la Ordenanza en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, a los efectos de su entrada en vigor.

Donostia-San Sebastián 17 de marzo de 2021

JARDUERA ZERBITZU JURIDIKO-ADMINISTRATIBOAREN BURUA
JEFA DE SERVICIO JURÍDICO-ADMINISTRATIVO DE ACTIVIDADES

Izpta. / Fdo.: María Luisa Irusta Pena

HIRIGINTZA JASANGARRIRAKO ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE URBANISMO SOSTENIBLE

Sin. / Fdo.: HIRIGINTZA JASANGARRIRAKO ZUZENDARIA

EL DIRECTOR DE URBANISMO SOSTENIBLE

Sin. / Fdo.: Juan Antonio Chavarri Sarasua

HIRIGINTZA SOSTENGARRIRAKO ETA ETXEBIZITZAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA
LA CONCEJALA DELEGADA DE URBANISMO SOSTENIBLE Y VIVIENDA

Sin. / Fdo.: Miren Nekane Arzallus Iturriza"

Eztabaida hasita, Nekane Arzallus Iturriza andreak, Haizea Garay Gallastegui andreak, Borja Corominas Fisas jaunak eta Ricardo Burutaran Ferre jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Nekane Arzallus Iturriza, D.ª Haizea Garay Gallastegui, D. Borja Corominas Fisas y D. Ricardo Burutaran Ferré, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK 5. GAIARI AURKEZTUTAKO 3. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 3 AL ASUNTO N.º 5 PRESENTADA POR EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.**

**ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK 5. GAIARI AURKEZTUTAKO 4. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 4 AL ASUNTO N.º 5 PRESENTADA POR EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.**

AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.

VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.

**ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK 5. GAIARI AURKEZTUTAKO 5. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 5 AL ASUNTO N.º 5 PRESENTADA POR EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA:**

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 9 – (6) EH BILDU, (3) PP.

**ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK 5. GAIARI AURKEZTUTAKO 6. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 6 AL ASUNTO N.º 5 PRESENTADA POR EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA:**

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 9 – (6) EH BILDU, (3) PP.

**ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK 5. GAIARI AURKEZTUTAKO 7. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 7 AL ASUNTO N.º 5 PRESENTADA POR EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA:**

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 3 – ELKARREKIN

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 3 – ELKARREKIN

DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.

DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.

ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK 5. GAIARI AURKEZTUTAKO 8. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 8 AL ASUNTO N.º 5 PRESENTADA POR EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 9 – (6) EH BILDU, (3) PP.

ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK 5. GAIARI AURKEZTUTAKO 9. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 9 AL ASUNTO N.º 5 PRESENTADA POR EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.

ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK 5. GAIARI AURKEZTUTAKO 10. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 10 AL ASUNTO N.º 5 PRESENTADA POR EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.

ALDEKO BOTOAK: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 23 – (9) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENTZIOAK: 0.

VOTOS A FAVOR: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 23 – (9) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENCIONES: 0.

**ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK 5. GAIARI AURKEZTUTAKO 11. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 11 AL ASUNTO N.º 5 PRESENTADA POR EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA:**

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENCIONES: 0.

**ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK 5. GAIARI AURKEZTUTAKO 12. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 12 AL ASUNTO N.º 5 PRESENTADA POR EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA:**

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 9 – (6) EH BILDU, (3) PP.

**ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK 5. GAIARI AURKEZTUTAKO 13. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 13 AL ASUNTO N.º 5 PRESENTADA POR EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA:**

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.

GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 23 – (9) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENTZIOAK: 0.

MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 23 – (9) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENCIONES: 0.

ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK 5. GAIARI AURKEZTUTAKO 14. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 14 AL ASUNTO N.º 5 PRESENTADA POR EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 20 – (9) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 3 – PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 20 – (9) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 3 – PP.

ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK 5. GAIARI AURKEZTUTAKO 15. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 15 AL ASUNTO N.º 5 PRESENTADA POR EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.

ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK 5. GAIARI AURKEZTUTAKO 16. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 16 AL ASUNTO N.º 5 PRESENTADA POR EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA:

BOZKETAREN EMAITZA:

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.

RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.

**ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK 5. GAIARI AURKEZTUTAKO 17. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 17 AL ASUNTO N.º 5 PRESENTADA POR EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA:**

EZ DA BOZKATU.

NO SE HA SOMETIDO A VOTACIÓN.

**PP TALDEAK 5. GAIARI AURKEZTUTAKO 1. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 1 AL ASUNTO N.º 5 PRESENTADA POR EL GRUPO PP:**

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.
AURKAKO BOTOAK: 23 – (9) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 3 – PP.
VOTOS EN CONTRA: 23 – (9) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
ABSTENCIONES: 0.

**PP TALDEAK 5. GAIARI AURKEZTUTAKO 3. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 3 AL ASUNTO N.º 5 PRESENTADA POR EL GRUPO PP:**

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.
AURKAKO BOTOAK: 23 – (9) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 3 – PP.
VOTOS EN CONTRA: 23 – (9) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
ABSTENCIONES: 0.

**PP TALDEAK 5. GAIARI AURKEZTUTAKO 4. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 4 AL ASUNTO N.º 5 PRESENTADA POR EL GRUPO PP:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 23 – (9) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 23 – (9) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**PP TALDEAK 5. GAIARI AURKEZTUTAKO 5. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 5 AL ASUNTO N.º 5 PRESENTADA POR EL GRUPO PP:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 23 – (9) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 23 – (9) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**PP TALDEAK 5. GAIARI AURKEZTUTAKO 7. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 7 AL ASUNTO N.º 5 PRESENTADA POR EL GRUPO PP:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 23 – (9) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 23 – (9) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**PP TALDEAK 5. GAIARI AURKEZTUTAKO 8. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 8 AL ASUNTO N.º 5 PRESENTADA POR EL GRUPO PP:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 23 – (9) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 23 – (9) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**EH BILDU TALDEAK 5. GAIARI AURKEZTUTAKO 1. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 1 AL ASUNTO N.º 5 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**EH BILDU TALDEAK 5. GAIARI AURKEZTUTAKO 2. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 2 AL ASUNTO N.º 5 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**EH BILDU TALDEAK 5. GAIARI AURKEZTUTAKO 4. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 4 AL ASUNTO N.º 5 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**5. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 5:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

--------------

**6. Behin betiko onespena ematea Donostiako IN.07 Baratzategi Hirigintza-Eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziari The English School en lurzatiari dagokionez behin betiko onarpena.**

"UDALBATZARI

BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA DONOSTIAKO "IN.07 BARATZATEGI" HIRIGINTZA-EREMUAREN HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIARI, “THE ENGLISH SCHOOL”EN LURZATIARI DAGOKIONEZ BEHIN BETIKO ONARPENA

The English Schoolek sustatuta, aipatutako

**6. Aprobación definitiva del Plan Especial de Ordenación Urbana del Ámbito Urbanístico IN.07 Baratzategi de San Sebastián relativo a la parcela “The English School”.**

"AL AYUNTAMIENTO PLENO

APROBACIÓN DEFINITIVA DEL PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN URBANA DEL ÁMBITO URBANÍSTICO “IN.07 BARATZATEGI” DE DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, RELATIVO A LA PARCELA DE “THE ENGLISH SCHOOL”

Promovido por The English School se presenta

Plan Berezia aurkeztu zen, izapidetzeko eta onartzeko, 2019ko abenduaren 30ean.

para su tramitación y aprobación el Plan Especial de referencia con fecha 30 de diciembre de 2019.

Eremua udal-titulartasuneko lursail bati dagokio, eta "The English School" ikastetxeari eman zitzaion horren erabilera pribatiboa. Ikastetxe bat eraiki ahal izateko planaren xedea da lurzatia jatorrizko finkatik bereiztea eta haren antolamendu xehatua ezartzea, lurzatiaren erabilera pribatiborako lehiaketa arautzen duten administrazio-klausula xedatzen duten pleguetan jasotakoaren arabera.

El ámbito se corresponde con una parcela de titularidad municipal y cuyo uso privativo ha sido concedido al centro escolar “The English School”. El objeto del Plan es segregar la parcela de su finca matriz de la que forma parte y establecer su ordenación pormenorizada, para posibilitar la construcción de un centro docente, conforme se contiene en los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares reguladoras del concurso para la utilización privativa de la parcela.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendariak 2020ko uztailaren 27ko Ebazpenaren bidez, Planaren ingurumen-txosten estrategikoa egin zuen (Esp. EAES 313); bertan zehazten du ez dela aurreikusten ingurumenean ondorio kaltegarri esanguratsurik izango duenik, eta, beraz, ez dela ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntik egin behar. Ebazpen hori 2020ko abuztuaren 19ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen (162. zenbakia).

Mediante Resolución de 27 de julio de 2020 del Director de Administración Ambiental del Gobierno Vasco, se formula informe ambiental estratégico del Plan ( exp. EAES-313), determinando que no se prevé que vaya a producir efectos adversos significativos sobre el medio ambiente y por tanto no debe de someterse a evaluación ambiental estratégica ordinaria. La citada resolución fue publicada en el Boletín Oficial del País Vasco el 19 de agosto de 2020 ( n.º 162).

Dokumentuaren ebaluazio soziolinguistikoa egin da, eta Euskara Zerbitzuaren txostena jaso da, 2020ko abuztuaren 27koa.

Se ha procedido a realizar la evaluación socio-lingüística del documento, constando informe del Servicio de Euskera de fecha 27 de agosto de 2020.

Genero-eraginaren ebaluazioa ere egin da; 2020ko irailaren 16ko txostena.

También se ha procedido a realizar la evaluación de impacto de género; informe fechado el 16 de septiembre de 2020.

Horrenbestez, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko urriaren 28an, honako akordio hau onartu zuen:

Por todo ello, la Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 28 de octubre de 2020, adopta el siguiente acuerdo:

“1.- Hasierako onespena ematea Donostiako "IN.07 Baratzategi" hirigintza-eremuaren hiri-antolamenduko plan bereziari, “The English School”en lurzatiari dagokionez.

“1º.- Aprobar inicialmente el Plan Especial de Ordenación Urbana del ámbito urbanístico “IN.07 Baratzategi” de Donostia/San Sebastián, relativo a la parcela de “The English School”.

Behin betiko onartu aurretik, ordea, beste testu bateratua aurkeztu beharko da, Udalaren Zerbitzu Teknikoek adierazitako baldintzak jasoko dituenak, alegia.

2.- Hogei egunean jendaurrera aterata edukitzea espedientea, alegazioak egiteko bidea izan dadin.”

Jendaurrean egondako epean ez dira alegaziorik aurkeztu.

Espedientean jasota dago URAren aldeko txostena, 2021eko otsailaren 18koa, hasierako onespenaren ondorengoa.

Udal titulartasuneko ondasun bati eragiten diola kontuan hartuta, espediente honen izapidetzearen berri eman zaio Ondarearen Udal Zerbitzuari.

Hasierako onarpenerako erabakian adierazi bezala dokumentua behin betiko onartua izateko testu berri bat aurkeztu behar zen, txosten teknikoetan egindako oharrak jasoko zituenak.

Azken dokumentu horrek, 2021eko urtarrileko data duenak, aldeko txosten hauek ditu behin betiko onarpenerako:

* Ingeniaritza: 2021/02/01 eta 2021/03/24

* Su Izalketa: 2021/01/22

* Ekonomikoa: 2021/02/08

* Juridikoa: 2021/02/09

* Arkitektura: 2021/01/26, 2021/02/11 eta 2021/03/29.

Txostenen edukiari dagokionez, Ingeniaritzak

Con carácter previo a su aprobación definitiva se deberá presentar un nuevo documento que contenga las condiciones señaladas por los Servicios Técnicos Municipales.

2º.- Someter el expediente a información pública por plazo de veinte días al objeto de que se puedan formular alegaciones.”

Durante el plazo de exposición pública no se han presentado alegaciones.

Consta en el expediente informe favorable de URA de fecha 18 de febrero de 2021, posterior a su aprobación inicial.

Teniendo en cuenta su afección a un bien de titularidad municipal se ha comunicado la tramitación del presente expediente al Servicio municipal de Patrimonio.

Tal y como se expresaba en el acuerdo de aprobación inicial había necesidad de aportar un nuevo texto para su aprobación definitiva que recogiese las observaciones realizadas en los informes técnicos.

Este último documento, fechado en enero de 2021, cuenta con los siguientes informes favorables para su aprobación definitiva:

* Ingeniería: 01/02/2021 y 24/03/2021

* Extinción de Incendios: 22/01/2021

* Económico: 08/02/2021

* Jurídico: 09/02/2021

* Arquitectura: 26/01/2021, 11/02/2021 y 29/03/2021.

Respecto al contenido de los informes, Ingeniería

aldeko txostena eman zuen, baina, hala ere, espaloiak galtzadaren bi aldeetan jartzeko beharra ikusi zuen. Hori dela eta, 2021eko martxoaren 26an, sustatzaileak dokumentazio osagarria aurkeztu zuen premia hori komenigarria zen ala ez adierazteko.

emitía informe favorable pero, no obstante, consideraba la necesidad de contemplar aceras a ambos lados de la calzada. Es por ello, que con fecha 26 de marzo de 2021 el promotor aportó documentación complementaria respecto a la conveniencia o no de dicha necesidad.

Azken dokumentazio hori aztertu eta Arkitektura txostena egin zen martxoaren 29an, eta bertan behar bezala justifikatutzat jo zen "proposatutako eraikinari zerbitzua emango ez liokeen espaloia egitea" beharrezkoa ez zela.

Esta última documentación fue analizada y se emitió informe de Arquitectura de fecha 29 de marzo en el cual se considera debidamente justificada la innecesariedad de "ejecutar una acera que no daría servicio al edificio que se propone".

Horrenbestez, 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 97. artikuluak eta bete behar diren gainerako aginduek jartzen dutena aintzakotzat hartu eta izapidetu egin behar da plana.

A la vista de lo expuesto, procede, en consecuencia su tramitación, de conformidad con lo establecido en el artículo 97 de la Ley 2/2006 de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo y demás preceptos de aplicación.

Aurrekoagatik guztiagatik, eta Toki Araubidearen Oinarrien gaineko 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 123 i) artikuluak agintzen duena aintzakotzat hartuta, Donostiako udalbatzak

Visto cuanto antecede y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 123 i) de la ley 7/85 de 2 de Abril, reguladora de las Bases del régimen Local, el Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián

E R A B A K I  D U

A C U E R D A

1º.- Behin betiko onartzea Donostiako "IN.07 Baratzategi" hirigintza-eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Berezia, "The English School" lurzatiari dagokiona.

1º.- Aprobar con carácter definitivo el Plan Especial de Ordenación Urbana del ámbito urbanístico "IN.07 Baratzategi" de Donostia/San Sebastián, relativo a la parcela de "The English School".

2º.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 89. artikuluak agintzen duena aintzakotzat hartu eta Planaren Hirigintza Arauak argitaratzea.

2º.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 89 de la ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, proceder a la publicación de las Normas Urbanísticas del plan.

Udalbatzak onar dezan proposatua, Donostian, 2021eko apirilaren 7an.

Lo proponen para su adopción por el Pleno en San Sebastián a 7 de abril de 2021

HIRIGINTZA JASANGARRIRAKO ANTOLAMENDU ETA EXEKUZIO ZERBITZUKO TEKNIKARI JURIDIKOA /

TECNICA JURIDICA DEL SERVICIO JURIDICO ADMINISTRATIVO DE ORDENACIÓN Y EJECUCIÓN DE URBANISMO SOSTENIBLE

Izpta. / Fdo.: Amaia Gibelalde Gonzalez

HIRIGINTZA JASANGARRIRAKO ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE URBANISMO SOSTENIBLE

Sin. / Fdo.: Juan Antonio Chavarri Sarasua

HIRIGINTZA SOSTENGARRIRAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA
LA CONCEJALA DELEGADA DE URBANISMO SOSTENIBLE

Sin. / Fdo.: Miren Nekane Arzallus Iturriza"

Eztabaida hasita, Nekane Arzallus Iturriza andreak, Haizea Garay Gallastegui andreak, Borja Corominas Fisas jaunak eta Ricardo Burutaran Ferre jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Nekane Arzallus Iturriza, D.ª Haizea Garay Gallastegui, D. Borja Corominas Fisas y D. Ricardo Burutaran Ferré, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.**

--------------

**GUNE PUBLIKOEN BATZORDEA. OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK**

**COMISIÓN DE ESPACIO PÚBLICO. OBRAS Y SERVICIOS URBANOS.**

**7. Donostiako Udalaren eta euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio**

**7. Convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de San Sebastián y la**

**Orokorraren arteko lankidetza hitzarmena, Europar Batasuneko Espainia ez beste estatu kide batean matrikulatutako ibilgailuak abiadura gainditzeagatik burututako arau hausteen inguruan.**

"UDALBATZARI

DONOSTIAKO UDALAREN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, EUROPAR BATASUNEKO ESPAINIA EZ BESTE ESTATU KIDE BATEAN MATRIKULATUTAKO IBILGAILUAK ABIADURA GAINDITZEAGATIK BURUTUTAKO ARAU HAUSTEEN INGURUAN

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/413 Direktiba (EB), 2015eko martxoaren 11koa, mugaz gaindiko informazioa partekatzea errazten duenak, bide segurtasun arloan trafikoko arau-hausteei dagokionez, Batasunean bide publikoko erabiltzaile guztien babes maila handia bermatzeko, honako helburua du: mugaz gaindiko informazioa partekatzea erraztea bide segurtasun arloan trafikoko arau-hausteei dagokionez eta, horren ondorioz, zehapenak aplikatu ahal izateko.

Zortzi kasu dira:

a) Abiadura gainditzea;
b) Segurtasun uhala ez erabiltzea;
c) Mozkorturik gidatzea;
d) Semaforoa gorriz dagoela ez geratzea;
e) drogen eraginpean gidatzea;
f) babes-kaskoa ez erabiltzea;
g) debekatutako erreietik zirkulatzea;
h) telefono mugikorra edo komunikatzeko beste tresna legez kontra erabiliz gidatzea.

Trafikoko arau-hauste hauek ikertzeko eta dagozkien zehapen-espedienteak bideratzeko

**Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en relación con las infracciones por exceso de velocidad de vehículos matriculados en un estado miembro de la Unión Europea distinto de España.**

"AL AYUNTAMIENTO PLENO

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN Y LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI, EN RELACIÓN CON LAS INFRACCIONES POR EXCESO DE VELOCIDAD DE VEHÍCULOS MATRICULADOS EN UN ESTADO MIEMBRO DE LA UNIÓN EUROPEA DISTINTO DE ESPAÑA

La Directiva (UE) 2015/413 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 11 de marzo de 2015, por la que se facilita el intercambio transfronterizo de información sobre infracciones de tráfico en materia de seguridad vial, para garantizar un elevado nivel de protección para todos los usuarios de la vía pública en la Unión, tiene como objetivo facilitar el intercambio transfronterizo de información sobre infracciones de tráfico en materia de seguridad vial y la consiguiente aplicación de sanciones.

Se trata de ocho supuestos:

a) exceso de velocidad;
b) no utilización del cinturón de seguridad;
c) no detención ante un semáforo en rojo;
d) conducción en estado de embriaguez;
e) conducir bajo la influencia de las drogas;
f) no utilización del casco de protección;
g) circulación por un carril prohibido;
h) utilización ilegal de un teléfono móvil o de cualquier otro dispositivo de comunicación durante la conducción.

Para la investigación de estas infracciones de tráfico y para el intercambio de la información

behar den informazioa partekatzeko estatu kide bakoitzak izendatuko du harremanetarako puntu nazionala eta urriaren 30eko Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartu zuen 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 99 artikuluaren arabera, gure kasuan, harremanetarako puntu hori Trafikoko Buruzagitza Nagusia organismo autonomoa da.

Zentzu honetan, aipatu Legegintzako Errege Dekretuaren 100. artikuluak ezartzen du Trafikoko Buruzagitza Nagusia organismo autonomoak emango dizkiela trafiko arloan zehatzeko eskudunak diren organoei nazio batean arau-haustea burutzeko erabili zen eta Europako Batasuneko beste estatu batean matrikulaturik dagoen ibilgailuaren jabe edo titularraren datuak, baita ibilgailua matrikulatuta dagoen estatuaren ibilgailuen erregistroan agertzen diren ibilgailuaren datuak ere.

Trafikoko Zuzendaritza, harremanetarako puntu nazionalaren bitartez, abiadura gainditzeagatik arau-hausteak bideratzeko sar daiteke Europar Batasuneko espainia ez beste estatu kide batean matrikulatutako ibilgailuen titularren datuetara, baita ibilgailuen datuetara ere.

Udal administrazio honek lehen adierazi diren datuetara ez du sarbiderik eta abiadura gainditzeagatik arau hausteengatik dagozkien zehapen espedienteak bideratu ahal izateko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak proposatu du lankidetza hitzarmen hau.

Onartzea proposatzen den hitzarmen hau Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 141 artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 10 eta 55 d)

necesaria para la tramitación de los expedientes sancionadores correspondientes cada Estado miembro designará un punto de contacto nacional que, de acuerdo con el artículo 99 del Real Decreto Legislativo 6/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, en nuestro caso, es el organismo autónomo Jefatura Central de Tráfico.

En este sentido, el artículo 100 del expresado Real Decreto Legislativo 6/2015 establece que el organismo autónomo Jefatura Central de Tráfico facilitará a los órganos competentes para sancionar en materia de tráfico los datos relativos al propietario o titular del vehículo con el que se cometió la infracción en territorio nacional con un vehículo matriculado en otro Estado miembro de la Unión Europea, así como los relativos al propio vehículo que se encuentren disponibles en el registro correspondiente del Estado de matriculación.

La Dirección de Tráfico, a través del punto de contacto nacional, puede acceder a los datos de los titulares de vehículos y de los propios vehículos matriculados en Estados miembros de la Unión Europea distintos de España para la tramitación de las infracciones por exceso de velocidad.

Esta administración municipal no dispone de acceso a los datos expresados y para poder tramitar los expedientes sancionadores por la comisión de las infracciones por exceso de velocidad se ha propuesto por parte de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco el presente convenio.

El convenio cuya aprobación se propone se enmarca en el principio de colaboración entre administraciones públicas que se recoge tanto en el artículo 141 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público como en

artikuluetan jasotzen den Administrazio Publikoen arteko harremanetan egon behar den elkarren laguntzaren esparruan kokatzen da eta dezente laguntzen dio Donostiako Udalari behar bezala amaitu ahal izateko aipatu zehapen espedienteak, kontuan izanik Europako Batasuneko hizkuntzetara testuak itzultzeko konplexutasuna, nazioarteko jakinarazpenen zailtasuna, eta abar.

los artículos 10 y 55 d) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local y facilita enormemente al Ayuntamiento de San Sebastián el que puedan llegar a buen puerto los expresados expedientes sancionadores dada la complejidad de la traducción de los textos a los idiomas de la Unión Europea, la dificultad de la notificación internacional, etc.

Era berean, hitzarmenaren edukia bete ahal izateko, bertan aurreikusten da eskumenak delegatzea, aipatu 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 84 artikuluan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 9 eta 11 artikuluetan xedatutakoarekin bat.

Asimismo, para poder llevar a efecto el contenido del convenio se dispone en el mismo la delegación de competencias, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 84 del mencionado Real Decreto Legislativo 6/2015 y en los artículos 9 y 11 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Kontuan izanik Donostiatik urtero Europar Batasuneko beste estatu kide batean matrikulatutako milaka ibilgailu dabiltzala, bide segurtasuna bermatzeko, hitzarmen hau aplikatzeak berebiziko interesa du.

Atendiendo a que por San Sebastián circulan anualmente miles de vehículos matriculados en otros Estados de la Unión Europea, con el objeto de garantizar la seguridad vial, se estima del máximo interés la aplicación del presente convenio.

Horregatik guztiagatik, eta hitzarmen honen objetu diren zehapen espedienteak eraginkortasunez nahiz behar bezala finantzatu eta kudeatuta bideratzeko eta kontuan izanik Finantza Zuzendaritza eta Mugikortasuneko Zuzendaritzaren oniritzia duela, egoki deritzogu aipatu hitzarmenaren onarpena proposatzea.

Por todo ello y atendiendo a razones de eficacia, correcta financiación y gestión de los expedientes sancionadores objeto del presente convenio y teniendo en cuenta de que se tiene el visto bueno de la Dirección Financiera y la Dirección de Movilidad, se considera adecuado proponer su aprobación.

Horiek horrela direla, Udalbatzari ondokoak proposatzen dizkiogu

A la vista de lo expuesto, se propone al Ayuntamiento Pleno la adopción de los siguientes

ERABAKIAK

A C U E R D O S

Lehenengoa. Delegatzea Donostiako Udalaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarren artean Europar Batasuneko Espainia ez beste estatu kide batean matrikulatutako ibilgailuak abiadura gainditzeagatik burututako arau hausteak

Primero. Delegar el ejercicio de competencias sancionadoras por la comisión de infracciones por exceso de velocidad de vehículos matriculados en un Estado miembro de la Unión Europea distinto de España entre el Ayuntamiento de San Sebastián y la Administración General de la CAV.

zigortzeko eskumenen erabilera.

Bigarrena. Sinatzea Donostiako Udalaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren arteko lankidetza hitzarmena, Europar Batasuneko Espainia ez beste estatu kide batean matrikulatutako ibilgailuak abiadura gainditzeagatik burututako arau hausteen inguruan.

Segundo. Suscribir el Convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de San Sebastián y la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en relación con las infracciones por exceso de velocidad de vehículos matriculados en un estado miembro de la Unión Europea, distinto de España.

Hirugarrena. Ogasuneko eta Finantzetako zinegotzi ordezkariari ahalmena ematea hitzarmenaren testua aldatzeko baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak aipatu hitzarmena onartu ahal izateko aldatu beharko balu.

Tercero. Facultar al Concejal Delegado de Hacienda y Finanzas para introducir en el texto del convenio las modificaciones que resulten necesarias para su aprobación por parte de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Laugarrena. Hitzarmena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara ematea. Hitzarmenaren testua doa proposamen honekin bat.

Cuarto. Se procederá a la publicación del expresado Convenio en el Boletín Oficial del País Vasco. El texto del Convenio se acompaña a esta propuesta.

Donostian, 2021eko maiatzaren 3an.

FINANTZA ZUZENDARIA,

Sin.: Oscar Villasante Arbelaiz.

O.E.
ALKATEA,
Sin.: Eneko Goia Laso

ISUN ATAL BURUA,

Sin.: Joxe Mari Azcoaga Lasheras."

O.E.
OGASUNEKO ETA FINANTZETAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA,

Sin.: Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga."

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**
**QUORUMA.**
**ABSTENTZIOAK: 1 – EH BILDU PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**
**QUORUM.**
**ABSTENCIONES: 1 – EH BILDU POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

---------------

**OGASUN BATZORDEA**

**8. Arau-proposamenaren ekimena, PP taldeak aurkeztua, Udal-jabari publikoa okupatzeagatiko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala aldatzeko.**

"Udal Talde Popularreko bozeramaile Borja Corominas Fisas naizen honek, Udalbatzaren Organo Araudiko 90. eta 91. artikuluen babespean, UDAL JABARI PUBLIKOA OKUPATZEKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ZERGA ORDENANTZA ALDATZEKO ARAU PROPOSAMEN hau aurkezten dut.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den apirilaren 29ko osoko bilkuran mozio bat onartu ondoren, zeinaren xedapen zatiak tasa hori beranduago kobratzea ondorioztatzen baitzuen, udal jabari publikoa okupatzeko tasak arautzen dituen zerga Ordenantza aldatu arte, Talde Popularrak honako hau proposatzen du

ERABAKIA

• Bidezkotzat jotzea Udal Jabari Publikoa Okupatzeko Tasak arautzen dituen Zerga Ordenantzari buruzko Arau Proposamena aldatzea, 2021. urterako hobari bat onesteko.

• Horrenbestez, proposamen arauemailearen ekimen hau aurretiazko kontsulta publikoaren izapidera eramatea, Udalbatzaren Organo Araudiko 115. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Donostian, 2021eko maiatzaren 7an

**COMISIÓN DE HACIENDA**

**8. Iniciativa de proposición normativa, presentada por el Grupo PP, de modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora de las Tasas por la Ocupación del Dominio Público Municipal.**

"Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Municipal Popular, al amparo de los artículos 90 y 91 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INICIATIVA DE PROPOSICIÓN NORMATIVA DE MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LAS TASAS POR LA OCUPACIÓN DEL DOMINIO PÚBLICO MUNICIPAL.

JUSTIFICACIÓN

Tras la aprobación por unanimidad el pasado Pleno de 29 de abril, de una moción cuya parte dispositiva suponía el aplazar el cobro de esa tasa hasta que se modifique la Ordenanza Fiscal reguladora de las tasas por la ocupación del dominio público municipal, el Grupo Popular propone el siguiente:

ACUERDO

• Entender como procedente la modificación de la Proposición Normativa sobre la Ordenanza Fiscal Reguladora de las Tasas por Ocupación del Dominio Público Municipal, a fin de aprobar una bonificación en la misma para el año 2021.

• Someter, en consecuencia, esta iniciativa de Proposición Normativa al trámite de Consulta Pública Previa, de conformidad con lo previsto en el artículo 115 del ROP.

En San Sebastián, a 7 de mayo de 2021

Borja Corominas Fisas,
Udal Talde Popularraren bozeramailea".

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular".

Eztabaida hasita, Borja Corominas Fisas jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Marisol Garmendia Beloqui andreak, Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga jaunak eta Zigor Etxeburua Urbizu jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Borja Corominas Fisas, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D.ª Marisol Garmendia Beloqui, D. Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga y D. Zigor Etxeburua Urbizu, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEA**

**COMISIÓN DE SERVICIOS A LAS PERSONAS**

**9. Miramar Jauregia Partzuergoko estatutuetako osoko aldaketa onartzea.**

"UDALBATZARRARI

Martxoaren 30ean, Miramar Jauregia Partzuergoaren Artezkaritza Batzordeak aho batez onetsi zuen bere estatutuak osorik aldatzea, espedientean jasota dagoen akordio ziurtapenean jasotako eran.

Hainbat arrazoirengatik hartu du akordio hori.

**9. Aprobación de la modificación integral de Estatutos del Consorcio Palacio Miramar.**

"AL AYUNTAMIENTO PLENO

El pasado 30 de marzo la Junta Rectora del Consorcio Palacio Miramar aprobó, por uninimidad, la modificación, en su integridad, de sus estatutos, en los términos recogidos en la certificación del acuerdo que figura en el expediente.

Son diversas las razones que han llevado a la adopción de un acuerdo como el referido.

Orain arte, partzuergoak ondo funtzionatu du, gogobetegarria izan da bai partzuergoaren eta bai jauregiaren beraren kudeaketa, eta ondo bete dira partzuergoa sortzeko zio izan ziren xede eta helburuak ere.

Hasta el presente, el funcionamiento del Consorcio, su gestión y la propia del Palacio, así como el cumplimiento de las finalidades y objetivos para los que fue concebido en el momento de su creación, han sido satisfactorios.

Hala ere, egia da zenbaitetan ez dela oso arina eta eraginkorra izan erakunde horri jatorrian eman zitzaion antolaketa egitura bera eta, aldi berean, partzuergoaren barruan kudeaketa modu gisa fundazio publiko bat sortu izana. Nahasgarri ere suertatu izan da hori kudeaketaren ikuspuntutik.

Sin embargo, no es menos cierto que la propia estructura organizativa de que se dotó a esta entidad en sus orígenes y la creación simultánea, en el seno del Consorcio, de una fundación pública como forma de gestión se han mostrado como poco ágiles y operativas en determinadas ocasiones, así como confusas desde el punto de vista de la gestión.

Gainera, partzuergoa sortu ondoren, hainbat lege aldaketa garrantzitsu gertatu dira, eta hori ere gehitu behar zaio aurretik esandakoari, aldaketa horiek zuzenean eragiten baitute zuzenbide publikoko era honetako erakundeen arauketan. Hala, aipatzekoak dira Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legea eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2016ko apirilaren 7ko 2/2016 Legea.

A esto cabe añadir diversos cambios legislativos de calado que han tenido lugar con posterioridad a la creación del consorcio y que inciden directamente en la regulación de este tipo de entidades de derecho público. Así, cabe citar la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público o la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.

Azkenik, egungo testuinguru ekonomikoaren ondorioz, partzuergoko erakundeek gogoeta egin behar izan dute partzuergoaren funtzionamendua eta jauregiaren kudeaketa eguneratzeko moduari buruz, identifikatu diren zailtasunak konpontzeko eta, horrela, etorkizunean beren helburuak betetzeak dakartzan erronkei aurre egin ahal izateko

Finalmente, el contexto económico actual ha llevado a las entidades consorciadas a reflexionar sobre el modo en que el funcionamiento del consorcio y la gestión del Palacio deben ser actualizados con el objeto de resolver las dificultades que se han venido identificando y poder afrontar así en el futuro los retos inherentes al cumplimiento de sus fines.

Horiek horrela, eta ikusita Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak zer dioen 123.p) artikuluan Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 106. artikuluari dagokionez, hau da Donostiako Udalbatzak hartzen duen

Visto cuanto antecede y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 123.p) de la Ley 7/85, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, en relación con el artículo 106 de la Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi, el Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián adopta el siguiente

AKORDIOA

ACUERDO

Onestea Miramar Jauregia Partzuergoaren (aurrerantzean, MIRAMAR JAUREGIA PARTZUERGOA) estatutuak osorik aldatzeko proposamena, Partzuergoko Artezkaritza Batzordeak 2021eko martxoaren 30ean onetsia. Idazki honi erantsitako dokumentuan jaso da proposamena.

Aprobar la propuesta de modificación integral de los Estatutos del Consorcio Palacio Miramar (en adelante, Consorcio Palacio Miramar/Miramar Jauregia Partzuergoa) recogida en el documento adjunto aprobado por la Junta Rectora del Consorcio el 30 de marzo de 2021.

Donostian, 2021eko apirilaren 21ean.

Kulturako eta Euskarako zinegotzi ordezkaria
Jon Insausti Maisterrena jn."

Eztabaida hasita, Jon Insausti Maisterrena jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak eta Reyes Carrere Zabala andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D. Jon Insausti Maisterrena, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi y D.ª Reyes Carrere Zabala, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 14 – (7) EAJ-PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA. 3 PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK (2 EAJ/PNV ETA 1 PP).**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 14 – (7) EAJ-PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 12 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA. 3 POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA (2 EAJ/PNV Y 1 PP).**

---------------

## ZERBITZU OROKORREN BATZORDEA

## COMISIÓN DE SERVICIOS GENERALES

**10. Toki Erakunde Txikia eratzeko prozesuaren hasiera onartzea.**

**10. Aprobación inicio proceso Entidad Local Menor de Igeldo.**

"UDALBATZARI

Oraingo legegintzaldiko gobernu-programan (2019-2013), gobernu honek hitzeman zuen Igeldon toki erakunde txiki bat (Udalez peko erakundea, bestela esanda) eratzea sustatuko zuela, udal eraginkorragoa, hurbilagoa eta parte-hartzaileagoa lortze aldera.

Horretarako, alkateak batzorde ez-iraunkor bat sortzea proposatu zuen, Igeldon toki erakunde txiki bat eratzea sustatzeko. Igeldo administrazio aldetik deszentralizatzen lagunduko duen erakundea eratzeko prozedurari hasiera eman aurretik, lege-esparrua aztertu eta adostu behar zen.

2020/06/15ean, Donostiako Udaleko talde politiko guztiek, Udaleko Zerbitzu Orokorren Batzordean, batzorde ez-iraunkorra sortzearen aldeko botoa eman zuten; beraz, proposamena aho batez onartu zen eta, ondorioz, Udalbatzaren onarpena ere lortu zuen.

Batzorde ez-iraunkor hori alderdi politiko bakoitzeko ordezkari batek eta alkateak osatzen dute. Alkatea da batzordeburua.

Hasieratik, komenigarritzat jo zen herritarren parte-hartzea kontuan hartzea, bi helbururekin: alde batetik, adostasunak bilatzeko lan-metodologia ezartzea eta, bestetik, 2/2003 Foru Arauan aurreikusitako prozesuaren abiaburura iristean, hobeto ezagutzea prozesu horrek planteatzen dituen erronka eta edukiak

Asmo horrekin, Igeldoko Herri Kontseiluko kideei eskatu zitzaien, Udalbatzako ordezkariekin batera, haietako batzuek lantalde batean parte hartzeko. Taldea 2020/10/16an hasi zen lanean, Udaleko Herri Partaidetza Zerbitzuko teknikarien eta Siadeco Ikerketa Elkarteko teknikarien laguntzarekin; Siadeco idazkaritzaz,

"AL AYUNTAMIENTO PLENO

En el programa de gobierno de la legislatura actual 2019-2023, este gobierno adquirió el compromiso para promover la constitución de una Entidad Local menor en Igeldo como instrumento que pudiese ayudar a lograr un Ayuntamiento más eficaz, cercano y participativo.

A tal efecto, el alcalde propuso la creación de una comisión no permanente para promover la constitución de la Entidad Local Menor en Igeldo con el objeto de estudiar y acordar el marco legal previo al inicio del procedimiento para la constitución de la entidad que ayudará a la descentralización administrativa de Igeldo.

El 15/06/2020 todos los grupos políticos del Ayuntamiento de San Sebastián votaron a favor de la creación de la misma en la Comisión de Servicios Generales del Ayuntamiento, de manera que la propuesta fue a probada por unanimidad con su consiguiente aprobación en el pleno.

Esta comisión no permanente quedó formada por un representante de cada partido político y el alcalde que la preside.

Igualmente se estimó conveniente incorporar desde el inicio la participación ciudadana, con dos objetivos: por un lado implementar una metodología de trabajo de búsqueda de consensos y por otro, llegar al punto de partida del proceso previsto en la Norma Foral 2/2003 con un conocimiento mayor de los retos y contenidos que este proceso plantea .

Con esta voluntad se solicitó a miembros del Igeldoko Herri Kontseilua que junto a la representación de la corporación en el seno de la Comisión formaran parte de un grupo de trabajo. El grupo inició su tarea el 16/10/2020 y ha sido asistido por personal técnico municipal del servicio de Participación Ciudadana y técnicos de

aholkularitzaz eta lantaldearen dinamizazioaz arduratu da.

la Sociedad de Investigación Siadeco encargada de la secretaría, del asesoramiento y dinamización del grupo de trabajo.

Talde hori udal korporazioko bost kidek, alkateak eta Igeldoko Herri Kontseiluko bost kidek osatzen dute, eta haren egitekoa izan da edukiak taxutzea, funtzionamendua zehaztea eta, Udalaren osoko bilkuran toki erakunde txikia sortzeko prozesuari ekin ostean, jarraitu beharreko plangintza egitea.

Este grupo, formado por 5 miembros de la corporación, el alcalde y 5 miembros del Igeldoko Herri Kontseilua ha realizado un trabajo de aproximación a contenidos, funcionamiento y planificación del proceso a seguir, una vez se de aprobación en el Pleno municipal al inicio del proceso de creación del Ente Local Menor.

Igeldoko toki erakunde txikia sortzeko lantaldea definitzeko prozesuaren memoria izena duen dokumentuan jasotako lan horrek gidatzen du, hain zuzen ere, zer prozesuri jarraitu behar zaion Igeldoko toki erakunde txikia sortzeko.

Este trabajo recogido en el documento denominado Memoria del proceso de definición del grupo de trabajo para la creación de la Entidad Local Menor de Igeldo, que figura en el expediente, orienta el proceso a seguir para avanzar en la creación del Ente local menor de Igeldo.

Igeldoko toki erakunde txikia sortzeko espedientea abiarazteko erabaki proposamen hau eragin duen lana amaitu ondotik, azkendutzat ematen da Igeldon toki erakunde txiki bat eratzea sustatzeko sortutako batzorde ez-iraunkorra.

Finalizado el trabajo desarrollado que da lugar a esta propuesta de acuerdo de inicio del expediente de creación del Ente local menor de Igeldo alcanza su final la Comisión no permanente creada promover la constitución de la Entidad Local Menor en Igeldo.

Gipuzkoako Udal Barrutiak arautzen dituen 2003ko martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauak, III. kapituluaren barruan, prozeduraren ekimenari dagokionez, honako hau dio 26. artikuluak:

En la norma foral 2/2003 de 17 de marzo, reguladora de las Demarcaciones Municipales de Gipuzkoa, en cuanto a la iniciativa del procedimiento dentro del capítulo III en el artículo 26 dice lo siguiente:

26. artikulua. Ekimena

Artículo 26. Iniciativa

Udalez peko erakundeak eratzeko ekimena martxan jarri dezakete:

La iniciativa para la constitución de Entidades Locales menores corresponde:

a) Erakundearen oinarria izan behar duen lurraldeko auzotar egoiliarrek, lurraldeari zegokion azkenengo hautesle erroldan zeuden guztien ehuneko berrogeita hamar, gutxienez, baldin badira. Ekimena martxan jartzeko batzorde sustatzailea eratuko dute auzotarrek.

a) A los vecinos residentes en el territorio que ha de ser base de la entidad, en una mayoría del cincuenta por ciento, como mínimo, del último censo electoral de la parte del territorio correspondiente. A tal efecto, los vecinos han de constituir una comisión promotora.

b) Udalak, egitatezko udalkide kopuruaren bi herenen eta, betiere, legezko udalkide kopuruaren gehiengo absolutuak aldeko botoa ematen badu.

b) Al Ayuntamiento correspondiente, mediante acuerdo adoptado con el voto favorable de las dos terceras partes del número de hecho y, en todo caso, de la mayoría absoluta del número legal de los miembros de la corporación.

Udalak egokitzat jo du Igeldorako toki erakunde txikia sortzea eta 26 b) artikuluaren arabera definitutako prozedurari ekitea. Erabaki hori hartzeko, izatezko kopuruaren bi herenen aldeko botoa behar da, eta, edozein kasutan, udal korporazioko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoa ere bai.

El Ayuntamiento ha estimado conveniente la creación del ente local menor para Igeldo e iniciar el procedimiento acorde al articulo 26 b). Dicho acuerdo debe adoptarse con el voto favorable de las dos terceras partes del número de hecho y, en todo caso, de la mayoría absoluta del número legal de los miembros de la corporación.

Gipuzkoako udal barrutiak arautzen dituen martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauaren 28. artikuluan xedatutakoak dioenaren arabera erabakia hartu ondoren, Udalak azterlan bat egin beharko du erakunde berria eratzea komenigarria dela justifikatzeko. Azterlan horretan, aipaturiko foru arauaren 28. artikuluan adierazitako alderdiak jaso beharko ditu.

Adoptado el acuerdo, de conformidad con lo dispuesto en el articulo 28 de la Norma Foral 2/2003 de 17 de marzo, reguladora de las Demarcaciones Municipales de Gipuzkoa, el Ayuntamiento debe confeccionar un estudio justificativo de la conveniencia de la constitución de la nueva entidad, estudio que deberá contemplar los aspectos señalados en el referido articulo 28.

Azterlana egin ondoren, jendaurrean jarriko da formalizatutako espedientea, eta aipatutako foru arauaren 29. artikuluan ezarritako gainerako izapideak egingo dira.

Elaborado el estudio, se someterá el expediente formalizado a información pública y se seguirán el resto de trámites establecidos en el articulo 29 de la referida Norma Foral.

Udalaren asmoa da udal ordezkaritza duten alderdi politiko guztiek eta Igeldoko eremuko auzo-ordezkariek lankidetzan jardutea aipatutako azterlana egiten.

Es voluntad del Ayuntamiento la colaboración de todas las fuerzas políticas con representación municipal así como de representantes vecinales del ámbito de Igeldo en la confección del referido estudio.

Horretarako, inguruabar bereziak kontuan hartuta, eta Gobernu eta Administrazioko Erregelamendu Organikoaren (ROGA) 52.3 artikuluan xedatutakoaren babesean, alkateak egokitzat jotzen du batzorde berezi bat sortzea, zeinak Igeldoko toki erakunde txikia eratzeko lantalde izena hartuko baitu. Batzorde horren helburua izango da Udalak egin beharreko

A tal fin, dadas las especiales circunstancias concurrentes, al amparo de lo dispuesto en el articulo 52.3 del Reglamento Orgánico de Gobierno y Administración, ROGA, por parte del Alcalde se considera procedente la creación de una Comisión especial que adoptará la denominación de Grupo de trabajo para la constitución de la Entidad local menor de Igeldo, y

azterlana egiten parte hartzea, eta, informazio juridikoa eta fiskalizatua eman ondoren, Udalaren osoko bilkurari helaraziko zaio, jendaurrean jarri aurretik onets dezan eta, hala, prozesuak aurrera jarraitu ahal izan dezan.

que tendrá como objeto la participación en la elaboración del estudio que el Ayuntamiento debe elaborar y que una vez informado jurídica y fiscalizado, será elevado al Ayuntamiento Pleno para su aprobación de forma previa a su exposición pública y continuación del proceso.

Batzorde hori aholku emateko da, ez da osoko bilkuraren organoa, eta alkateak proposatuta sortu da, Gobernu eta Administrazioko Erregelamendu Organikoaren 52.3 artikuluaren babesean. Halaber, Herritarren Partaidetzarako Erregelamenduaren 20. eta 23. artikuluen aurreikuspenaren adierazgarri da.

Esta Comisión, de naturaleza consultiva, que no tiene naturaleza de órgano del Pleno y que se crea a propuesta del Alcalde al amparo del articulo 52.3 del ROGA, constituye manifestación de la previsión del Reglamento de Participación ciudadana, artículos 20 y 23.

Batzorde berezi horri kontsulta egingo zaio, erakundea eratzeko proposamena aurkezteko eta onartzeko erabaki proposamena egiteko epean jasotako alegazioak ebatzi aurretik.

La citada Comisión especial será consultada con carácter previo a la resolución de alegaciones recibidas en el periodo de exposición y elaboración de la propuesta de acuerdo de aprobación de la propuesta de constitución de la entidad.

Espedientean jasotako arauek definituko dute batzorde bereziaren funtzionamendua, eta organo horrek osatu ahal izango ditu funtzionamendu arauak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

El funcionamiento de la Comisión especial se regirá por las reglas recogidas en el expediente, pudiendo, de conformidad con lo previsto en el articulo 15.3 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, completar este órgano sus reglas de funcionamiento.

Aldi berean, herritarrek parte hartzeko prozesu osagarriak egitea aurreikusten da, Igeldoko herritarren ikuspegia modu irekian eta zabalean jasotzeko.

Paralelamente se prevén celebrar procesos de participación ciudadana complementarios que recojan de manera abierta y amplia la visión de las y los vecinos de Igeldo.

Horiek horrela, alkateak honako erabaki hau hartzea proposatzen dio Udal Batzari:

Por ello, el alcalde, propone al Ayuntamiento Pleno la adopción del siguiente:

ERABAKIA

ACUERDO

1.- Onartzea Igeldo Toki Erakunde Txikia eratzeko Udalaren ekimena, Gipuzkoako Udal Barrutiak arautzen dituen 2003ko martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauko 26.b) artikuluarekin

1.- Aprobar la iniciativa por parte de Ayuntamiento para la constitución de la Entidad Local Menor de Igeldo, acorde al artículo 26.b) de la Norma Foral 2/2003 de 17 de marzo, reguladora de las

bat datorrena.

2.- Onartzea batzorde berezi bat eratzea. Aholku-emailea izango da batzorde hori, eta Igeldoko Toki Erakunde Txikia eratzeko lantaldea izango da haren izena. Batzordean ordezkaturik egongo dira Udaleko talde politiko guztiak (alderdi politiko bakoitzeko bat), Igeldoko herritarrak ordezkatuko dituzten kide kopuru bera, eta alkatea, batzordearen presidente gisa.

Batzordeak Igeldoko toki erakunde txikia sortzeko lantaldea zehazteko prozesuaren memorian jasotako irizpideen arabera funtzionatuko du, eta organo berean osatu edo garatu ahal izango dira aipaturiko irizpide horiek.

Demarcaciones Municipales de Gipuzkoa.

2.- Aprobar la constitución de una Comisión especial, de carácter consultivo, con denominación de grupo de trabajo para la constitución de la Entidad Local Menor de Igeldo donde estén representados todos los grupos políticos del Ayuntamiento (uno por cada partido político), mismo número de miembros que representen a las y los vecinos de Igeldo y una presidencia que la ostentará el alcalde.

El funcionamiento de la Comisión se regirá por los criterios contenidos en la Memoria del proceso de definición del grupo de trabajo para la creación de la Entidad Local Menor de Igeldo, pudiendo los mismos ser completados o desarrollados en el seno del mismo órgano.

Donostia, 2021eko maiatzaren 3a

Eneko Goia Laso

ALKATEA"

Eztabaida hasita, Alkate-Udalburuak, Marta Huarte Paño andreak, Mikel Lezama Zubeldia jaunak, Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak eta Jon Markel Ormazabal Gaztañaga jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as Alcalde-Presidente, D.ª Marta Huarte Paño, D. Mikel Lezama Zubeldia, D.ª Duñike Agirrezabalaga Ugarte y D. Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**
**QUORUM INDARTUA.**
**ABSTENTZIOAK: 1 EH BILDU, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**
**QUORUM REFORZADO.**
**ABSTENCIONES: 1 EH BILDU, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

---------------

**IRADOKIZUN ETA ERREKLAMAZIO BATZORDE BEREZIA**

**11. Berri ematea 2020ko Txostena, urte horretako kontsultak, iradokizun/oharrak, kexak eta esker onak jasotzen dituena.**

"UDALBATZARI

Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Bereziaren urteko txostenaren berri ematea.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 132. artikuluak nahiz Udalbatzaren Organo Araudiko 141. eta 142. artikuluek agintzen duten bezala, honekin batera doa Iradokizun eta Erreklamazio Batzordearen txostena, 2020koa, Udalbatzari aurkeztu eta haren jakinaren gainean jartzeko.

**COMISIÓN ESPECIAL DE SUGERENCIAS Y RECLAMACIONES**

**11. Dar cuenta del Informe de las Consultas, sugerencias/avisos, quejas y agradecimientos recibidos durante el 2020.**

"AL AYUNTAMIENTO PLENO

Dando cuenta del Informe Anual de la Comisión de Sugerencias y Reclamaciones.

En cumplimiento de lo previsto en el artículo 132 de la Ley 7/1985, reguladora de las Bases de Régimen Local y en los artículos 141 y 142 del Reglamento Orgánico de Pleno, adjunto remito el Informe de la Comisión de Sugerencias y Reclamaciones correspondiente al año 2020, para su elevación al Pleno de la Corporación, a fin de dar cuenta del mismo.

Donostian, 2021eko maitzaren 11n.

BATZORDEBURUA /
LA PRESIDENTA

María Soledad Garmendia Beloqui"

Eztabaida hasita, Marisol Garmendia Beloqui andreak, Marta Huarte Paño andreak, Mikel Lezama Zubeldia jaunak eta Juan Ramón Viles Mitxelena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Marisol Garmendia Beloqui, D.ª Marta Huarte Paño, D. Mikel Lezama Zubeldia y D. Juan Ramón Viles Mitxelena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:
JAKINEAN.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
ENTERADO.**

---------------

II

INFORMAZIO, SUSTAPEN ETA KONTROLA

II.1

MOZIO ARRUNTAK

**12. Mozio arrunta, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Uliako hobi komuna berreskuratzeko egindako urratsei buruzkoa.**

“Elkarrekin Donostia Udal Taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallastegi naizen honek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluaren babesean, MOZIO ARRUNT hau aurkeztu du OSOKO BILKURAN EZTABAIDATZEKO, Uliako hobi komuna berreskuratzeko emandako urratsei buruz.

JUSTIFIKAZIOA

2014ko uztailean, Pablo de Greiff egiaren sustapenari, justiziari, konponketari eta ez-errepikatzearen bermeei buruzko Nazio Batuen errelatore bereziak txosten bat egin zuen, honako hau dioelarik: batetik, Espainiako Gerra Zibilak eta haren ondorengo berrogei urteko diktadurak giza eskubideen eta zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien biktima ugari utzi zituztela, besteak beste, exekuzioak, tortura, atxiloketa arbitrarioak, desagertzeak, presoen nahitaezko lana eta erbesteratzea gertatu zirelarik. Bestetik, hartutako neurriei dagokienez, proposatu du neurri horiek ez diotela erantzun egiaren, justiziaren,

II

INFORMACIÓN, IMPULSO Y CONTROL

II.1

MOCIONES ORDINARIAS

**12. Moción ordinaria, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa a los pasos dados para la recuperación de la fosa común de Ulia.**

“Haizea Garay Gallastegui, concejala del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN ORDINARIA PARA SU DEBATE EN PLENO relativa a los pasos dados en la recuperación de la fosa común de Ulia.

JUSTIFICACIÓN

En julio de 2014 el relator Especial de Naciones Unidas sobre la promoción de la verdad, la justicia, la reparación y las garantías de no repetición, Pablo de Greiff, realizó un informe en el que reconoce: por un lado, que la Guerra Civil española y los cuarenta años de dictadura que le siguieron dejaron un saldo colosal de víctimas de violaciones graves de los derechos humanos y del derecho humanitario, incluyendo ejecuciones, tortura, detenciones arbitrarias, desapariciones, trabajo forzoso de presos, o exilio, entre otros. Por otro lado, en relación a las medidas adoptadas, plantea que éstas no han respondido a una política de Estado consistente, incluyente y global en favor de la verdad, la

konponketaren eta ez errepikatzeko bermeen aldeko estatu politika sendo, barneratzaile eta global bati, eta agerian geratu dira egiaren eta justiziaren arloko hutsune handi-handiak.

Gaur egun, oroimen historikoaren lege ez-nahiko baten 15 urteren ondoren, izapidetze fasean dago memoria demokratikoari buruzko beste lege bat, zeinak behin betiko balioko baitu oroimena berreskuratzeko behar diren bermeak emateko, horren gaineko lana, erakundeen utzikeria gorabehera, ahaleginean amore eman ez duten senideena eta oroimen elkarteena izan delarik.

Oroimen Demokratikoaren lege aurreproiektuak zioen azalpenean jasotzen duenez, toki erakunde gehienek aztarnak ezabatzeko eta desagertuak berreskuratzeko eta identifikatzeko planak egin dituzte edo gauzatzen ari dira.

Ildo horretatik, eta Donostian egindako urratsen berrikusketa eginda, hobien kokapena ikertzeko, Gerra Zibilean desagertutako pertsonak bilatu eta identifikatzeko 2015-2020 aldirako EAEko Planaren arabera, Donostian hobi bat dagoela ikusiko dugu, Ulian, eta hartan esku hartzea aurreikusita zegoen. Hala, Aranzadik 2003an lehen txosten bat egin zuen, eta hobien Planak esku hartze ertaineko lehentasuna ezartzen zuen.

2015-2020 aldia igarota, lekuan bertan egindako esku hartzeari buruzko berririk izan gabe, beharrezkotzat jotzen dugu Eusko Jaurlaritzak, Gogora Memoriaren Institutuaren bidez, plana betetzea eta Uliako hobia berreskuratzeko urratsak egitea.

Halaber, uste dugu ezinbestekoa dela oroimena berreskuratzeko bidean aurrera egitea, egia onartuta, eta, horretarako,

justicia, la reparación y las garantías de no repetición, evidenciándose los mayores vacíos en materia de verdad y justicia.

Hoy, tras casi 15 años de una ley de memoria histórica claramente insuficiente, está en fase de tramitación una nueva ley de memoria democrática que definitivamente pueda servir para dar las garantías necesarias para la recuperación de la memoria cuyo trabajo ha recaído sobre familiares y asociaciones memorialistas que no han cejado en el empeño a pesar del abandono institucional.

El anteproyecto de ley de Memoria Democrática recoge en su exposición de motivos que la inmensa mayoría de entidades locales han llevado o están llevando a cabo sus planes de eliminación de vestigios y de recuperación e identificación de desaparecidos.

En este sentido, y haciendo una revisión de los pasos dados en la ciudad, observamos cómo en Donostia, según el plan Vasco 2015-2020 de investigación y localización de fosas para la búsqueda e identificación de personas desaparecidas durante la Guerra Civil, hay una fosa en Ulia sobre la que estaba previsto intervenir. Así, hay un informe informe preliminar de Aranzadi de 2003 y el plan de fosas determinaba una prioridad de intervención media.

Trascurrido el periodo 2015-2020 sin noticias relativas a ninguna intervención en el lugar, consideramos necesario que el Gobierno Vasco, a través del Instituto de la Memoria, Gogora, dé cumplimiento al plan y dé los pasos para recuperar la fosa de Ulia.

Asimismo consideramos imprescindible avanzar en la recuperación de la memoria a través del reconocimiento de la verdad y para ello creemos

garrantzitsua iruditzen zaigu behar fitrm tresna arauemaileak garatzea, Euskadik oroimen lekuen deklarazioa arautzeko memoria lege bat lehenbailehen izan dezan, eta espazio horiek oroimenerako gune edo leku gisa onartzen dituzten seinaleak ugaritzeaz Batera. Seinale horiekin batera, eta berriz ez errepikatzeko bermeak izateko, behar diren material pedagogikoak garatu beharko dira, toki horiek ezagutu eta aitortzeko.

Hori horrela, hauxe da gure

MOZIOA ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari hertsatuki eskatzen dio 2015-2020ko hobi Plana betetzeko eta Uliako hobi komuna ikertu eta berreskuratzeko, Gerra Zibilean Donostian desagertutako pertsonak bilatzeko.

2. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari hertsatuki eskatzen dio Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoari buruzko etorkizuneko legean Memoriaren Lekuak garatzea eta horien zabalkundea berma ditzala, Udalak proiektu pedagogiko bat garatu ahal izan dezan Donostiako Memoriaren Lekuen inguruan.

3. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari hertsatuki eskatzen dio udalentzako dirulaguntzak garatzeko, Donostiako Udalak Donostiako oroimen guneetako seinaleak hobetu eta handitzeko aukera izan dezan.

Donostian, 2021eko maiatzaren 7an

importante que se desarrollen los instrumentos normativos necesarios para que Euskadi cuente cuanto antes una ley de Memoria que regule la declaración de lugares de memoria, incrementando las señalizaciones que reconozcan los citados espacios como espacios o lugares de memoria. Junto con la citada señalización, y al objeto de obtener las garantías de no repetición, se deberá desarrollar conjuntamente los materiales pedagógicos necesarios que acompañen al conocimiento y reconocimiento de esos lugares.

Por este motivo, presentamos la siguiente:

MOCIÓN ORDINARIA

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al Gobierno Vasco a cumplir con el plan de fosas 2015-2020 y proceder a investigar y recuperar la fosa común de Ulia con el objetivo de buscar personas desaparecidas durante la Guerra Civil en Donostia.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al Gobierno Vasco a que en la futura ley de Memoria Histórica y Democrática de Euskadi se garantice el desarrollo de los Lugares de la Memoria así como su divulgación para que este ayuntamiento pueda desarrollar un proyecto pedagógico en relación a los Lugares de la Memoria de la ciudad.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al Gobierno Vasco a desarrollar una línea de subvenciones para los ayuntamientos con el fin de permitir que el ayuntamiento de Donostia pueda mejorar e incrementar las señalizaciones de espacios de la memoria de la ciudad.

Donostia, a 7 de mayo de 2021

Haizea Garay Gallastegui,
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia".

Haizea Garay Gallastegui
Concejala de Elkarrekin Donostia".

Eztabaida hasita, Haizea Garay Gallastegui andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak, Jon Markel Ormazabal Gaztañaga jaunak, Ane Oyarbide Ochoa andreak eta Juan Ramon Viles Mitxelena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Haizea Garay Gallastegui, D. Jorge Mota Iglesias, D. Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, D.ª Ane Oyarbide Ochoa y D. Juan Ramón Viles Michelena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**EAJ/PNV ETA PSE-EE TALDEEK 12. GAIARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA AL ASUNTO N.º 12 PRESENTADA POR LOS GRUPOS EAJ/PNV Y PSE-EE:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 17 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.**

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**12. MOZIO ARRUNTAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN ORDINARIA N.º 12:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 0**

**ABSTENTZIOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**ABSTENCIONES: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**12. MOZIO ARRUNTAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN ORDINARIA N.º 12:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.**
**ABSTENTZIOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.**
**ABSTENCIONES: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**12. MOZIO ARRUNTAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN ORDINARIA N.º 12:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.**
**ABSTENTZIOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.**
**ABSTENCIONES: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**HARTUTAKO ERABAKIAREN BEHIN BETIKO TESTUAREN EGIAZTAGIRIA:**

Donostiako Udalak, bi mila eta hogeita bateko maiatzaren hogeita zazpian egindako ohiko osoko bilkuran, Elkarrekin Donostia taldeak Uliako hobi komuna berreskuratzeko emandako pausuei buruz aurkeztutako mozio arrunta onetsi zen. Hari EAJ/PNV eta PSE-EE taldeek batera

**CERTIFICADO DEL TEXTO DEFINITIVO DEL ACUERDO ADOPTADO:**

Que el Excelentísimo Ayuntamiento Pleno en Sesión Ordinaria celebrada el día veintisiete de mayo de dos mil veintiuno, aprobó la siguiente Moción Ordinaria, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa a los pasos dados para la recuperación de la fosa común

aurkeztutako zuzenketa bat erantsi zitzaion, hain zuzen ere, ebazpen zatiko 1., 2. eta 3. puntuak aldatzen zituena. Horrenbestez, hau da behin betiko onetsitako testua:

*“2014ko uztailean, Pablo de Greiff egiaren sustapenari, justiziari, konponketari eta ez-errepikatzearen bermeei buruzko Nazio Batuen errelatore bereziak txosten bat egin zuen, honako hau dioelarik: batetik, Espainiako Gerra Zibilak eta haren ondorengo berrogei urteko diktadurak giza eskubideen eta zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien biktima ugari utzi zituztela, besteak beste, exekuzioak, tortura, atxiloketa arbitrarioak, desagertzeak, presoen nahitaezko lana eta erbesteratzea gertatu zirelarik. Bestetik, hartutako neurriei dagokienez, proposatu du neurri horiek ez diotela erantzun egiaren, justiziaren, konponketaren eta ez errepikatzeko bermeen aldeko estatu politika sendo, barneratzaile eta global bati, eta agerian geratu dira egiaren eta justiziaren arloko hutsune handi-handiak.*

*Gaur egun, oroimen historikoaren lege ez-nahiko baten 15 urteren ondoren, izapidetze fasean dago memoria demokratikoari buruzko beste lege bat, zeinak behin betiko balioko baitu oroimena berreskuratzeko behar diren bermeak emateko, horren gaineko lana, erakundeen utzikeria gorabehera, ahaleginean amore eman ez duten senideena eta oroimen elkarteena izan delarik.*

*Oroimen Demokratikoaren lege aurreproiektuak zioen azalpenean jasotzen duenez, toki erakunde gehienek aztarnak ezabatzeko eta desagertuak berreskuratzeko eta identifikatzeko planak egin dituzte edo gauzatzen ari dira.*

*Ildo horretatik, eta Donostian egindako urratsen berrikusketa eginda, hobien kokapena ikertzeko, Gerra Zibilean desagertutako pertsonak bilatu eta identifikatzeko 2015-2020 aldirako EAEko Planaren arabera, Donostian hobi bat dagoela ikusiko dugu, Ulian, eta hartan esku hartzea*

de Ulía, que incorpora una enmienda conjunta aprobada, presentada por los Grupos EAJ/PNV y PSE-EE, de sustitución de los puntos nº1, nº2 y nº3 de la parte resolutiva, siendo el texto definitivamente aprobado el siguiente:

*“En julio de 2014 el relator Especial de Naciones Unidas sobre la promoción de la verdad, la justicia, la reparación y las garantías de no repetición, Pablo de Greiff, realizó un informe en el que reconoce: por un lado, que la Guerra Civil española y los cuarenta años de dictadura que le siguieron dejaron un saldo colosal de víctimas de violaciones graves de los derechos humanos y del derecho humanitario, incluyendo ejecuciones, tortura, detenciones arbitrarias, desapariciones, trabajo forzoso de presos, o exilio, entre otros. Por otro lado, en relación a las medidas adoptadas, plantea que éstas no han respondido a una política de Estado consistente, incluyente y global en favor de la verdad, la justicia, la reparación y las garantías de no repetición, evidenciándose los mayores vacíos en materia de verdad y justicia.*

*Hoy, tras casi 15 años de una ley de memoria histórica claramente insuficiente, está en fase de tramitación una nueva ley de memoria democrática que definitivamente pueda servir para dar las garantías necesarias para la recuperación de la memoria cuyo trabajo ha recaído sobre familiares y asociaciones memorialistas que no han cejado en el empeño a pesar del abandono institucional.*

*El anteproyecto de ley de Memoria Democrática recoge en su exposición de motivos que la inmensa mayoría de entidades locales han llevado o están llevando a cabo sus planes de eliminación de vestigios y de recuperación e identificación de desaparecidos.*

*En este sentido, y haciendo una revisión de los pasos dados en la ciudad, observamos cómo en Donostia, según el plan Vasco 2015-2020 de investigación y localización de fosas para la búsqueda e identificación de personas desaparecidas durante la Guerra Civil, hay una*

*aurreikusita zegoen. Hala, Aranzadik 2003an lehen txosten bat egin zuen, eta hobien Planak esku hartze ertaineko lehentasuna ezartzen zuen.*

*fosa en Ulia sobre la que estaba previsto intervenir. Así, hay un informe informe preliminar de Aranzadi de 2003 y el plan de fosas determinaba una prioridad de intervención media.*

*2015-2020 aldia igarota, lekuan bertan egindako esku hartzeari buruzko berririk izan gabe, beharrezkotzat jotzen dugu Eusko Jaurlaritzak, Gogora Memoriaren Institutuaren bidez, plana betetzea eta Uliako hobia berreskuratzeko urratsak egitea.*

*Trascurrido el periodo 2015-2020 sin noticias relativas a ninguna intervención en el lugar, consideramos necesario que el Gobierno Vasco, a través del Instituto de la Memoria, Gogora, dé cumplimiento al plan y dé los pasos para recuperar la fosa de Ulia.*

*Halaber, uste dugu ezinbestekoa dela oroimena berreskuratzeko bidean aurrera egitea, egia onartuta, eta, horretarako, garrantzitsua iruditzen zaigu behar fitrm tresna arauemaileak garatzea, Euskadik oroimen lekuen deklarazioa arautzeko memoria lege bat lehenbailehen izan dezan, eta espazio horiek oroimenerako gune edo leku gisa onartzen dituzten seinaleak ugaritzeaz Batera. Seinale horiekin batera, eta berriz ez errepikatzeko bermeak izateko, behar diren material pedagogikoak garatu beharko dira, toki horiek ezagutu eta aitortzeko.*

*Asimismo consideramos imprescindible avanzar en la recuperación de la memoria a través del reconocimiento de la verdad y para ello creemos importante que se desarrollen los instrumentos normativos necesarios para que Euskadi cuente cuanto antes una ley de Memoria que regule la declaración de lugares de memoria, incrementando las señalizaciones que reconozcan los citados espacios como espacios o lugares de memoria. Junto con la citada señalización, y al objeto de obtener las garantías de no repetición, se deberá desarrollar conjuntamente los materiales pedagógicos necesarios que acompañen al conocimiento y reconocimiento de esos lugares.*

*Hori horrela, hauxe da gure*

*Por este motivo, presentamos la siguiente:*

*MOZIOA ARRUNTA*

*MOCIÓN ORDINARIA*

*1.- Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari hertsatuki eskatzen dio bidal dezala 2015-2020ko Hobi Plana balantzearen dokumentua, 2021eko otsailaren 26an aurkeztua, eta azter dezala Uliako hobiaren inguruan prospekzio berriak egiteko aukera.*

*1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Vasco a remitir el documento del balance del Plan de Fosas 2015-2020, presentado el pasado 26 de febrero de 2021, y a analizar la posibilidad de realizar nuevas prospecciones en relación a la Fosa de Ulía.*

*2.- Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari hertsatuki eskatzen dio, Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoaren etorkizuneko legearen proiektuan jasota dagoenez, Memoriaren Lekuak garatzea eta horien zabalkundea berma ditzala, Udalak proiektu pedagogiko bat garatu ahal izan dezan Donostiako Memoriaren Lekuen inguruan.*

*2.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Vasco a que como consta en el proyecto de la futura ley de Memoria Histórica y Democrática de Euskadi se garantice el desarrollo de los Lugares de la Memoria así como su divulgación para que este ayuntamiento pueda desarrollar un proyecto pedagógico en relación a los Lugares de la Memoria de la ciudad.*

*3.- Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari hertsatuki eskatzen dio udalentzako dirulaguntzak garatzen segitzeko, Donostiako Udalak Donostiako oroimen guneetako seinaleak hobetu eta handitzeko aukera izan dezan".*
=====================================

*3.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Vasco a seguir desarrollando una línea de subvenciones para los ayuntamientos con el fin de permitir que el Ayuntamiento de San Sebastián pueda mejorar e incrementar las señalizaciones de espacios de la memoria de la ciudad".*
===================================

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Egiaztagiri hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hogeita bateko ekainaren batean.

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación, visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a uno de junio de dos mil veintiuno.

ALKATEAK O. E. /
V. º B. º DEL ALCALDE,

Eneko Goia Laso"

---------------

**13. Mozio arrunta, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, tokiko kultura-sektoreari laguntzeko ildoei buruzkoa.**

"Elkarrekin Donostia udal talde politikoaren bozeramaile Aitzole Araneta naizen honek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluarekin bat, DONOSTIAKO KULTURGINTZA SEKTOREARENTZAKO laguntzei buruzko honako KONTROL MOZIO hau aurkezten dut, OSOKO BILKURAN EZTABAIDATZEKO.

JUSTIFIKAZIOA

Apirilaren amaieran jakin genuen Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroan dagoen ArteUparte proiektuak ateak ixten zituela. Arduradunak elkarrizketa batean zioenez: Donostiako kultur gune horrek

**13. Moción ordinaria, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre líneas de apoyo al sector cultural local.**

"Aitzole Araneta, Portavoz del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN PARA SU DEBATE EN EL PLENO, sobre LÍNEAS DE APOYO AL SECTOR CULTURAL LOCAL.

JUSTIFICACIÓN

A finales de abril tuvimos noticia por los medios de que el proyecto ArteUparte, sito en el Centro Internacional de Cultura Contemporánea Tabakalera, cerraba sus puertas. Su responsable afirmaba en entrevista: El centro cultural

erabaki du alokairu kontratua hutsaltzea bere espazio zaharrenetako bati. Abuztutik aurrera, Arteuparteak ez du jarraituko Egian. Joan den urrian, Arteupartek bosgarren urteurrena ospatu zuen. Urte erdi geroago, Tabakalerak, bere aldetik, Egiako kultur etxeko beheko solairuko arte eta ehun eremuarekin duen kontratu harremana amaitutzat ematea erabaki du. Abuztutik aurrera, Arteuparte ekimenak Donostiako beste leku batean hartu beharko du egoitza.

Tabakalerako iturriek ziurtatzen dute alokairu kontratua hainbat hilabete lehenago desegin dela —“legeak ezarritakoa baino epe luzeagoan”—, eta aldaketa estrategiko batek eragin duela, beste kultur ekimen batzuen artean, garai batean mikroantzoki bat edo Tobacco Days liburutegia hartu zuten lokaletan. Proiektuaren arduradunetako batek galdera hau egin dio bere buruari: “Eta zein izango dira erabilera horiek? Galdetu diegu, eta ez digute erantzun. Ez dute gurekin elkartu nahi izan, egoera aztertu ahal izateko. Adeitasun erakutsia izango zen, hasieratik egon baikara hemen. Ez dira oso dotoreak izan. Sasiko aitzakiatzat jotzen dut, Tabakaleran espazio asko hutsik daudelako. Bada, bai, bota egiten gaituzte”.

Arteuparteren ordezkariaren arabera, “hilabeteak” zeramatzaten Tabakalerako arduradunekin hitz egiten saiatzen. “Hau oso hilda dago eta hemengo negozioek alde egin behar izan dute, zoritxarrez”, gogorarazi du. Haren buruan, aldameneko lokala “alokatzeko aukera” aurkezteko ideia zegoen, eta, hartara, erakusketetarako espazioa zabaltzeko, batez ere hiri arteari eta ilustrazioari emanda, eta artista alternatiboei ongi etorri eginda. “Oso arraroa da”, dio Paulek. “Gauza arraro samarra izan da, proiektu batzuetan bat egin baitugu. Tabakaleraren 5. urteurreneko horma irudiko

donostiarra ha decidido rescindir el contrato de alquiler a uno de sus espacios más veteranos. A partir de agosto Arteuparte no seguirá en Egia. El pasado mes de octubre, Arteuparte celebraba su quinto aniversario. Medio año después, Tabakalera, de manera unilateral, ha decidido dar por terminada su relación contractual con el espacio artístico-textil de la planta baja del centro cultural de Egia. A partir del mes de agosto Arteuparte tendrá que realojarse en otro lugar de Donostia.

Fuentes de Tabakalera aseguran que la rescisión del contrato de alquiler se ha efectuado con varios meses de antelación -“superior a la estipulada por la ley”- y que viene motivada por un giro estratégico en los locales que en su día acogieron un microteatro o la librería Tobacco Days, entre otras apuestas culturales. Uno de los responsables del proyecto se pregunta: “¿Y cuáles serán esos usos? Se lo hemos preguntado y no nos han respondido. Tampoco han querido reunirse con nosotros para poder analizar la situación. Hubiera sido un detalle porque llevamos aquí desde el principio. Han sido muy poco elegantes. Me suena a milonga porque hay muchos espacios en Tabakalera que están vacíos. Pues sí, nos echan”.

Según la cabeza visible de Arteuparte, llevaban “meses” tratando de hablar con los responsables de Tabakalera. “Esto está muy muerto y los negocios que estaban aquí se han tenido que marchar, desgraciadamente”, recuerda. En su mente estaba la idea de explorar “la opción de alquilar” el local de al lado y ampliar así el espacio asignado a las exposiciones, muy enfocadas al arte urbano, la ilustración y dando cabida a artistas alternativos. “Es muy raro”, reflexiona Paul. “Ha sido una cosa un poco extraña, porque hemos confluido en algunos proyectos. Nos contrataron para el comisariado del mural del 5º aniversario de Tabakalera, hace

komisariotza egiteko kontratatu gintuzten, duela gutxi kontzertu batean parte hartu genuen... Hurbilketa bat zegoela ikusi genuen. Baina argi dago gu auzoan gaudela eta haiek hor goian daudela", esan du goiko solairuetan dauden kulturguneko bulegoei buruz.

Nolanahi ere, Arteuparteren etorkizuna ez dago zalantzan, eta beste lokal bat bilatzeari ekin diote.

Bereziki deigarria da Tabakalerak, nazioarteko arte eta kultura garaikidearen erreferentzia eta Donostian funtsezko garrantzia duen gune horrek, erakunde arduradun dituelarik, Donostiako Udalaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza, uste izatea ArteUparteren moduko proiektu bat —gainera, auzoko kontsumoa sustatzen ari zen—, merkataritza txikia eta hurbileko artea eta kultura ezin direla egon Tabakaleran, gainera, ez dute azaldu erabaki hori harrarazi dieten irizpideak. Ekimen hau sinatzen duen udal taldea Tabakalerako administrazio kontseilutik kanpo dago, eta erantzunik eza aurkitzen du.

Batez ere pandemia garai honetan, inork ez bezala COVIDaren kolpeak jasan dituen kultura-sektore bat izanik. Kalera atera eta azken urte honetan gehiegitan kulturako eta sektoreko langile asko egoera jasanezinean daudela salatu duen sektore bat.

Hori dela eta, hauxe da gure

MOZIOA ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari hertsatuki eskatzen die ebaluatu dezatela ea egokia den ArteUparte proiektuak Tabakalera Arte

poco colaboramos en un concierto… Veíamos que había un acercamiento. Pero está claro que nosotros estamos en el barrio y ellos están ahí arriba", comenta en referencia a las oficinas del centro que se encuentran ubicadas en las plantas superiores.

El futuro de Arteuparte, en todo caso, no está en entredicho y ya se han puesto manos a la obra en busca de un nuevo local.

Resulta especialmente llamativo que Tabakalera, referencia del arte y la cultura contemporánea internacional y de fundamental relevancia en Donostia, cuyos responsables institucionales son, aparte del Ayuntamiento de Donostia, la Diputación de Gipuzkoa y el Gobierno Vasco, considere que un proyecto como ArteUparte, que además estaba fomentando el consumo de barrio, el pequelo comercio y el arte y la cultura de proximidad no tiene cabida en Tabakalera, sin además explicitar cuales son los criterios que han llevado a esa decisión. El grupo municipal que suscribe esta iniciativa está fuera del consejo de administración de tabakalera, y encuentra la falta de respuestas.

Máxime en este tiempo de pandemia, con un sector cultural que ha sufrido como nadie los golpes del covid. Un sector que ha salido a las calles y ha denunciado en este último año en demasiadas ocasiones que muchísimos trabajadores de la cultura y el sector como tal se encuentran en una situación insostenible.

Por eso presentamos la siguiente:

MOCIÓN ORDINARIA

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al Gobierno Vasco a evaluar la pertinencia de que el proyecto ArteUparte siga

Garaikidearen Nazioarteko Zentroan jarraitzea eta alokatzen dituzten lokalen jarduera arautzen duten irizpideak aditzera ematea.

2. Donostiako Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari hertsatuki eskatzen die Donostian tokiko eta auzoko sortzaileek bultzatutako proiektu artistiko eta kultural berritzaileetarako laguntzak eta lankidetza areagotzeko.

Donostian, 2021eko maiatzaren 7an

Aitzole Araneta Zinkunegi,
Elkarrekin Donostiaren bozeramailea."

en el Centro Internacional de Arte Contemporáneo Tabakalera y a hacer públicos los criterios que rigen la actividad de los locales que alquilan.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al Gobierno Vasco a crear más líneas de ayuda y colaboración a proyectos artísticos y culturales innovadores e impulsados por creadores locales y de barrio en Donostia.

Donostia, a 7 de Mayo de 2021

Aitzole Araneta Zinkunegi,
Portavoz de Elkarrekin Donostia".

Eztabaida hasita, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Borja Corominas Fisas jaunak, Marisol Garmendia Beloqui andreak, Zigor Etxeburua Urbizu jaunak eta Jon Insausti Maisterrena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Borja Corominas Fisas, D.ª Marisol Garmendia Beloqui, D. Zigor Etxeburua Urbizu y D. Jon Insausti Maisterrena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**13. MOZIO ARRUNTAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN ORDINARIA N.º 13:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0**

**13. MOZIO ARRUNTAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN ORDINARIA N.º 13:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**HARTUTAKO ERABAKIAREN BEHIN BETIKO TESTUAREN EGIAZTAGIRIA:**

**CERTIFICADO DEL TEXTO DEFINITIVO DEL ACUERDO ADOPTADO:**

Udalbatzak, bi mila eta hogeita bateko maiatzaren hogeita zazpian izan zuen osoko bilera ohikoan, Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztutako mozio arrunt hau onartu zuela, aho batez onartu ere, tokiko kultura-sektorearentzako laguntzen gaineko mozioa. Hauxe da behin betiko onartutako testua:

Que el Excelentísimo Ayuntamiento Pleno en Sesión Ordinaria celebrada el día veintisiete de mayo de dos mil veintiuno, aprobó, por unanimidad, la siguiente Moción Ordinaria, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre líneas de apoyo al sector cultural local, siendo el texto definitivamente aprobado el siguiente:

*“Apirilaren amaieran jakin genuen Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroan dagoen ArteUparte proiektuak ateak ixten zituela. Arduradunak elkarrizketa batean zioenez: Donostiako kultur gune horrek erabaki du alokairu kontratua hutsaltzea bere espazio zaharrenetako bati. Abuztutik aurrera, Arteuparteak ez du jarraituko Egian[1]. Joan den urrian, Arteupartek bosgarren urteurrena ospatu zuen. Urte erdi geroago, Tabakalerak, bere aldetik, Egiako kultur etxeko beheko solairuko arte eta ehun eremuarekin duen kontratu harremana amaitutzat ematea erabaki du. Abuztutik aurrera, Arteuparte ekimenak Donostiako beste leku batean hartu beharko du egoitza.*

*“A finales de abril tuvimos noticia por los medios de que el proyecto ArteUparte, sito en el Centro Internacional de Cultura Contemporánea Tabakalera, cerraba sus puertas. Su responsable afirmaba en entrevista: El centro cultural donostiarra ha decidido rescindir el contrato de alquiler a uno de sus espacios más veteranos. A partir de agosto Arteuparte no seguirá en Egia[1]. El pasado mes de octubre, Arteuparte celebraba su quinto aniversario. Medio año después, Tabakalera, de manera unilateral, ha decidido dar por terminada su relación contractual con el espacio artístico-textil de la planta baja del centro cultural de Egia. A partir del mes de agosto Arteuparte tendrá que realojarse en otro lugar de Donostia.*

*Tabakalerako iturriek ziurtatzen dute alokairu*

*Fuentes de Tabakalera aseguran que la*

*kontratua hainbat hilabete lehenago desegin dela —“legeak ezarritakoa baino epe luzeagoan”—, eta aldaketa estrategiko batek eragin duela, beste kultur ekimen batzuen artean, garai batean mikroantzoki bat edo Tobacco Days liburutegia hartu zuten lokaletan. Proiektuaren arduradunetako batek galdera hau egin dio bere buruari: “Eta zein izango dira erabilera horiek? Galdetu diegu, eta ez digute erantzun. Ez dute gurekin elkartu nahi izan, egoera aztertu ahal izateko. Adeitasun erakutsia izango zen, hasieratik egon baikara hemen. Ez dira oso dotoreak izan. Sasiko aitzakiatzat jotzen dut, Tabakaleran espazio asko hutsik daudelako. Bada, bai, bota egiten gaituzte”.*

*rescisión del contrato de alquiler se ha efectuado con varios meses de antelación -“superior a la estipulada por la ley”- y que viene motivada por un giro estratégico en los locales que en su día acogieron un microteatro o la librería Tobacco Days, entre otras apuestas culturales. Uno de los responsables del proyecto se pregunta: “¿Y cuáles serán esos usos? Se lo hemos preguntado y no nos han respondido. Tampoco han querido reunirse con nosotros para poder analizar la situación. Hubiera sido un detalle porque llevamos aquí desde el principio. Han sido muy poco elegantes. Me suena a milonga porque hay muchos espacios en Tabakalera que están vacíos. Pues sí, nos echan”.*

*Arteuparteren ordezkariaren arabera, “hilabeteak” zeramatzaten Tabakalerako arduradunekin hitz egiten saiatzen. “Hau oso hilda dago eta hemengo negozioek alde egin behar izan dute, zoritxarrez”, gogorarazi du. Haren buruan, aldameneko lokala “alokatzeko aukera” aurkezteko ideia zegoen, eta, hartara, erakusketetarako espazioa zabaltzeko, batez ere hiri arteari eta ilustrazioari emanda, eta artista alternatiboei ongi etorri eginda. “Oso arraroa da”, dio Paulek. “Gauza arraro samarra izan da, proiektu batzuetan bat egin baitugu. Tabakaleraren 5. urteurreneko horma irudiko komisariotza egiteko kontratatu gintuzten, duela gutxi kontzertu batean parte hartu genuen... Hurbilketa bat zegoela ikusi genuen. Baina argi dago gu auzoan gaudela eta haiek hor goian daudela”, esan du goiko solairuetan dauden kulturguneko bulegoei buruz.*

*Según la cabeza visible de Arteuparte, llevaban “meses” tratando de hablar con los responsables de Tabakalera. “Esto está muy muerto y los negocios que estaban aquí se han tenido que marchar, desgraciadamente”, recuerda. En su mente estaba la idea de explorar “la opción de alquilar” el local de al lado y ampliar así el espacio asignado a las exposiciones, muy enfocadas al arte urbano, la ilustración y dando cabida a artistas alternativos. “Es muy raro”, reflexiona Paul. “Ha sido una cosa un poco extraña, porque hemos confluido en algunos proyectos. Nos contrataron para el comisariado del mural del 5º aniversario de Tabakalera, hace poco colaboramos en un concierto… Veíamos que había un acercamiento. Pero está claro que nosotros estamos en el barrio y ellos están ahí arriba”, comenta en referencia a las oficinas del centro que se encuentran ubicadas en las plantas superiores.*

*Nolanahi ere, Arteuparteren etorkizuna ez dago zalantzan, eta beste lokal bat bilatzeari ekin diote.*

*El futuro de Arteuparte, en todo caso, no está en entredicho y ya se han puesto manos a la obra en busca de un nuevo local.*

*Bereziki deigarria da Tabakalerak, nazioarteko arte eta kultura garaikidearen erreferentzia eta Donostian funtsezko garrantzia duen gune horrek, erakunde arduradun dituelarik, Donostiako Udalaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza, uste izatea ArteUparteren moduko proiektu bat —gainera, auzoko kontsumoa sustatzen ari zen—, merkataritza txikia eta hurbileko artea eta kultura ezin direla egon Tabakaleran, gainera, ez dute azaldu erabaki hori harrarazi dieten irizpideak. Ekimen hau sinatzen duen udal taldea Tabakalerako administrazio kontseilutik kanpo dago, eta erantzunik eza aurkitzen du.*

*Resulta especialmente llamativo que Tabakalera, referencia del arte y la cultura contemporánea internacional y de fundamental relevancia en Donostia, cuyos responsables institucionales son, aparte del Ayuntamiento de Donostia, la Diputación de Gipuzkoa y el Gobierno Vasco, considere que un proyecto como ArteUparte, que además estaba fomentando el consumo de barrio, el pequelo comercio y el arte y la cultura de proximidad no tiene cabida en Tabakalera, sin además explicitar cuales son los criterios que han llevado a esa decisión. El grupo municipal que suscribe esta iniciativa está fuera del consejo de administración de tabakalera, y encuentra la falta de respuestas.*

*Batez ere pandemia garai honetan, inork ez bezala COVIDaren kolpeak jasan dituen kultura-sektore bat izanik. Kalera atera eta azken urte honetan gehiegitan kulturako eta sektoreko langile asko egoera jasanezinean daudela salatu duen sektore bat.*

*Máxime en este tiempo de pandemia, con un sector cultural que ha sufrido como nadie los golpes del covid. Un sector que ha salido a las calles y ha denunciado en este último año en demasiadas ocasiones que muchísimos trabajadores de la cultura y el sector como tal se encuentran en una situación insostenible.*

*Hori dela eta, hauxe da gure*

*Por eso presentamos la siguiente:*

*MOZIOA ARRUNTA*

*MOCIÓN ORDINARIA*

*Donostiako Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari hertsatuki eskatzen die Donostian tokiko eta auzoko sortzaileek bultzatutako proiektu artistiko eta kultural berritzaileetarako laguntzak eta lankidetza areagotzeko".*
=====================================

*El Pleno del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al Gobierno Vasco a crear más líneas de ayuda y colaboración a proyectos artísticos y culturales innovadores e impulsados por creadores locales y de barrio en Donostia".*
===================================

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Egiaztagiri hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hogeita bateko ekainaren batean.

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación, visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a uno de junio de dos mil veintiuno.

ALKATEAK O. E. /
V. º B. º DEL ALCALDE,

Eneko Goia Laso

*1- https://www.donostitik.com/paul-lataburu-de-arteuparte-nos-echan-de-tabakalera/*

---------------

**Erakunde Adierazpena, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, ingurumenaren gaineko eragina oinarri hartuta merkataritzako elkartasun tasa bat garatzeari buruzkoa.**

“Saltoki txikien sektorea larriki kaltetuta zegoen osasun-krisiaren aurretik, eta gaur egun muturreko egoera batean dago. Beraz, gure auzoetako hurbileko merkataritzak, argi eta garbi, arrisku handiko egoera bati egin behar dio aurre.

Horrela, merkataritza-sektorearen funtsezko zati bat galtzeaz gain, gure hiri eta herrien esentzia desagertu egin daiteke, saltoki handiek gaina hartuta. Hori dela eta, etorkizunari begira gure hurbileko merkataritzarekiko politika protekzionistak garatuz, eta donostiar guztiontzat, auzoan bertan, bizi-eredu eta kontsumo-eredu jasangarriagoa bilatuz, lehenbailehen hartu beharko genituzke presako neurriak arazo hori konpontzeko.

Saltoki handiek negozio-eredu oldarkorra erabiltzen dute, etorkizuneko politika ekologikorik gabea. Gainera, lehia desleiala sustatzen dute eta lan-prekarietatea bultzatzen dute, merkatu orekatuan eragina duten beste egoera batzuen artean.

**Declaración Institucional, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa a la creación de una tasa de solidaridad comercial con impacto ambiental.**

“El sector del pequeño comercio estaba ya gravemente dañado antes de la crisis sanitaria y a día de hoy afronta una situación límite. Por tanto, el comercio de proximidad existente en nuestros barrios es evidente que afronta claramente una situación de gran riesgo.

De esta manera, no sólo estamos perdiendo una parte fundamental del sector comercial sino que la esencia de cada una de nuestras ciudades y pueblos puede desaparecer solapada por las grandes superficies. Por ello, y desarrollando políticas a futuro proteccionistas con nuestro comercio de proximidad y buscando un modelo de vida y de consumo más sostenible a pie de barrio para todas las donostiarras y los donostiarras, deberíamos adoptar sin demora, medidas urgentes para solucionar este problema.

Las grandes superficies utilizan un modelo de negocio agresivo y carente de una política ecológica de futuro. Además, fomentan la competencia desleal e impulsan la precariedad laboral entre otras situaciones que afectan a un mercado equilibrado.

Horiek horrela, egoera hori aldatzen hasteko modu bat izan liteke Merkataritzako Elkartasun-Tasa bat sortzea, ingurumenaren gaineko eraginaren ikuspegitik saltoki handiak zergapetzen dituena, bildutako dirua Donostiako tokiko merkataritza bultzatuko duten neurri berritzaileetan inbertitzeko.

Es por ello, que una manera de comenzar a revertir esta situación pudiera ser la de impulsar la creación de una Tasa de Solidaridad Comercial, que desde una perspectiva del impacto medioambiental, grave a las grandes superficies, con el objetivo de reinvertir lo recaudado en la adopción de medidas innovadoras que impulsen el comercio local donostiarra.

Saltoki handiei tasa hori ezartzeko ideia ez da berria, kutsatzen duenari zergak ezartzea Espainiako nahiz Europako jurisprudentziak bermatzen du-eta.

La idea de implementar esta tasa a las grandes superficies no es algo novedoso, gravar impuestos a quien contamina está avalado por la jurisprudencia tanto española como europea.

Saltoki handiek leku bat izan behar dute Donostian, beren negozioak besteen baldintza berdinetan egiten badituzte, jakina. Hori dela eta, egokitzat jotzen dugu horiei zergak ezartzea, dituzten ingurumen-inpaktuei buruzko irizpide objektiboetan oinarrituta. Kontuan hartu behar da merkataritza-zentro horiek hondakin ugari sortzen dutela, hala nola plastikoa, ontziak eta bilgarriak, eta motordun ibilgailuak gehiegi ibiltzea eragiten dutela. Erakundeen proaktibitatea beharrezkoa da desoreka-egoera horrek eragiten dituen bestelako desorekak konpentsatzen hasteko.

Las grandes superficies comerciales deben tener un espacio en Donostia siempre y cuando desarrollen sus negocios en igualdad de condiciones. En consecuencia, se ve oportuno que tributen por ello en base a criterios objetivos sobre sus impactos ambientales. Hay que tener en cuenta la cantidad de residuos que generan estos centros comerciales, como el exceso de plásticos, envases, embalajes y proliferación de vehículos a motor. La proactividad de las instituciones se hace necesaria para empezar a compensar los desajustes que provoca esta situación de desequilibrio.

Eusko Jaurlaritzak eta eskumena duten beste erakunde batzuek, eragile politiko diren aldetik, arreta publikoa gairik garrantzitsuenen gainean mantendu beharko lukete, etorkizunari begira dauden politiketan oinarritutako ikuspegi batetik, jarrera oportunistak edo epe laburreko gobernukoak saihestuz, herritarren ongizatea ekarriko duten proposamenak sustatze aldera. Horretarako, komenigarria da laguntza publiko gehiago ematea, eta, beraz, tasa hori defizit hori osatzera dator.

El Gobierno Vasco junto con las instituciones competentes, como agentes políticos que son, deberían sostener la atención pública sobre asuntos relevantes desde un punto de vista de políticas a futuro, evitándo conductas oportunistas o de gobierno a corto plazo con el objetivo de fomentar propuestas que reviertan en el bienestar de la ciudadanía. Para ello, es conveniente dotar de más ayudas públicas, por lo que esta tasa viene a complementar este déficit.

Gai honi dagokionez, beraz, eskatutako tasa ezarri beharko litzateke, eta hortik ateratakoa

En lo referente a esta cuestión, se debería por tanto implementar la tasa solicitada y que su

merkataritza txikiaren onurarako inbertitu beharko litzateke, sektore horrek erasan handia jasan baitu pandemiaren ondorioz.

Hori izango litzateke azken arrazoia, beharrezkoa baita hurbileko saltokietako kontsumoa saltoki handietakoarekin orekatzea.

Alde horretatik, erakundeek, hiru lurralde-mailetakoek −Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia eta Udala−, horrelako ekimenak bultzatu beharko lituzkete, presaz jardunez funts publikoak modu bidezkoago eta progresiboago batean bildu eta berriz inbertitzeko, zerga-bilketa berdintasunezkoagoa lortzeko.

Horregatik guztiagatik, Elkarrekin Donostia udal taldeak honako erakunde adierazpen hau aurkezten du:

ERAKUNDE ADIERAZPENA

1. Donostiako Udalak azterlan bat egiteko eskatzen die Eusko Jaurlaritzari eta zerga-gaietan eskumena duten erakundeei, ingurumen-tasa batek saltoki handietan izango lukeen eragin ekonomikoa baloratzeko eta bildutako dirua saltoki txikietarako laguntzetan berriz inbertitzeko bideragarritasuna aztertzeko.

2. Donostiako Udalak lantalde bat sortzeko eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Udalarekin eta saltoki txikien sektoreko eragileekin koordinatuta, zerikusia duten erakunde guztiekin behar diren adostasunak bilatze aldera, ingurumen-tasa bat bultzatzearren, udal mailan bildutako diru guztia hurbileko saltoki txikiak sustatzeko erabil dadin.

reinversión repercuta en beneficio del pequeño comercio, sector que ha sufrido un gran impacto debido a la pandemia.

Este sería el fundamento último, ya que es necesario equilibrar el consumo en los comercios de cercanía frente al de las grandes superficies.

En este sentido, las Instituciones, en los tres niveles territoriales- Gobierno Vasco, Diputación y Ayuntamiento – deberían ser las impulsoras de este tipo de iniciativas actuando de manera urgente para recaudar y reinvertir los fondos públicos de forma más justa y progresiva, con el fin de lograr una recaudación fiscal más igualitaria.

Por todo ello, el Grupo Municipal Elkarrekin Donostia presenta la siguiente :

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

1. El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián solicita al Gobierno Vasco y a las instituciones competentes en materia fiscal, un estudio con el objetivo de valorar el impacto económico de una tasa medioambiental a las grandes superficies, así como la viabilidad de reinvertir lo recaudado en ayudas al pequeño comercio.

2. El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián demanda al Gobierno Vasco la creación de un grupo de trabajo, que de forma coordinada junto con la Diputación Foral de Gipuzkoa, el propio Ayuntamiento y los agentes del sector del pequeño comercio, busquen los consensos necesarios con todas las instituciones afectadas, con el objetivo de impulsar una tasa medioambiental para que dicha recaudación obtenida a nivel municipal se destine en exclusividad a la promoción del pequeño

comercio de proximidad.

Donostia, 2021eko maiatzaren 25a

Izpta.: Aitzole Araneta
Elkarrekin Donostia udal taldeko bozeramailea".

Donostia, 25 de Mayo de 2021

Fdo.: Aitzole Araneta
Portavoz del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia".

Eztabaida hasita, Marta Huarte Paño andreak, Borja Corominas Fisas jaunak, Jon Markel Ormazabal Gaztañaga jaunak eta Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D.ª Marta Huarte Paño, D. Borja Corominas Fisas, D. Jon Markel Ormazabal Gaztañaga y D. Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0**

---------------

## II.2

## KONTROL MOZIOAK

## II.2

## MOCIONES DE CONTROL

**II.2.1. Kontrol mozioa, EH Bildu eta Elkarrekin Donostia taldeek batera aurkeztua, Maldatxo kalearen egoerari buruzkoa.**

"Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallasteguik eta EH Bildu taldeko zinegotzi Olaia Duarte Lopezek,

**II.2.1. Moción de control conjunta, presentada por los Grupos EH BILDU y Elkarrekin Donostia, relativa al estado de la calle Maldatxo.**

"Haizea Garay Gallastegui, concejala del grupo municipal Elkarrekin Donostia, y Olaia Duarte Lopez, concejala del grupo EH BILDU Donostia,

Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten dugu Gune Publikoen, Obren eta Hiri Zerbitzuen Batzordean maldatxo kaleko egoerari buruz egindako Mendiolako sarbideei buruzko interpelazioen ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Egiako Maldatxo kaleko bizilagunak aspalditik ari dira salatzen kale horretako zoladura egoera txarrean dagoela. Udalak, 2015a arte, adabakiak egiten zituen galtzadan, baina, harrezkero, galtzadaren egoera hainbesteraino okertu da, non galtzadatik ibiltzea arriskutsua baita ibilgailuan dabiltzanentzat eta oinezkoentzat.

Kale horretako bizilagunek adierazi dute Maldatxo erabilera publikoko kale pribatua dela, eta garai batean San Antonio klinikara sartzen uzten zuela, eta, sortzen zuen trafikoa ikusita, klinika jardunean egon zen bitartean, klinika arduratu zen garbiketa, argiztapen eta zuloak estaltzeko zerbitzu publikoez. 1986an klinika itxi ondoren, bizilagunak zerbitzu horiek gabe geratu ziren, eta 1988an Udalarekin erabaki zuen erakundea arduratuko zela mantentze lanez. Harrezkero, argiteria eta garbiketa zerbitzuek behar bezala funtzionatu dute; hala ere, Udalak ez du asfaltatze zerbitzua betetzen 2015. urtetik. Izan ere, Egia Bizirik auzo elkarteak hogeita bat bizilagunek sinatutako eskaera aurkeztu zuen 2016ko abuztuan. Eskaerari erantsita zetozen irudiek erakusten zuten zer gaizki zeuden Maldatxo kaleko zoladura eta horma.

Bost urte geroago, aurtengo apirilaren 29an, auzotarrek berriro salatu zuten urte batzuetan ez dela konponketarik egin eta galtzadaren

al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presentan la siguiente MOCIÓN DE CONTROL tras las correspondientes interpelaciones realizadas en la COMISIÓN DE ESPACIO PÚBLICO, OBRAS Y SERVICIOS URBANOS, relativas al estado de la calle Maldatxo.

JUSTIFICACIÓN

Los y las vecinas de la calle Maldatxo de Egia llevan tiempo denunciando el mal estado del pavimento de la carretera de esta calle. El ayuntamiento hasta 2015 hacía algunos parcheos en la calzada, pero desde entonces la situación de la calzada se ha deteriorado hasta el punto de que transitar por ella es un peligro tanto para quienes circulan en vehículo como para viandantes.

Los y las residentes de esta calle señalan que Maldatxo se trata de una calle privada de uso público que, en su momento, daba acceso a la Clínica “San Antonio” y, dado el tráfico que generaba, mientras estuvo en funcionamiento, la clínica se encargó de los servicios públicos de limpieza, alumbrado y bacheo. Tras el cierre de la clínica en 1986 el vecindario se quedó sin estos servicios, por lo que solicitó y acordó en 1988 con el ayuntamiento que éste se encargara del mantenimiento. Desde entonces, los servicios de alumbrado y limpieza han funcionado correctamente; sin embargo, el ayuntamiento ha dejado de cubrir el servicio de asfaltado desde el año 2015. De hecho, en agosto de 2016 la asociación vecinal Egia Bizirik presentó una solicitud firmada por veintiún vecinos y vecinas. Las imágenes presentadas junto con la solicitud mostraban que el muro y el pavimento de la calle Maldatxo se encontraban en muy mal estado.

Cinco años después, el 29 de abril de este año, los vecinos y vecinas de la zona han vuelto a denunciar que son ya varios años en los que no

narriadura muga jasanezin batera iritsi dela, eta, aipatu dugun bezala, arriskutsua dela handik igarotzen direnentzat; egoera hori duela gutxi aditzera eman diote alkateari, eta, horrekin batera, konpontzeko eskatzen duten bizilagunen sinadurak aurkeztu.

se ha llevado a cabo ningún arreglo y el deterioro de la calzada ha llegado a un límite insoportable y que, como hemos mencionado, genera riesgos para los que transitan por ella, circunstancia ésta que han trasladado recientemente en un escrito al alcalde, acompañado de firmas de los vecinos y vecinas solicitando la reparación de la calzada.

Zoladuraren egoera txarrak dakarren arriskuaz gain, eremu horretan Udalak ezer ez egiteak ere asko esaten du erakunde publikoen kudeaketaz; narriadurak eta denboran luzatzen den esku hartu ezak bizilagunei benetako utzikeria zirrara bat eragiten die, eta horrek, jakina, haien egonezina argitzen du.

Además del peligro que supone el mal estado del pavimento, la falta de actuación municipal en la zona también dice mucho de la gestión de las instituciones públicas; el deterioro y la falta de actuación que se prolonga en el tiempo, provoca una sensación de abandono real a los y las vecinas que, lógicamente, explica su malestar.

Batzordean zinegotzi ordezkariak bi aldiz esan zuen Maldatxo bide zorrik gabeko bide pribatua dela, eta hori ez da egia, bide horretatik baino ezin baitzen sartu, lehen, San Antonio klinikara eta, gaur egun, Osalanera. Bide zortasunik gabeko kale pribatua izanez gero, ez litzateke ulertuko Udal honek bizilagunekin hura mantentzea erabaki izana ere; erabaki hori erabat bete duelarik 2015era arte, eta gaur egun, partzialki, argiteriaz eta bide garbiketaz arduratzen baita.

En comisión la concejala delegada aseguró en dos ocasiones que Maldatxo es una vía privada sin servidumbre de paso, hecho que no es cierto ya que, solo a través de esta vía se accedía primero a la Clínica San Antonio y en la actualidad a Osalan. De tratarse de una calle privada sin servidumbre de paso, tampoco se entendería que este ayuntamiento hubiera acordado con el vecindario su mantenimiento; acuerdo que se ha cumplido completamente hasta 2015, y en la actualidad de forma parcial, manteniendo alumbrado y limpieza viaria.

Era berean, gogoratu behar da 2017an EH Bildu udal taldeak auzotarren kexa aurkeztu zuela, Maldatxon murru bat konpontzeko beharrari buruz, eta, nahiz eta esku hartu ez izana zuritzen saiatu zen, gaur egungo argudio berak erabiliz, azkenean, eta nahiko atzeratuta, Udalak konpontzeari ekin zion.

Asimismo es preciso recordar que ya en 2017 el grupo municipal EH Bildu trasladó la queja de las vecinas en relación a la necesidad de reparar un muro en Maldatxo y, aunque se trató de justificar la falta de intervención utilizando los mismos argumentos que en la actualidad, finalmente y, tras bastante demora, el Ayuntamiento procedió a su reparación.

Aipatutako guztiagatik, honako hau aurkezten dugu

Por todo ello presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio bete dezala udal honek bizilagunekin hartutako konpromisoa, eta Maldatxo kaleko asfaltoa konpondu eta mantendu dezala, argiteria eta bide garbiketa mantentzen dituen modu berean.

2. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio auzotarrei idatziz jakinaraz diezaiela kexa asko aurkeztu izanaren jatorri izan den asfaltoa noiz konpondu behar duen.

Donostian, 2021eko maiatzaren 21ean

Sinatua: Haizea Garay Gallastegui,
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia.

Sinatua: Olaia Duarte López,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia.".

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a cumplir el compromiso adquirido por parte de este ayuntamiento con el vecindario, y proceda a reparar y mantener el asfaltado de la calle Maldatxo, del mismo modo que lleva a cabo el mantenimiento del alumbrado y de la limpieza viaria.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a que comunique por escrito a los/as vecinos/as de la zona cuando se procederá a reparar el asfaltado sobre el que han presentado numerosas quejas.

Donostia, 21 de mayo de 2021

Fdo.: Haizea Garay Gallastegui
Concejala del Grupo Municipal
Elkarrekin Donostia

Fdo.: Olaia Duarte López
Concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Haizea Garay Gallastegui andreak, Olaia Duarte Lopez andreak, Mikel Lezama Zubeldia jaunak eta Marisol Garmendia Beloqui andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Haizea Garay Gallastegui, D.ª Olaia Duarte López, D. Mikel Lezama Zubeldia y D.ª Marisol Garmendia Beloqui, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0**

---------------

**II.2.2. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Altzako kiroldegia eraikitzeko lanen atzerapenei eta aurrera begirako neurriei buruzkoa.**

“EH Bildu udal taldeko zinegotzi Zigor Etxeburua Urbizuk, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri hartuta, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2021eko maiatzaren 17an Pertsonentzako Zerbitzuen batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko azaroaren 16tik, kiroldegirik gabe daude altzatarrak. 2019ko irailean, EH Bilduk eskatu zuen Altzako kiroldegi berriaren lanei jarraipena egiteko batzordea berrabiatzea. Udal Gobernuak eskariari uko egin zion kiroldegiaren lanek ez zutela jarraipen berezirik behar argudiatuta.

Kiroldegiak 2021. urtearen hasierarako irekita egon behar bazuen ere, Gobernuak hiru aldiz atzeratu du kiroldegiko lanak amaitzeko epea; hau da, lau data ezberdin eman ditu lanak amaitzeko. Gauzak horrela, Udal Gobernuak ez du urte honen amaierara arte irekiko kiroldegi berria. Horren inguruan batzordean galdetuta, zinegotzi ordezkariak azaldu zuen enpresek hainbat aldaketa egin dituztela egitasmoan (estalkiaren egitura, porlanezko hormen akabera, aireztapen sistema...) lanak hasita zeudela. Langileek ere salatu zuten baldintza eskasetan izan zituztela lanean, baina zinegotziak ez zuen hori aipatu.

**II.2.2. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, relativa a los retrasos en la construcción del nuevo polideportivo de Altza y las medidas a adoptar.**

“Zigor Etxeburua Urbizu, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para que sea tratada en el Pleno. Esta moción es el resultado de la interpelación tratada el 17 de mayo de 2021 en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

Desde el 16 de noviembre de 2016, los vecinos y vecinas de Altza no tienen polideportivo. En septiembre de 2019, EH Bildu solicitó que se volviera a poner en marcha la comisión de seguimiento de las obras del nuevo polideportivo de Altza. El Gobierno Municipal rechazó la petición, alegando que las obras del polideportivo no requerían un seguimiento especial.

El polideportivo debía estar abierto a principios del año 2021, pero el Gobierno ha retrasado tres veces el plazo de finalización de las obras. Dicho de otro modo, ha dado cuatro fechas diferentes para su finalización. Así las cosas, el Gobierno Municipal no abrirá el nuevo polideportivo hasta finales de este año. A este respecto, respondiendo a las preguntas que se le hicieron en la comisión, la persona concejala delegada explicó que las empresas han introducido diversas variaciones en el proyecto (estructura de la cubierta, acabado de las paredes de cemento, sistema de ventilación, etc.), una vez comenzadas las obras. Por otro lado, los

Horiekin batera, edo horien ondorioz, eraikuntza lanak asko garestitu dira, 2 milioi euro gehiago (+ % 17,35), baina zinegotziak ez zuen adierazi isunik jartzeko asmorik zutenik.

trabajadores habían denunciado que habían trabajado en condiciones precarias, pero la persona concejala delegada no mencionó este asunto. En paralelo, o como consecuencia lo anteriormente citado, las obras de construcción se han encarecido notablemente; exactamente, 2 millones de euros más (+ 17,35%), pero la persona concejala delegada no manifestó que tuviera intención de imponer ninguna multa.

Era berean, galdetu genuen zergatik dauden oraindik esleitu gabe kanpoko igerilekua eraikitzeko kontratuak, baina zinegotziak ez zuen argipenik eman. Gauzak horrela, kiroldegiarekin batera irekiko zela hitzemana bazuen ere, Gobernuak ez du irekiko 2022ko maiatza amaiera arte.

Preguntamos también por qué todavía no están adjudicados los contratos de construcción de la piscina exterior, pero la persona concejala no dio ninguna explicación. Así las cosas, si bien el Gobierno se comprometió a abrirla a la vez que el polideportivo, no la abrirá hasta finales de mayo de 2022.

Kiroldegiaren inguruko errepide sarea urbanizatzeko lanak ere presaz izapidetu behar izan ditu Gobernuak, kiroldegia eraikitzeko lanekin batera amaitzeko. Aurreikuspen falta erakusten du horrek, are gehiago, jakinda kiroldegia eraikitzeko lanak amaitzeko data hiru aldiz aldatu dela.

Por otro lado, el Gobierno ha tenido que tramitar con urgencia las obras de urbanización de la red de carreteras del entorno del polideportivo, para que puedan finalizar simultáneamente a las obras de construcción del polideportivo. Esto demuestra la falta de previsión que ha existido, aún más si tenemos en cuenta que la fecha prevista para la finalización de las obras de construcción del polideportivo ha cambiado tres veces.

Udal Gobernuari ardura exijitzen diogu, argi geratu baita ez dituela behar bezala kontrolatu eraikuntza lanak.

Exigimos al Gobierno municipal la responsabilidad que le corresponde, puesto que ha quedado claro que no ha controlado debidamente las obras de construcción.

Gainera, azkeneko 15 hilabeteotan, Eneko Goiak ez die informaziorik eman altzatarrei gertatzen ari diren atzerapenei eta garestitzeei buruz. Epe horretan zehar, auzotarrek eta erabiltzaileek hainbat kezka adierazi eta galdera ugari egin dizkiote udal talde honi, oharturik Udal Gobernuak ez zuela horretarako biderik eskaintzen:

Además, en los últimos 15 meses, Eneko Goia no ha informado a los vecinos y vecinas de Altza de los retrasos y encarecimientos que se están produciendo. A lo largo de este periodo, el vecindario y las personas usuarias del polideportivo han expresado sus inquietudes y formulado numerosas preguntas a este grupo municipal, conscientes de que el Gobierno Municipal no ofrecía la posibilidad de que se le consultara a él:

• Eraikuntza Eskolako behin-behineko kiroldegiak jarraituko duen kiroldegi berria ireki eta gero;
• kiroldegi berriaren inguruak urbanizatzeak nolako eragina izango duen Berra bidean;
• abonuaren sarrera ordaintzetik salbuesteko aukerak noiz arte jarraituko duen;
• Zuhaizti eta Loiola Erriberako kiroldegien kudeaketa pribatizatu izanak eraginik izango ote duen Altzako kiroldegi berrian; ...

Horregatik, Gobernuari eskatu genion bilera publikoa egiteko auzotarrekin eta erabiltzaileekin, dituzten zalantzak eta galderak erantzuteko. Zinegotziak erantzun zuenez, aukera hori aztertzen ari omen da Gobernua, baina ez zuen datarik eman.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

KONTROL MOZIOA

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari antolatzeko bilera ireki bat, Altzako herritarrei zuzendua, Altzako kiroldegi berria eta kanpoko igerilekuak eraikitzeko lanen egoeraren inguruan jarduteko, eta, oro har, herritarrek dituzten kezkei eta beharrei erantzuteko.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari lehenbailehen esleitu ditzala Altzako kiroldegiaren kanpoko aldean igerilekuak egiteko lanak.

3.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen

• Tras la apertura del nuevo polideportivo, ¿continuará el polideportivo provisional de la Escuela de Construcción?
• ¿Qué impacto tendrá la urbanización del entorno del nuevo polideportivo en el camino de Berra?
• ¿Hasta cuándo se mantendrá la posibilidad de exención del pago de la entrada del abono?

• ¿La privatización de la gestión de los polideportivos de Zuhaizti y Riberas de Loiola afectará al nuevo polideportivo de Altza?

Por todo ello, solicitamos al Gobierno que convocara una reunión pública con el vecindario y las personas usuarias, para responder a sus dudas y preguntas. La persona concejala delegada respondió que el Gobierno está estudiando esta posibilidad, pero no dio ninguna fecha.

Es por ello por lo que el concejal abajo firmante presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a convocar una reunión abierta dirigida a los vecinos y vecinas de Altza, para tratar sobre la situación de las obras de construcción del nuevo polideportivo de Altza y de las piscinas exteriores, y, en general, para dar respuesta a las inquietudes y necesidades de la ciudadanía.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que adjudique cuanto antes las obras de construcción de las piscinas exteriores del polideportivo de Altza.

3.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián

dio Udal Gobernuari azter dezala isunik jarri behar zaion Altzako kiroldegi berria eraikitzen ari den Acciona-Altuna y Uría UTE-ri, lanak amaitzeko epea hiru aldiz aldatzeagatik, eta azterketa horren berri eman diezaiela udal taldeei.

4.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari luzatu dezala, kiroldegi berria ireki ondoren, sei hilabetez, bazkide abonuaren sarrera ordaintzetik salbuesteko aukera.

5.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari eutsi diezaiola irekita Eraikuntza Eskola deiturikoan behin-behinean zabaldu zuen gimnasioari, Altzako kiroldegi berria ireki ondoren ere.

Donostian, 2021eko maiatzaren 20an

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

insta al Gobierno Municipal a que estudie la imposición de multas a la UTE Acciona-Altuna y Uría, que está construyendo el nuevo polideportivo de Altza, por haber modificado tres veces el plazo de finalización de las obras, y a que informe de dicho estudio a los grupos municipales.

4.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a prorrogar la posibilidad de eximir del pago de la entrada del abono para socios durante seis meses, tras la apertura del nuevo polideportivo.

5.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a mantener abierto el gimnasio que puso en marcha provisionalmente en la denominada Escuela de Construcción, aun cuando el nuevo polideportivo de Altza ya esté abierto.

San Sebastián, 20 de mayo de 2021

Zigor Etxeburua Urbizu,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Zigor Etxeburua Urbizu jaunak, Marta Huarte Paño andreak, Mikel Lezama Zubeldia jaunak, Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Zigor Etxeburua Urbizu, D.ª Marta Huarte Paño, D. Mikel Lezama Zubeldia, D.ª Duñike Agirrezabala Ugarte, D. Martín Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.3. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Oleta-Pikabea auzunearen irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzeko plan bereziari buruzkoa.**

“EH Bildu udal taldeko zinegotzi Zigor Etxeburua Urbizuk, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri hartuta, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2021eko maiatzaren 17an Gune Publikoen batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Oleta auzuneak pairatzen duen irisgarritasun arazoa ezaguna bezain larria da, orografia maldatsua baitu. Urteotan, hainbat konpontze lan egin badira ere, izan jabe pribatuek beraiek edo Udalak eginak, azterketa bakarra egin da auzoa ikuspegi orokor batez aztertzeko (oinezkoek auzoen artean egiten dituzten fluxuak aztertu, irisgarritasun egoeraren argazki osoa egin...). Lan hori Berdintasun Sailak egin zuen, 2019an, auzoan dauden puntu kritikoen harira. Besteren artean, Oletako trenbidepeko tunela eta auzoko eskailerak aztertu ziren. Edonola, Udal Gobernuak ez die jarraipenik eman lan horretan jaso ziren irtenbideei.

Hain zuzen ere, auzotik igarotzen den Topoaren trenbide zatiaren etorkizunaren inguruan ere galdetu genion Gobernuari. Altza-Galtzaraborda saihesbideko lanak urte

**II.2.3. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el plan especial para mejorar la accesibilidad y seguridad del barrio Oleta-Pikabea.**

“Zigor Etxeburua Urbizu, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presento la siguiente moción, para que sea tratada en el Pleno. Esta moción es consecuencia de la interpelación analizada en la Comisión de Espacios Públicos el 17 de mayo 2021.

JUSTIFICACIÓN

El problema de accesibilidad que sufre el barrio de Oleta es tan conocido como grave, debido a la pendiente orográfica. A lo largo de estos años, aunque se han ejecutado diversas obras de reparación, ya sean realizadas por los propios propietarios y propietarias privados o por el Ayuntamiento, solamente se ha realizado un estudio para analizar el barrio con una visión integral (analizar los flujos de peatones entre los barrios, obtener una imagen completa de la situación de la accesibilidad, etc.). Este trabajo fue realizado por el Negociado de Igualdad en 2019, en relación a los puntos críticos existentes en el barrio. Se analizaron, entre otros aspectos, el túnel bajo el ferrocarril en Oleta y las escaleras del barrio. En cualquier caso, el Gobierno municipal no ha dado continuidad a las soluciones recogidas en este trabajo.

En concreto, también preguntamos al Gobierno sobre el futuro del tramo ferroviario del Topo que discurre por el barrio. Las obras de la variante de Altza-Galtzaraborda comenzarán a

amaieran hasiko dira, eta horiek amaitzean (2026), Herrera eta Pasaia arteko trenbideak ez du egitekorik izango, eta lur publiko horiek libre geratuko dira. Beraz, Oletak aukera bat izan dezake hor trenbidepeko tunelaren irisgarritasun arazoari irtenbidea emateko. Udal Gobernuak erantzun zuen ETSrekin aztertuko duela.

finales de año, y una vez finalizadas (2026), el tramo de ferrocarril entre Herrera y Pasaia dejará de utilizarse, y dejará libres estos terrenos públicos. Por lo tanto, Oleta puede tener en ello una oportunidad para solucionar el problema de accesibilidad del túnel de ferrocarril. El Gobierno municipal respondió que lo analizará con ETS.

Auzune honek badu beste aldagai korapilatsu bat: etxarteak jabetza pribatukoak dira, hein handi batean. Horrek eta auzotarrek auziari konponbidea elkarlanean topatzeko modurik ez ikusi izanak ekarri du Donostiako Udalari laguntza eskatu izana. Badira gutxienez hamar urte Pikabeako auzotarrak irtenbide eske ari direla, eta 2007-2011 eta 2011-2015 agintaldietan zenbait urrats egin baziren ere, bizilagunak zahartzearekin batera, arazoa larriagotzen joan da. 2020ko aurrekontu egitasmoan, Udal Gobernuak zenbait aldaketa adostu zituen EH Bildu udal taldearekin. Horrela, Udalbatzarrak onartutako 2020ko aurrekontuetan jaso zen 70.000 €ko diru-sail bat, 643.03 zenbakiduna, Oleta-Pikabea auzunearen irisgarritasuna hobetzeko eta segurtasuna handitzeko plan berezia egiteko.

Otra variable compleja de este barrio es que las manzanas son en gran medida de propiedad privada. Esto y el hecho de que los vecinos y vecinas no hayan podido encontrar una solución conjunta al problema han provocado que hayan solicitado ayuda al Ayuntamiento de San Sebastián. Desde hace al menos diez años los vecinos y vecinas de Pikabea están solicitando una solución y aunque en los mandatos 2007-2011 y 2011-2015 se dieron algunos pasos, con el envejecimiento de la población el problema se ha ido agravando. En el proyecto de presupuestos de 2020, el Gobierno municipal consensuó una serie de modificaciones con el grupo municipal EH Bildu. Así, en los presupuestos de 2020 aprobados por la Corporación se recogió una partida de 70.000 €, la número 643.03, para la elaboración de un plan especial para mejorar de la accesibilidad e incrementar la seguridad del barrio Oleta-Pikabea.

2020an, ordea, Udal Gobernuak gelditu egin zuen 2020ko aurrekontuaren exekuzioa, SARS-CoV-2 birusagatiko krisiak eragindako kalte ekonomikoen aitzakiatan, eta aurrekontuan jasota zeuden hainbat egitasmo gelditu egin ziren, tartean Pikabea-Oletako auzunearen irisgarritasuna hobetzeko plan berezia egitea. Geroztik, birritan galdetu dio EH Bilduk zinegotzi ordezkariari zergatik Udal Gobernuak ez duen abiatu Oleta-Pikabea auzunearen irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzeko Plan Berezia zehazteko prozesua. Otsailean,

Sin embargo, en el año 2020, el Gobierno municipal paralizó la ejecución del presupuesto de 2020, con la excusa de los perjuicios económicos derivados de la crisis ocasionada por el virus SARS-CoV-2, y diversos proyectos presupuestados quedaron interrumpidos, como la elaboración de un plan especial para mejorar la accesibilidad y eliminar los puntos críticos del barrio de Pikabea-Oleta. Desde entonces, EH Bildu ha preguntado en dos ocasiones a la Concejalía delegada por qué el Gobierno municipal no ha iniciado el proceso de

zinegotziak hitzeman zuen EH Bildurekin adostu zen zuzenketa gauzatzeko aukera aztertuko zuela. Geroztik, ordea, ez dugu ezeren berririk izan. Horregatik, udal batzordean berriz ere galdetu genion Gobernuari Plan Berezia zehazteko prozesua abiatzeko asmorik ote duen. Zinegotzi ordezkariak adierazi zuen Udal Gobernuak baduela egiteko asmoa, baina ez zuen horretarako eperik eman.

definición del Plan especial para mejorar la accesibilidad y seguridad del barrio de Oleta-Pikabea. En febrero, la Concejalía se comprometió a estudiar la posibilidad de plasmar la enmienda transaccionada con EH Bildu. Sin embargo, desde entonces no hemos tenido noticia alguna. Por ello, en la comisión municipal volvimos a preguntar al Gobierno si tiene intención de iniciar el proceso de concreción del Plan especial. La Concejalía delegada señaló que el Gobierno municipal tiene intención de hacerlo, pero no menciono un plazo para ello.

Egoeraren premia eta dituen korapiloen nolakoa ezagututa, EH Bilduren udal taldeak beharrezkoa ikusten du lehenbailehen hastea Oleta auzoaren irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzeko Plan Berezi hori zehazteko lanak.

Conocida la urgencia de la situación y la naturaleza de los obstáculos existentes, el grupo municipal de EH Bildu considera necesario iniciar cuanto antes los trabajos de definición de este Plan especial para mejorar la accesibilidad y la seguridad del barrio de Oleta.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Es por ello por lo que el que concejal que suscribe presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari lehenbailehen abiatu dezala Oleta-Pikabea auzunearen irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzeko Plan Berezia zehazteko prozesua, eta aldi berean, Plan Berezia zehazteko unean, kontuan izan ditzala Berdintasun Sailak Oletarako proposatutako irtenbideak.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari antola dezala parte hartzeko prozesu bat auzotarrei zuzendua, irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzeko Plan Bereziaren nondik norakoen inguruan azalpenak emateko, eta, oro har, auzotarrek dituzten kezkei eta beharrei erantzuteko.

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a iniciar cuanto antes el proceso de definición del Plan especial para la mejora de la accesibilidad y la seguridad del barrio de Oleta-Pikabea, y a que, simultáneamente, al definir el Plan Especial, tenga en cuenta las soluciones propuestas por el Negociado de Igualdad para Oleta.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a organizar un proceso participativo dirigido a las vecinas y vecinos para informar sobre los pormenores del Plan especial para la mejora de la accesibilidad y la seguridad, así como para dar respuesta a las inquietudes y necesidades del vecindario, en general.

Donostian, 2021eko maiatzaren 20an

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

En San Sebastián, a 20 de mayo de 2021

Zigor Etxeburua Urbizu,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Zigor Etxeburua Urbizu jaunak, Marta Huarte Paño andreak, Borja Corominas Fisas jaunak eta Nekane Arzallus Iturriza andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Zigor Etxeburua Urbizu, D.ª Marta Huarte Paño, D. Borja Corominas Fisas y D.ª Nekane Arzallus Iturriza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**3. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 3:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**
**ABSTENTZIOAK: 1 – PP, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**
**ABSTENCIONES: 1 – PP, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

**3. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 3:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 23 – (9) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 2 – PP.**
**ABSTENTZIOAK: 1 – PP, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 23 – (9) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 2 – PP.**
**ABSTENCIONES: 1 – PP, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

---------------

**II.2.4. Kontrol mozioa, PP Taldeak aurkeztua, TAOri buruzkoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 94. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) TAOri buruz aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Denok dakigu gobernu talde honek obsesioa duela gure hirian ibilgailuen trafikoa ezabatzeko, eta pairatu ere egiten dugu obsesio hori. Denok nahi dugu hiri lagunkoi bat, baina, hori lortzeko, alternatibak eman behar dira, ez bakarrik oztopoak jarri.

Arana andreak Gune Publikoen (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) azken Batzordean ziurtatu zuenez, 75.000 ibilgailu inguru daude gure hirian. Batzorde horretan emandako datuak berez hitz mintzo dira. Donostiarrek ibilgailuak dituzte, eta erabili egiten dituzte, ez plazeragatik, baizik eta, gehienetan, beharrak bultzatuta.

Ibilgailu bolumenaz gain, bada gobernu talde honek konpondu nahi ez duen beste arazo bat: gure hirian lur gaineko aparkalekurik ez egotea. Auzoa zein den, egoiliarrak zenbat diren, ibilgailu bolumena zenbatekoa den, eremuko eraikinek garajerik baduten ala ez… arazoa areagotu egiten da aparkatzeko orduan, eta TAOko zenbait gunetan guztiz zaila da aparkaleku bat aurkitzea.

**II.2.4. Moción de control, presentada por el grupo PP, sobre la OTA.**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 94 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, como consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre la OTA.

JUSTIFICACIÓN

De todos es sabido, incluso padecido, la obsesión de este Equipo de Gobierno por eliminar el tráfico rodado de nuestra ciudad. Una ciudad amigable es lo que perseguimos todos, pero para conseguir una ciudad amigable hay que dar alternativas no solo poner obstáculos.

La realidad es que, como la señora Arana aseguró en la última Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, en nuestra ciudad hay cerca de 75.000 vehículos. Los datos facilitados en esa comisión hablan por sí mismos. Los donostiarras tienen vehículos y los usan, no por placer, en la mayoría de los casos por necesidad.

Junto al volumen de vehículos existentes hay otra problemática que este Equipo de Gobierno no parece que quiera atajar: la falta de plazas de aparcamiento en superficie en nuestra ciudad. Dependiendo de los barrios, del nº de residentes, del volumen de vehículos, de si es una zona con edificios que tienen garajes o no, etc.… el problema a la hora de aparcar se incrementa, y en algunas zonas de OTA es una

auténtica odisea encontrar un plaza de aparcamiento.

Gainera, egoiliarrentzako gune asko kentzen ari dira, hirian obrak ugaritu direlako, kaleak oinezkoentzat jarri direlako eta aparkalekuetan terrazak jarri direlako.

Además son muchas las zonas de residentes que se están eliminando por la proliferación de obras en nuestra ciudad, las peatonalizaciones de nuestras calles, la instalación de terrazas en zonas de aparcamiento.

Udalak emandako TAO bereizgarrien kopurua erabat desfasatua dago plazen kopuruarekin alderatuz, eta, nahiz eta, Arana andreak batzordean adierazi zuen bezala, TAO zerbitzuak ez duen inolaz ere aparkalekua bermatzen, espazio publikoa dagoena baita, uste dugu erraztu egin behar dela aparkatzea, besteak beste, aparkatzeko plaza baten bila etengabe bueltaka dabiltzan eta trafiko bolumen handiagoa sortzen duten ibilgailuek eragindako kutsadura saihesteko.

El número de viñetas OTA concedidas por este ayuntamiento está completamente desfasado en relación al número de plazas existentes… y aunque, como aseguró la señor Arana en la comisión “el servicio de OTA en ningún caso garantiza el aparcamiento, porque el espacio púbico es el que hay”, creemos que hay que facilitar el aparcamiento para evitar, entre otras cosas, la contaminación producida por los vehículos que están dando vueltas constantemente en busca de una plaza para aparcar y que producen un mayor volumen de tráfico.

Hain zuzen, gobernu talde honek bi egoera horiek amaitu nahi ditu.

Dos situaciones con las que este Equipo de Gobierno quiere terminar.

Aipatutako guztiagatik, hau da gure

Por todo lo expuesto, presentamos la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari konpentsa ditzala, TAO aparkaleku eremu guztietan, merkataritzako TAOko plazak jartzeko kendu diren egoiliarrentzako aparkalekuak, eta bihur ditzala, atzera ere, egoiliarrentzako plaza.

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a compensar, en todas las zonas de aparcamiento OTA, las plazas de aparcamiento de viñeta de residentes que han sido eliminadas por plazas de OTA comercial y reconvertir éstas en plazas de residentes.

Donostia, 2021eko maiatzaren 21a

San Sebastián, a 21 de mayo de 2021

Borja Corominas Fisas,
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea”.

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular”.

Eztabaida hasita, Borja Corominas Fisas jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Pilar Arana Perez andreak eta Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D. Borja Corominas Fisas, D.ª Aitzole Araneta Zinkuengi, D.ª Pilar Arana Pérez y D.ª Garbiñe Alkiza López de Samaniego, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

---------------

**II.2.5. Kontrol mozioa, PP Taldeak aurkeztua, Atotxa-Erreka eremuko lur-mugimenduei buruzkoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 94. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Atotxarrekari buruz aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Martxoko Garapen eta Lurralde Planifikazioko Batzordean erantzun ziguten Asfaltos Naturales de Campezo eta Arbar Construcciones enpresek osatutako ABEEak, Atotxarreka urbanizatzeko kontratua 17 milioi euroan esleituak zuenak, Donostiako Udalaren baimena zuela inguruaren urbanizaziotik

**II.2.5. Moción de control, presentada por el grupo PP, sobre los movimientos de tierra en la zona de Atotxa Erreka**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 94 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente Moción de Control, como consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio sobre los movimientos de tierra en la zona de Atotxa Erreka.

JUSTIFICACIÓN

En la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio del mes de Marzo se nos respondió que la UTE formada por las empresas Asfaltos Naturales de Campezo y Arbar Construcciones, adjudicatarias de la urbanización de Atotxa Erreka por un importe de 17 millones de euros, tenía la autorización

sobratutako materiala ondoko lursail batean uzteko, Atotxarrekako iparraldeko isurialdean dagoen ibarbide bat betez.

del ayuntamiento de San Sebastián para depositar en un terreno colindante el material sobrante de la urbanización del entorno, rellenando una vaguada en la vertiente norte de Atotxa Erreka.

ABEEari hainbat gomendio egin zitzaizkion, hala nola ingurunea basoberritzeko.

Se le exigía a la UTE una serie de recomendaciones, como la reforestación del entorno.

Bada, ez da egia ABEEak ibarbide hori betetzeko baimena zuenik, eta ingurunea basoberritzeko betekizunak ere ez zituen bete.

Bien, no es cierto que la UTE tuviera permiso para rellenar esa vaguada, y no se cumplió con los requisitos de reforestación del entorno.

Bizilagunek salatu zuten enpresak ez zuela gomendio bat bera ere bete, eta ez zuela betelanak egiteko administrazio baimenik ere. 2011ko maiatzaren 12an, salaketa bat jarri zen Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailean, baina Eusko Jaurlaritzak 2016ra arte ez zion eskatu Donostiako Udalari betelanei buruzko txostenak eta lizentzia helarazteko.

Los vecinos denunciaron en su momento que ninguna de las recomendaciones se había respetado y que el relleno no tenía los permisos administrativos correspondientes. El 12 de mayo del 2011 se interpuso una denuncia en el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, pero no fue hasta el 2016 que el Gobierno Vasco solicitó al Ayuntamiento de San Sebastián los informes correspondientes a los rellenos y la licencia de los mismos.

2017ko urtarrilaren 12an, orduko Hirigintzako zinegotzi Enrique Ramosek Eusko Jaurlaritzari erantzun zion esanez Udalak ez zuela inoiz eman betelan hori egiteko lizentziarik.

El 12 de Enero de 2017, el entonces concejal de Urbanismo, Enrique Ramos, respondió al Gobierno Vasco indicando que el Ayuntamiento nunca autorizó la licencia para ese relleno.

Begi bistakoa dirudi Atotxarrekako urbanizaziotik sobratutako lurra legez kanpo utzi zela ondoko lursail batean, eta ibarbidea betetzeko erabili zela, nahiz eta Udalak berak betelan haren kontrako txostena egin.

Parece evidente que la tierra sobrante de la urbanización de Atotxa Erreka se depositó de manera ilegal en una finca cercana, utilizándola para rellenar una vaguada, cuyo relleno había sido informado negativamente por el propio Ayuntamiento.

Hori horrela, hau da gure

Por lo tanto planteamos la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari iker dezala

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a

Atotxarrekako urbanizazio obrak egitean administrazio betekizun guztiak bete ziren ala ez.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari iker dezala Atotxarrekako iparraldeko ibarbidea inguruko urbanizazioaren materialarekin betetzeko administrazio betekizun guztiak bete ziren ala ez.

3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari garbitu beharreko erantzukizun politiko guztiak garbitzeko, baldin eta txosten negatibo bat bazegoen eta, beraz, Donostiako Udalak bere betekizunak bete ez bazituen.

Donostia, 2021eko maiatzaren 21a

Borja Corominas Fisas,
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea".

investigar si la obra de urbanización de Atotxa Erreka cumplió con todos los requisitos administrativos pertinentes.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a investigar si el relleno de la vaguada norte de Atotxa Erreka con material proveniente de la urbanización del entorno cumplió con todos los requisitos administrativos pertinentes.

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que, en el caso de que habiendo habido un informe negativo y que, por lo tanto, el Ayuntamiento de San Sebastián no hubiera observado sus obligaciones, se depuren las responsabilidades políticas necesarias.

San Sebastián, a 21 de mayo de 2021

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular”.

Eztabaida hasita, Borja Corominas Fisas jaunak, Haizea Garay Gallastegui andreak, Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak eta Ricardo Bururtaran Ferre jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Borja Corominas Fisas, D.ª Haizea Garay Gallastegui, D.ª Duñike Agirrezabalaga Ugarte y D. Ricardo Burutaran Ferré, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.6. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Bidebietan kultur etxea sortzeari buruzkoa.**

“EH Bildu udal taldeko zinegotzi Zigor Etxeburua Urbizuk, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri hartuta, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2021eko apirilaren 19an Pertsonentzako Zerbitzuen batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Bidebieta auzoan ez dago kultur etxerik, eta horrelako ekipamendurik ez duen Donostiako auzo jendetsuena da. Auzotarrek gertuen dituzten kultur etxeak Casares (2 km), Larratxo (1,5 km) edota Larrotxene (1 km) dira. Jakina, kultur etxea auzoan bertan izatea bidebietarren eskari historikoa da.

2021eko aurrekontuen eztabaidan, EH Bilduk zuzenketa bat aurkeztu du Bidebietako Moneda baserrian kultur etxe bat moldatzeko, Kutxa Fundazioarekin hitzarmen bat eginda; duela 25 urte, alfabetatze ikastaroak, edota sexualitateari, yogari eta kultura aktiboari buruzkoak eskaini izan zituen Kutxaren Familia eta Gizarte Heziketa sailak. Tamalez, Udal Gobernuak ez du onartu proposamena.

Ekialdeko Barrutiaren 2020ko aurrekontuetan ere bi proposamen egin ziren Bidebieta auzoan kultur etxea sortzeko: bat EH Bilduk aurkeztua eta bestea, Herripe elkarteak. 2021eko aurrekontuetan, Barrutiko Udal batzordeak

**II.2.6. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la creación de la casa de cultura en Bidebieta.**

“Zigor Etxeburua Urbizu, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para que sea tratada en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación tratada en la Comisión de Servicios a las Personas el 19 de abril de 2021.

JUSTIFICACIÓN

En el barrio de Bidebieta no hay casa de cultura. Es el barrio más poblado de San Sebastián que no dispone de este equipamiento. Las casas de cultura más cercanas para las vecinas y vecinos del barrio son la de Casares (2 km), la de Larratxo (1,5 km) y la de Larrotxene (1 km). Como era de esperar, la presencia de una casa de cultura en el barrio es una demanda histórica de las y los habitantes de Bidebieta.

En el debate presupuestario de 2021, EH Bildu ha presentado una enmienda para la habilitación de una casa de cultura en el Caserío Moneda de Bidebieta, mediante un convenio con la Fundación Kutxa, que hace 25 años ofreció allí cursos de alfabetización, sexualidad, yoga y cultura activa, de la mano del Departamento de Educación Familiar y Social de Kutxa. Lamentablemente, el Gobierno Municipal no ha aprobado la propuesta.

En los presupuestos del Distrito Este de 2020, se hicieron dos propuestas para crear una casa de cultura en el barrio de Bidebieta, una presentada por EH Bildu y otra, por la asociación Herripe. Posteriormente, en los

onartu egin du ekimen bat azter dadin Bidebieta auzoan kultur etxea sortzeko aukera; Kultura sailak emango duen erantzunaren zain gaude orain.

Garai berean, Bidebietako Auzo Sarean biltzen diren bizilagunek kanpaina bat abiatu dute Bidebietako kultur etxearen aldeko antolatzeko.

Apirileko batzordean, Udal Gobernuari galdetu genion aurreikuspenik egin duen Bidebieta auzoan kultur etxe bat sortzeko. Zinegotzi ordezkariak adierazi zuen aztertu izan dutela aukera hori, Kontadores edo Eskola Horia bezalako eraikinak baliatzeko aukera dagoelako. Edonola, adierazi zuen inbertsioak behar dituzten beste auzo berri batzuk ere badaudela, eta egungo kultur etxe sarea ere inbertsio ugariren beharrean dagoela. Beraz, ez zion baiezkorik erantzun, baina ezta ezekorik ere, gure taldeak egindako interpelazioari.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

KONTROL MOZIOA

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari abiatu dezala azterketa bat, aurten bertan, Bidebietan kultur etxe bat sortzeko aukerak zehazteko eta beharko diren baliabideen aurreikuspenak egiteko, eta txostena izatean, horren berri eman diezaiela udal taldeei.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari antola dezala parte hartzeko prozesu bat Bidebietako auzotarrei

presupuestos de 2021, la Junta Municipal de Distrito ha aprobado una iniciativa para que se estudie la posibilidad de crear una casa de cultura en el barrio de Bidebieta, iniciativa que se encuentra a la espera de la respuesta del departamento de Cultura.

Simultáneamente, los vecinos de la Red Vecinal de Bidebieta han puesto en marcha una campaña para organizarse en favor de la casa de cultura de Bidebieta.

En la comisión de abril, preguntamos al Gobierno Municipal si tiene previsto crear una casa de cultura en el barrio de Bidebieta. La persona que ostenta la concejalía delegada manifestó que han estudiado dicha posibilidad, ya que se pueden utilizar para ello edificios como Kontadores o el Colegio Amarillo. En cualquier caso, indicó que hay nuevos barrios que también precisan inversiones, y que la red actual de centros culturales también tiene gran necesidad de ellas. Por lo tanto, no contestó afirmativamente, pero tampoco dio una negativa a la interpelación realizada por nuestro grupo.

Es por ello por lo que el concejal abajo firmante presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que, este mismo año, ponga en marcha un estudio para determinar las posibilidades de creación de una Casa de Cultura en Bidebieta, y a que prevea qué recursos se precisarán para ello, así como a que informe a los grupos municipales en el momento en que disponga del informe.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que organice un proceso participativo dirigido a las vecinas y

zuzendua, kultur arloan auzotarrek dituzten kezkei eta beharrei erantzuteko.

Donostian, 2021eko maiatzaren 20an

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

vecinos de Bidebieta, para dar respuesta a sus inquietudes y necesidades culturales.

San Sebastián, 20 de mayo de 2021

Zigor Etxeburua Urbizu,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Zigor Etxeburua Urbizu Jaunak, Marta Huarte Paño andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak eta Jon Insausti Maisterrena jaunak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Zigor Etxeburua Urbizu, D.ª Marta Huarte Paño, D. Jorge Mota Iglesias y D. Jon Insausti Maisterrena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**6. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

**6. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.7. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, 30 gune berrien erasanak direla eta.**

“Mikel Lezama Zubeldia Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoko 94. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, 30 gune berrien erasanak direla eta. Mozio hau Gune Publikoetako Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren Estatuko lege berria, Europak bultzatua, 2021. urtearen hasieran jarri da indarrean. Baina, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak horren berri eman zuen lehenago, 2019an hain zuzen. Lege hori Osasunaren Mundu Erakundearen azterketa batean oinarritzen da, eta azterketa horrek defendatzen du balio duela ia erabat murrizteko harrapatze batean hiltzeko probabilitatea. Segurtasunaz gain, kutsadura murrizteaz ere hitz egiten da. Azken puntu hori, ordea, ez dago guztiz argi. Hori berresten duten azterlanak ezesten dutenak adina dira. Argi dago neurri hori oso deserosoa dela, bai ibilgailu pribaturako bai publikorako. Oso zaila da abiadura horiei eustea motorra behartu gabe. Gainera, arreta berezia jarri behar zaio kilometro-kontagailuari, eta, horren ondorioz, baliteke arreta berdina ez jartzea kanpoan. Hala, batzuetan, abiadura hori gainditu daiteke, eta, ondorioz, isuna jaso.

Gure ustez, hiriaren etorkizunak Erdialdeko toki jakin batzuetan ibilgailu pribatuaren presentzia nabarmen murriztea eskatzen du, erabat

**II.2.7. Moción de control, presentada por el Grupo PP, sobre las afecciones de las nuevas zonas 30.**

“Mikel Lezama Zubeldia, Concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 94 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, como consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre las afecciones de las nuevas zonas 30.

JUSTIFICACIÓN

La nueva ley Estatal de la DGT impulsada desde Europa, ha entrado en vigor a principios de este año 2021. Pero ya en 2019 la DGT informaba de la misma. Una ley que se basa en un estudio de la OMS que defiende que se reduce la probabilidad de morir en un atropello casi por completo. Además de la seguridad, también se habla de la reducción de la contaminación. Aunque este último punto no termina de estar del todo claro. Hay tantos estudios que lo corroboran como que lo desmienten. Lo que está claro es que es una medida que genera mucha incomodidad tanto al vehículo privado como al público. Son velocidades muy difíciles de mantener sin forzar el motor. Además exige una atención extra al cuentakilómetros que puede hacer que no prestes la misma atención al exterior, pudiendo generar en ocasiones que se supere esta velocidad con la correspondiente multa.

Entendemos y defendemos que el futuro de la ciudad pasa por una reducción muy importante, por no decir la desaparición del

desagertzea ez esateagatik, eta horixe defendatzen dugu. Horretarako, gainera, %100eko apustua egin behar da garraio publikoaren alde. Baina aurrea hartu eta, jardun baino lehen, pentsatu egin beharko da. Gaur egun, ez dago etorkizuneko hiri “LAGUNKOIA”ren bost aitzindariak bateratzen dituen azterlanik: DBUS – DBIZI/BIDEGORRIAK – TOPOA – KALEAK OINEZKOENTZAT JARTZEA – ALDIRIETAKO APARKALEKUAK.

vehículo privado en determinadas zonas céntricas. Esto pasa además por una apuesta al 100% sobre el transporte público. Pero habrá que anticiparse y pensar antes de actuar. A día de hoy no existe ningún estudio que unifique las cinco puntas de lanza de la ciudad “AMABLE” del futuro que son DBUSS – DBIZI/BIDEGORRIS – TOPO – PEATONALIZACIONES - PARKIN DISUASORIOS.

Aipatutako bost lerro horietan, plangintzaren, zeharkakotasunaren, ekintzaren eta aurrea hartzearen aldetik dagoen gabeziak donostiarraren poltsikoan eragin zuzena duten arazoak sortzen ditu. Hiriko abiadura-mugak berregituratzeak erasan handia izango du guztiontzat.

Esta falta de previsión, de planificación, de transversalidad, de acción, de anticipación, en las cinco líneas que antes mencionaba, genera problemas que terminan afectando directamente al bolsillo del donostiarra. La reestructuración de los límites de velocidad en la ciudad va a tener afecciones muy importantes para todos.

DBUSen lineak, gaur egun ezagutzen ditugun moduan, desagertu egingo dira, eta horietako asko lehengo egoeretara itzultzera behartuta daude, atzera pausuak emanez zerbitzuaren kalitatean (geraleku gutxiago, auzo gutxiago, itxaron-denbora gehiago, herritarrei kostu handiagoa zergetan, txartel garestiagoa). Lehendik ere, lineak ibilbideetan denborak estu-estu betetzera behartuta zeuden, eta gidariek ezin zuten atsedenik hartu 4-5 orduz. Orain, abiadura-murrizketa horrekin, ezinezkoa da denborei eustea, ibilbideak aldatu gabe, behintzat. Edo ibilbideak motzago egiten dira, eta, ondorioz, autobusak ez dira alde askotara iritsiko eta, hala, erabiltzaile-kopurua murriztuko da. Edo, linea batzuetan, maiztasun-denbora 1-3 minutu handitzen da. Edo autobus gehiago jartzen dira, prezioa izanik 330.000 € urtean autobus bakoitzeko. Gaur den egunean, hainbat alde 30 km/h-ko abiadurara aldatu zirenetik hiru aste eskasera, 13-14 linea jasan dute jada erasan zuzena, eta “00-BEREZIA” motako lineekin mantentzen saiatzen ari dira.

Las líneas de DBUSS, tal y como las conocemos hoy, desaparecen y se ven forzadas muchas de ellas a volver a situaciones previas, dando pasos para atrás en la calidad del servicio (menos paradas, menos barrios, más tiempos de espera, más coste al ciudadano en impuestos, billete más caro). Las líneas ya iban exprimidas al límite de tiempo en los recorridos, no permitiendo tiempos de descanso a los conductores durante sus 4-5 horas conduciendo. Ahora con esta reducción de velocidad, es imposible mantener los tiempos con los mismos recorridos. O bien se acortan los recorridos provocando que no se llegue a muchas zonas, reduciendo el número de usuarios. O se aumenta el tiempo de frecuencias entre 1 y 3 minutos en algunas líneas. O se aumenta el número de coches con un precio de 330.000€ anuales por cada coche de mas. A día de hoy, con apenas tres semanas desde la modificación a 30km/h de varias zonas, ya se están viendo afectas directamente 13-14 líneas, las cuales se están

Beraz, zuzendaritza LEHEN ESKUTIK ezagutzen duen arazoa da.

intentando mantener con lineas “00-ESPECIAL”. Por lo tanto es una problemática que conoce de PRIMERA MANO la dirección.

Horiek horrela, honako mozio hau aurkezten dugu:

Por todo lo expuesto, presentamos la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gobernu Taldeari, gehienez ere 3 hilabeteko epean, idatz dezala goian aipatutako bost mugikortasun-lerroak biltzen dituen plan integral bat, modu objektibo eta egiaztagarrian ikusteko zein den Donostiako hiriaren azken helburua mugikortasun jasangarriari eta hiri lagunkoiari dagokienez.

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a redactar en un plazo de no más de 3 meses, un plan integral de las 5 vías de movilidad mencionadas previamente, para visualizar objetivamente de manera tangible, cual es el objetivo final de la ciudad de San Sebastian en cuanto a la movilidad sostenible y ciudad Amable.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gobernu Taldeari Kontxa pasealekuko errepidean eta antzeko ezaugarriak dituzten bide SEGURUETAN, 50 km/h-ko abiadurari eusteko, autobus-lineei oxigenoa eman ahal izateko, ezarritako ordutegiak bete ahal izan dezaten.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a mantener la carretera del Paseo de Concha y en las vías de características similares y SEGURAS, a 50km/h para poder dar oxigeno a las líneas de autobuses y cumplir así con los horarios establecidos.

3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gobernu Taldeari DBUSen flota eta lineak berregituratzeko, gidariekin alderatuz, erasanak, ekonomikoak izan edo lineen errotazioak izan, ahalik eta txikienak izan daitezen, zerbitzuaren kalitateari eusteko.

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a realizar una reestructuración de la flota y las líneas de DBUSS, cotejándolas con los conductores, para que las afecciones, sean económicas o de rotaciones de lineas, sean las menores posibles para poder mantener la calidad del servicio.

4. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gobernu Taldeari argiago jakinaraz dezala hiriko zer aldetan erabiliko den radar mugikorra, honek ahalik eta ondoen egin dezan disuasio-lana eta segurtasuna zaintzekoa.

4. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a comunicar con mayor claridad las zonas en las que se utilizará el radar móvil en la ciudad para que éste pueda realizar su trabajo disuasorio y de seguridad de manera óptima.

5. Donostiako Udalbatzak hertsatuki

5. El Pleno del Ayuntamiento de San

eskatzen dio Gobernu Taldeari radar mugikorra erabiltzen duten agenteak ikusgai egon daitezela beti, galtzadaren altueran eta erreiari itsatsita, behar bezala funtzionatzeko eta radarrak bere disuasio eta segurtasun lana behar bezala egiteko, horrelako gailuak erabiltzeko jarraibide eta ezaugarriek adierazten duten bezala.

Donostia, 2021eko maiatzaren 21a

Mikel Lezama Zubeldia,
PP udal taldeko zinegotzia".

Sebastián insta al Equipo de Gobierno a que los agentes que utilicen el radar móvil estén siempre visibles, situados a la misma altura que la calzada y pegados al carril, como especifican las instrucciones y características de uso de los dispositivos para su correcto funcionamiento y para que el radar pueda realizar su trabajo disuasorio y de seguridad correctamente.

San Sebastián, a 21 de mayo de 2021

Mikel Lezama Zubeldia
Concejal del Grupo Municipal Popular".

Eztabaida hasita, Mikel Lezama Zubeldia jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D. Mikel Lezama Zubeldia, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D.ª Garbiñe Alkiza López de Samaniego y D.ª Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**7. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 7:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 6 - (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 6 - (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.**

**7. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 7:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 9 - (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 9 - (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**7. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 7:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 - (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 - (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**7. KONTROL MOZIOAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 7:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 6 - (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 20 – (9) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 6 - (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 20 – (9) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**7. KONTROL MOZIOAREN 5. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 5 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 7:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 6 - (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 6 - (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.**

---------------

**II.2.8. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Hirigintza sostengagarriko zinegotzi ordezkariak hirigintzako arau orokorrak onestearen harira merkataritza establezimendu handiak antolatzeari buruzko legeaz egindako adierazpenak direla eta.**

“EH BILDU udal taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrék, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi ordezkariak Hirigintzako Arau Orokorrak onestearen harira Merkataritza Establezimendu Handiak Antolatzeari buruzko Legeaz egindako adierazpenak direla eta. Mozioa maiatzaren 17an Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Apirilaren 29ko osoko bilkuraren gai zerrendako 6. puntuan, gai hau zetorren: hasierako onespena ematea Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Hirigintzako Arau Orokorren aldaketari.

**II.2.8. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre las manifestaciones de la Delegada de Urbanismo Sostenible, con motivo de la aprobación de las Normas Urbanísticas Generales, sobre la Ley de ordenación de grandes establecimientos comerciales.**

“Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, sobre las manifestaciones de la delegada de Urbanismo Sostenible, con motivo de la aprobación de las normas urbanísticas generales, sobre la Ley de Ordenación de Grandes Establecimientos Comerciales. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio el pasado 17 de mayo.

JUSTIFICACIÓN

Dentro del Orden del día del Pleno del 29 de abril figuraba, en su punto 6º, la Aprobación definitiva de la modificación del Plan General de Ordenación Urbana de San Sebastián. Normas Urbanísticas Generales.

Euskal Herriko Lurralde Antolaketaren Batzordeak egindako arauzko txostenak ohartarazten zuen, Auzitegi Gorenak LPSari buruz emandako epaiarekin bat, justifikatuta zegoela merkataritza establezimendu handiak irekitzeko muga kentzea, baina Udalari gogorarazten zion, paragrafo banatan, hainbat muga zeudela horretarako, Establezimendu Komertzial Handien Lurralde Antolamenduari buruzko 2019ko ekainaren 27ko 10/2019 Legea aintzat hartuta.

El preceptivo informe de la COPU hacía una advertencia de que, aunque la eliminación de la limitación a la apertura de grandes establecimientos comerciales estaba justificada por la sentencia del Tribunal Supremo sobre el PTS, le recordaba al Ayuntamiento, en sendos párrafos, las limitaciones derivadas de la Ley 10/2019, de 27 de junio, de ordenación territorial de grandes superficies comerciales.

Ildo beretik, alegazioen aldian, Dendartean merkatarien elkarteak hainbat alegazio aurkeztu zituen, eta, horien bidez, gogorarazi zuen zer ezartzen zuen Gasteizko Legebiltzarrak onetsitako araudi horrek. Ezetsi egin ziren Dendartean elkartearen alegazio guztiak.

En el mismo sentido y, en período de alegaciones, la asociación de comerciantes Dendartean había presentado varias alegaciones recordando la regulación establecida en la citada normativa aprobada por el Parlamento de Gasteiz. Todas las alegaciones de Dendartean fueron desestimadas.

Hori ikusita, EH Bildu udal taldeak hainbat zuzenketa aurkeztu zituen, Hirigintzako Arau Orokorretan jaso zedin, merkataritza gune handiak ―adierazitako legean emandako definizioaren arabera― eraikitzeko edo handitzeko baimena emanez gero, aipatutako legean ezartzen diren mugak eta baldintzak bete beharko zirela.

A la vista de ello, el grupo municipal de EH Bildu, presentó diversas enmiendas al objeto de que las Normas Urbanísticas Generales contemplasen que, en el caso de la autorización para la construcción o ampliación de grandes centros comerciales -en la definición dada por ellos en la mentada Ley-, estarían sujetos a las limitaciones y condicionantes que en el mencionado precepto legal se contemplan.

Aipaturiko osoko bilkuran, Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi ordezkariak adierazi zuen baztertu egingo zituztela zuzenketa horiek, kontua “zuzenduta” zegoela eta. Hala ere, zinegotzi ordezkariak emandako justifikazioa ez dator bat, ez Dendartean merkatarien elkarteak –jendaurreko erakustaldian– jarritako alegazioak baztertzeko eman zen erantzunarekin, ez espedientean dauden txosten teknikoekin, ez eta gure taldeak aurkeztutako zuzenketei eman zitzaien erantzunarekin ere.

La delegada de Urbanismo Sostenible manifestó, en la citada sesión plenaria, que las enmiendas iban a ser rechazadas porque la cuestión “estaba corregida”. Sin embargo, la justificación dada por la concejala delegada no se corresponde ni con la respuesta dada a la asociación de comerciantes Dendeartean con motivo de las alegaciones presentadas -en período de exposición pública- para rechazar las mismas, ni con los informes técnicos obrantes en el expediente, ni con las dadas a nuestro grupo con motivo de las enmiendas que

presentamos al respecto.

Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean, Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi ordezkariak ez zigun eman onartzeko moduko azalpenik, eta ez zion erantzun guk egindako erreplikari ere.

En la sesión de la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio la delegada de Urbanismo Sostenible no nos proporcionó explicación plausible alguna, rehusando contestar a la replica realizada.

Hori horrela, hau da gure KONTROL MOZIOA:

Por todo ello, el concejal que suscribe presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Udal Gobernuari eta han ordezkaritzaren bat dutenei, Udal Gobernuaren ordezkari diren aldetik, ez dezatela erabili argudio faltsurik edo okerrik onetsi beharreko dokumentuaren edukiari buruz hartu dituzten erabaki politikoak justifikatzeko, herritarrek irudi desitxuratu bat izan ez dezaten onartu beharreko dokumentuaren benetako edukiaz.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal, así como a todas las personas que detentan delegaciones del mismo, a que, como representantes del Gobierno Municipal, se abstengan de recurrir a la utilización de argumentos falsos o erróneos para justificar sus decisiones políticas, sobre el contenido del documento objeto de aprobación, contribuyendo a generar una imagen distorsionada a la ciudadanía del contenido real del documento objeto de aprobación.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Euskal Herriko Lurralde Antolaketaren Batzordeak iradokitakoaren ildotik, har dezala kontuan Establezimendu Komertzial Handien Lurralde Antolamenduari buruzko 2019ko ekainaren 27ko 10/2019 Legearen edukia, lege horrek ematen duen definizioa eta ezartzen dituen baldintzatzaileak eta mugak oinarritzat hartuta merkataritza gune handiak sortzeko edo handitzeko plangintza aldatzen hasi aurretik.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que, en la línea de lo sugerido por la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco (COPU), tenga en cuenta el contenido de la Ley 10/2019, de 27 de junio, de Ordenación Territorial de grandes superficies comerciales, de forma previa al inicio de cualquier modificación de planeamiento que persiga la creación o ampliación de grandes establecimientos comerciales en la definición y con los condicionantes y limitaciones contenidos en el citado precepto legal.

Donostia, 2021eko maiatzaren 21a

Donostia, a 21 de mayo de 2021

Sin.: Ricardo Burutaran Ferré,
EH BILDUren udal taldeko zinegotzia".

Fdo.: Ricardo Burutaran Ferré,
Concejal del Grupo Municipal EH BILDU”.

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Nekane Arzallus Iturriza andreak, Marta Huarte Paño andreak eta Marisol Garmendia Beloqui andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D. Ricardo Burutaran Ferré, D.ª Nekane Arzallus Iturriza, D.ª Marta Huarte Paño y D.ª Marisol Garmendia Beloqui, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 - (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 - (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.9. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, “Irurak kaleko arkitektura oztopoak egokitzeko eta lurzorua berritzeko” izeneko proiektua dela-eta.**

“Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2021eko maiatzaren 17an Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2018ko irailaren 11n, Tokiko Gobernu Batzarrean hau onartu zen:

- Udaleko Bide Publikoetako Zerbitzuak idatzitako “Irurak kaleko arkitektura oztopoak egokitzeko eta lurzorua berritzeko” izeneko proiektua onartzen da. Idatzitako proiektuak

**II.2.9. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, relativa al "Proyecto de eliminación de barreras arquitectónicas y de renovación del firme en la calle Irurak".**

“Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, someto la siguiente moción a la consideración del Pleno. Esta moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacios Públicos el 17 de mayo del 2021.

JUSTIFICACIÓN

Con fecha 11 de septiembre de 2018, la Junta de Gobierno Local aprobó lo siguiente:

- Aprobar el Proyecto de eliminación de barreras arquitectónicas y de renovación del firme en la calle Irurak. El proyecto redactado tiene un presupuesto de 149.293,74 €, IVA

149.293,74 €-ko aurrekontua du, BEZa barne (123.383,26 € + 25.910,48 € %21eko BEZarenak) eta 2,5 hilabeteko exekuzio-epea aurreikusten du.

Proiektuaren bidez Irurak kaleko 1, 3, 5 eta 7. zenbakietako zein Koruko Andre Maria kaleko 27. zenbakiko irisgarritasuna hobetuko zuten, eta bi hilabeteko epean egin beharko zuten.

2019ko uztailaren 18ko udalbatzarrean aho batez ondorengoa onartu zen:

"Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, Irurak eremuko bizilagunen mugikortasun-beharrak kontuan hartuz eta aurretik esan zitzaiena betetze aldera, lehenbailehen gauza dezala Irurak kaleko arkitektura oztopoak egokitzeko eta lurzorua berritzeko proiektua".

Jada beste bitan galdetu dugu honi buruz, azkena 2020ko abenduan Gune Publikoen Batzordean. Orduan bizilagunek emandako baimen batzuekin arazo batzuk egon zirela jakinarazi zitzaigun.

Beste behin ere maiatzeko batzordeetan honi buruz galdetuta, Gune Publikoetako eta Hiri Proiektuetako zinegotzi ordezkariak aipatu zuen jada jabeek haien lurrak eman dituztela eta momentu honetan Udalean dagoela tramitazioa. Hain zuzen, duela urtebete erantzun zuten gauza bera.

Proiektu hau gehiegi luzatzen ari zela ere onartu eta gero, arazo nagusia Ondare atalean zegoela aitortu zuen, bertako baliabide urriak direla eta, proiektu hau eta beste batzuk kateatuta baitaude.

incluido (123.383,26 € + 25.910,48 € IVA 21%) y prevé un plazo de ejecución de 2,5 meses.

El proyecto consistiría en la mejora de la accesibilidad de los números 1, 3, 5 y 7 de la calle Irurak y 27 de la calle Santa María del Coro, en un plazo de dos meses.

En sesión plenaria celebrada el 18 de julio de 2019 se aprobó por unanimidad lo siguiente:

"El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que, teniendo en cuenta las necesidades de movilidad de los vecinos del área de Irurak y dando cumplimiento a lo que anteriormente se les indicó, ejecute cuanto antes el proyecto de Acondicionamiento de barreras arquitectónicas y renovación del firme en la calle Irura".

Ya hemos preguntado en otras dos ocasiones sobre la cuestión, la última en la Comisión de Espacios Públicos celebrada en diciembre de 2020. En ese momento se nos informó de que había problemas con algunos permisos de los vecinos y vecinas.

Una vez más, preguntado al respecto en las comisiones de mayo, el concejal delegado de Espacios Públicos y Proyectos Urbanos comentó que las propietarias y propietarios ya habían aportado sus terrenos y que en este momento se estaba la tramitando en el Ayuntamiento. Precisamente, lo mismo que respondieron hace un año.

Tras reconocer que este proyecto se estaba dilatando en exceso, reconoció que el principal problema se encontraba en la Sección de Patrimonio, debido a los escasos recursos existentes en la misma, ya que este y otros proyectos están atascados.

Gaur egun bizilagunek arkitektura oztopo ugari dituzte beraien etxebizitzetara iristeko. Proiektu honen arabera, espaloiak berrituko dituzte eta etxe atarietara iristeko bideak hobetuko dituzte irisgarriak izateko.

Beraz, ia hiru urte pasatu ondoren, ezinbestekoa da proiektuari heltzea eta lanekin hastea.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, Ondare atala indartzeko behar diren neurriak har ditzala, horretarako giza baliabideak, antolaketa neurriak, baliabide materialak... ezarrita, auzotarrekin hartutako konpromisoak bete ditzaten.

2. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Irurak eremuko bizilagunen mugikortasun-beharrak kontuan hartuz eta aurretik esan zitzaiena betetze aldera, urtea amaitu aurretik lanak abiatzea.

3. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Irurak kaleko bizilagunekin batera lanen jarraipen-batzorde bat osatu dezala, arkitektura oztopoak egokitzeko eta lurzorua berritzeko lanen jarraipena egiteko eta auzotarrek informazio eguneratua izan dezaten.

Donostian, 2021eko maiatzaren 21ean

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia“.

Hoy en día los vecinos y vecinas tienen numerosas barreras arquitectónicas para acceder a sus viviendas. Este proyecto supone la renovación de las aceras y la mejora de los accesos a los portales de las viviendas, para que resulten accesibles.

Por lo tanto, después de casi tres años, es imprescindible abordar el proyecto y comenzar a trabajar.

Es por ello por lo que el esta concejala que suscribe presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que adopte las medidas necesarias para reforzar la sección de Patrimonio, poniendo para ello los medios humanos, organizativos, materiales… precisos para cumplir los compromisos adquiridos con las vecinas y vecinos.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que, teniendo en cuenta las necesidades de movilidad de las vecinas y vecinos de la zona de Irurak, y para cumplir lo que se les dijo con anterioridad, inicie las obras antes de finalizar el año.

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a constituir, junto con los vecinos y vecinas de la calle Irurak, una comisión de seguimiento de las obras, para estar al tanto de de las obras de adaptación de barreras arquitectónicas y renovación del firme y para que las vecinas y vecinos reciban información actualizada.

Donostian, 2021eko maiatzaren 21ean

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego,
EH BIldu udal taldeko zinegotzia”.

Eztabaida hasita, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak, Haizea Garay Gallastegui andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak eta Marisol Garmendia Beloqui andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Garbiñe Alkiza López de Samaniego, D.ª Haizea Garay Gallastegui, D. Jorge Mota Iglesias y D.ª Marisol Garmendia Beloqui, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**9. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

**9. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

**9. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 9**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**

**ABSTENTZIOAK: 0.**

**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.10. Kontrol mozioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Donostian Covidaren eta egoera berriaren aurrean plan bat onartzeari buruzkoa.**

"Aitzole Araneta Elkarrekin Donostia udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, Donostian COVIDari eta egoera berriari aurre egiteko plan bat onartzeari buruzko KONTROL MOZIO hau aurkezten du, UDALBATZAN azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Alarma-egoeraren amaierarekin, agertoki berri bat zabaldu da COVIDek eragindako osasun-krisiaren kudeaketari dagokionez. Osasun-krisia hasi zenetik eskuratu dugun esperientzia, eta uda-garaia hurbil dugula kontuan hartuta, argi dago Donostiak erronka batzuei aurre egin beharko diela, eta horretarako prest egon behar duela.

Horregatik, gure ustez, funtsezkoa da Donostiak plan bat izatea udarako, hirian gerta daitezkeen egoerei aurrea hartzeko. Mugikortasun-arloko murrizketak bukatu direnez, eta nazioarteko mugikortasuna berriro hasteko posibilitatea dagoenez, oso litekeena da Donostiak bisitari asko izatea.

Beraz, uste dugu beharrezkoa dela plan bat izatea, alde batetik, COVID zabaltzea eragozteko, baina, bestetik, hiria sozialki eta ekonomikoki aktibatzen saiatzeko eta etorkizuneko erronketarako prestatzeko.

**II.2.10. Moción de control, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa a la adopción de un plan en Donostia ante el Covid y la nueva situación.**

"Aitzole Araneta, portavoz del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL PARA SU DEBATE EN EL PLENO, relativa a la adopción de un plan en donostia ante el covid y la nueva situación.

JUSTIFICACIÓN

Con el fin del Estado de Alarma se abre un nuevo escenario en relación con la gestión de la crisis sanitaria provocada por el Covid. Con la experiencia acumulada desde que comenzó la crisis sanitaria y teniendo en cuenta lo cerca de la temporada estival, es evidente que Donostia se va a enfrentar a ciertos retos para los que debe estar preparada.

Por ello, creemos que es fundamental que Donostia cuente con un plan para el verano que prevea las situaciones que se pueden dar en la ciudad. Con fin de las restricciones en materia de movilidad y la posibilidad de que se reanude la movilidad internacional, es muy probable que Donostia reciba una alta tasa de visitantes.

Por tanto consideramos que es necesario contar con un Plan que por un lado, esté destinado a evitar la propagación del Covid, pero por otro lado, deberá tratar de activar social y económicamente la la ciudad y

Horregatik, gure taldeak uste du plan horrek kontuan hartu beharko lituzkeela egoera garrantzitsu hauek:

• Barneko esparru publiko nahiz pribatuetan co2a neurtzeko aukera aztertzea, beharrezkoa jotzen denean. co2aren neurketek erakutsi dute tresna eraginkorrak direla esparru batek birusaren hedapena minimizatzeko aireztapen nahikoa duen jakiteko. Hori dela eta, neurriak hartu behar dira jende asko biltzen den ahalik eta leku gehienetan neurketa horiek egiteko.

• Esparru publikoen kudeaketa segurua, pentsatzekoa baita bisitari eta turista asko etorriko direla Donostiara. Donostia hiri turistikoa da, eta bisitari ugari erakartzen zituen koronabirusak eragindako mugikortasun-murrizketak hasi aurretik. Murrizketa horiek maila nazionalean amaitu direnez gero eta litekeena denez gero nazioarteko mugikortasuna ere irekitzea, pentsatzekoa da hiriak bisitari kopuru horren zati bat berreskuratuko duela.

• Hurrengo hilabeteetan egiten diren jaiak, ekitaldiak eta abar modu seguruan kudeatzea. Aurreko urteko esperientzia badugu, eta, orduan, jaiak kultur ekitaldiekin ordezkatu ziren, baina badirudi uda honetan egoera bestelakoa izango dela. Orain arte galarazita zeuden ekitaldiez hitz egiten hasiak gara. Horregatik, uda honetarako, kultura eta aisialdi programazio segurua prestatu beharko litzateke, biztanleria-sektore desberdinei zuzendutako ekitaldiak eskaini ahal izateko, pertsonen osagai emozionala zaintze eta “neke pandemikoa” deritzona hobetze aldera.

prepararla para los retos futuros. Por ello, desde nuestro grupo consideramos que dicho plan debería tener en cuenta situaciones tan importantes como:

• Contemplar la posibilidad de hacer mediciones de CO2 en espacios interiores públicos o privados en los que sea necesario. Las mediciones de CO2 han demostrado ser una herramienta efectiva para conocer si un espacio cuenta con la ventilación suficiente para minimizar la propagación del virus. Por eso son necesarias medidas destinadas a favorecer su uso en el máximo de espacios posibles donde exista una gran afluencia de personas.

• La gestión segura de los espacios públicos con la presumible afluencia de visitantes y turistas a Donostia. Donostia es una ciudad turística que atraía a un número altísimo de visitantes antes de que comenzaran las restricciones de movilidad derivadas del coronavirus. Con el levantamiento de dichas restricciones a nivel nacional y la posibilidad de que se abra la movilidad internacional, es previsible que de nuevo la ciudad recupere parte de esa afluencia de visitantes.

• La gestión segura de las posibles fiestas, eventos, etc, que se lleven a cabo durante los próximos meses. Aunque contamos con la experiencia del año pasado en el que se sustituyeron las fiestas por eventos culturales, todo apunta a que este verano la situación va a ser diferente. Se comienza a hablar de la posibilidad de eventos que hasta ahora no estaban permitidos. Por ello, para este verano, se debería preparar una programación cultural y de ocio segura que permitiera ofrecer eventos enfocados a los diferentes sectores de la población y que sirvieran para cuidar el componente emocional de las personas y mejorar la llamada “fatiga pandémica”.

• Merkataritza txikian, ostalaritzan edo hiriko beste sektore batzuetan sor daitezkeen erasanak. Baina ez soilik COVIDaren murrizketei aurre egiteko sektore horietan, hurbileko merkataritza babesteko eta pandemiaren iraupenetik harago bultzatzeko neurriak ezartzeko ere bai.

• Las posibles afecciones al pequeño comercio, a la hostelería o a otros sectores presentes en la ciudad. Pero un únicamente para contrarestar las restricciones por el covid, sino para establecer medidas que protejan al comercio de proximidad y lo impulsen más allá de la duración de la pandemia.

• Hirian botatako maskara ugariak ingurumenaren ikuspegitik kudeatzea. Maskara kirurgiko gehienak petrolioaren deribatuekin egiten dira, eta 300 eta 400 urte bitartean behar izaten dituzte deskonposatzeko. Euskal Autonomia Erkidegoan, badaude euskal enpresa batzuk erabili eta botatzeko maskarak biltzeko eta birziklatzeko alternatibak garatu dituztenak, eta dagoeneko ezartzen ari dira gure lurraldean.

• La gestión desde el punto de vista medioambiental del aumento de mascarillas desechadas en la ciudad. La mayoría de las mascarillas quirúrgicas están fabricadas con derivados del petróleo que pueden tardar entre 300 y 400 años en descomponerse. En euskadi existen empresas vascas que han desarrollado alternativas para la recogida y reciclaje de mascarillas desechables que ya se están implementando en nuestro territorio.

• COVIDek eragindako enpleguaren krisiak emakumeengan izan duen erasan berezia kontuan hartzen dituzten neurriak aurreikusi eta hartzea. Eta ez bakarrik langabeziarekin edo ERTEekin (Aldi Baterako Enplegu-Erregulazioko Espedientea) zerikusia duten kontuetan. Kontuan hartu behar da, baita ere, emakumeek, neurri handiago batean, baimen bereziak baliatu dituztela, lana eta familia bateragarri egiteko, eta jokabide horrek eragin zuzena duela beren soldatan eta lan-etorkizunean.

• Prevenir y adoptar medidas que tengan en cuenta las afecciones especiales que ha tenido la crisis del empleo derivada del covid sobre las mujeres. No solo en lo relacionados con el desempleo o los ERTEs, sino con lo que tiene que ver con que las mujeres han recurrido en mucha mayor medida a permisos especiales para permitir la conciliación que tienen repercusión directa sobre su sueldo y su futuro laboral.

• Kale-egoeran dauden pertsonak aurkitu eta kontabilizatzeko beharra, batez ere orain, talde horrentzako txertaketa planifikatu beharko baita.

• La necesidad de localizar y contabilizar a las personas en situación de calle, especialmente en estos momentos en los que será necesario planificar la vacunación para este colectivo.

• Plan horrek hurrengo hilabeteetan sortzen beste kasuistika eta ustekabe batzuei ere erantzuteko gauza izan beharko luke.

• Dicho plan deberá contemplar también otras casuísticas e imprevistos que puedan surgir los próximos meses.

Litekeena da uda honi aurre egin behar izatea komunitate zientifikoak, nolabaiteko segurtasun

Es previsible que este verano, haya que afrontarlo sin conseguir es 70% de vacunación

kolektiboa ziurtatzeko, gomendatzen duen txertaketaren % 70 lortu gabe. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak etorkizunean hartuko dituen neurriak alde batera utzita, alarma-egoeraren amaieratik txertaketa-helburuak lortu arteko hilabeteetan, ezinbestekotzat jotzen dugu Donostiak izatea hiriko toki guztietan osasun-segurtasuna bermatzeko plan hori. Gainera, plan horrek, eguneroko bizitza pandemiari egokitzeko aukera emateaz gain, hiri gisa ditugun gaitasun guztiak hobeto garatzeko ere balio behar luke.

del que habla la comunidad científica para asegurar una cierta seguridad colectiva. Por eso, más allá de las futuras medidas adoptadas por el Gobierno Vasco, entre los meses que discurran entre el fin del Estado de Alarma y la consecución de los objetivos de vacunación, creemos indispensable que Donostia de contar con ese plan destinado a garantizar la seguridad sanitaria en los diferentes espacios de la ciudad. Además dicho plan no solo debería permitir adaptar nuestro día a día a la pandemia, sino que nos debería servir para desarrollar mejor todas nuestras capacidades como ciudad.

Hori dela eta, mozio hau aurkezten dugu:

Es por ello que presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Udalean ordezkaritza duten talde guztiekin lankidetzan eta hiriko hainbat eragilerekin elkarlanean, plan bat egin dezala Donostiarako, osasun-krisiari dagokionez hiriak udan duen egoera berezia kontuan hartuta.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que, en colaboración con todos los grupos con representación en el Ayuntamiento y en colaboración con distintos agentes de la ciudad, desarrolle un Plan para Donostia que tenga en cuenta la situación especial de la ciudad durante la época estival en relación a la crisis sanitaria.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari plan bat egin dezala barruko esparru publiko eta pribatuetan co2a neurtzea bultzatzeko, esparru batek birusaren hedapena gutxitzeko behar adinako aireztapena duen jakiteko.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a desarrollar un plan para impulsar las mediciones de CO2 en espacios interiores públicos o privados, destinadas a conocer si un espacio cuenta con la ventilación suficiente para minimizar la propagación del virus.

3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari plan bat egin dezala hiriko esparru publikoak modu seguruan kudeatzeko, pentsatzekoa baita udan Donostiara bisitari eta turista asko etorriko direla.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que desarrolle un plan para la gestión segura de los espacios públicos de la ciudad con la presumible afluencia de visitantes y turistas a Donostia durante el verano.

4. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari plan bat egin dezala udako ekitaldi seguruen programazioa egiteko, biztanleria-sektore desberdinei begira, aisialdiko alternatiba seguruak eskaini eta pertsonen osagai emozionala zaintzeko balio duena, “neke pandemikoa” izenekoa arintze aldera.

4. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a desarrolle un plan para llevar a cabo una programación de eventos seguros para el verano, enfocados a los diferentes sectores de la población, que permitan ofrecer alternativas de ocio seguras y cuidar el componente emocional de las personas y aliviar la llamada “fatiga pandémica”.

5. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari plan bat egin dezala egoera berriek hiriko merkataritza txikiari, ostalaritzari edo beste sektore batzuei eragin diezaieketen kalteei aurrea hartzeko; hurbileko merkataritza babesteko, eta merkataritza hori pandemiaren iraupenetik harago bultzatzeko neurriak ezartzeko.

5. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a desarrollar un plan que se anticipe a las posibles afecciones de nuevas situaciones al pequeño comercio, la hostelería u otros sectores presentes en la ciudad y que establezca medidas que protejan al comercio de proximidad y lo impulsen más allá de la duración de la pandemia.

6. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari plan bat egin dezala, erabili eta botatzeko maskarak biltzeko gune seguruak jartzeko, entitate espezializatuek birziklatu ahal izan ditzaten.

6. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a desarrollar un plan destinado a instalar puntos de recogida seguros de mascarillas desechables para poder ser recicladas por entes especializados.

7. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari plan bat egin dezala, COVIDek eragindako enplegu-krisiak emakumeengan izan dituen erasan bereziak kontuan hartzen dituen neurriak hartzeko (baita prebenitzeko ere), enplegu-faltari, ERTEei eta emakumeek izandako jokabideari dagokienez (neurri handiago batean, baimen bereziak baliatu dituzte lana eta familia bateragarri egiteko, eta horrek eragin zuzena du beren soldatan eta lan-etorkizunean).

7. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a desarrollar un plan para prevenir y adoptar medidas que tengan en cuenta las afecciones especiales que ha tenido la crisis del empleo derivada del covid sobre las mujeres en lo relacionado con el desempleo, con los ERTEs y con que las mujeres han recurrido en mucha mayor medida a permisos especiales para permitir la conciliación que tienen repercusión directa sobre su sueldo y su futuro laboral.

8. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari kale-egoeran dauden pertsonak aurkitu eta kontabilizatzeko plan bat egin dezala, dagokien unean txertoa eskuratuko dutela ziurtatzeko.

8. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a desarrollar un plan para localizar y contabilizar a las personas en situación de calle para asegurar su acceso a la vacunación en el

momento que les corresponda.

Donostia, 2021eko maiatzaren 21a

Izpta.: Aitzole Araneta,
Elkarrekin Donostia udal taldeko bozeramailea".

Donostia, a 21 de mayo de 2021

Fdo.: Aitzole Araneta
Portavoz del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia".

Eztabaida hasita, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Borja Corominas Fisas jaunak, Reyes Carrere Zabala andreak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Aitzole Araneta Zinkenegui, D. Borja Corominas Fisas jaunak, D.ª Reyes Carrere Zabala y Alcalde/Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**10. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 10:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**10. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 10:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3)**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP,**

PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 0.

(3) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 0.

**10. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 10:**

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADO.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 0.

**10. KONTROL MOZIOAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 10:**

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 12 - (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADO.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 12 - (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 0.

**10. KONTROL MOZIOAREN 5. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 5 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 10:**

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 12 - (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5)

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADO.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 12 - (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5)

PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 0.

PSE-EE.
ABSTENCIONES: 0.

**10. KONTROL MOZIOAREN 6. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 6 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 10:**

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 6 – (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADO.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 6 – (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.

**10. KONTROL MOZIOAREN 7. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 7 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 10:**

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADO.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 0.

**10. KONTROL MOZIOAREN 8. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 8 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 10:**

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADO.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 0.

---------------

**II.2.12. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Ertzaintzaren patruila batek Urumea ibaian izandako istripuari buruzkoa.**

“EH Bildu udal taldeko zinegotzi Reyes Carrere Zabalak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, kontrol mozio hau aurkezten dut, Udalbatzak azter dezan. Mozio hau Zerbitzu Orokorren Batzordean 2021eko martxoaren 15eko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

2020ko abenduaren 30ean, Ertzaintzaren patruila bat Urumea ibaira erori zen, Egiako igarobide maldatsutik atera zenean. Istripu honen emaitza tragikoa da: ibilgailuaren gidaria hil egin zen, eta laguntzailea shock egoeran eta hipotermia sintomekin erreskatatu zuten.

Istripuaren ordua (03:30), baranda apurtzea eragin zuen kolpe gogorra (Maria Cristinaren zubiaren ondoan), autoa uretara zer distantziatara erori zen ikusita eta autoaren aurreko kristalean bi bala zulo nabarmentzea (Josu Erkoreka Eusko Jaurlaritzako Segurtasuneko sailburuak, Donostiako alkate Eneko Goiak eta Ertzaintzaren buru Rodrigo Gartziak berretsitako alderdia), horiek guztiek herritarren eta hedabideen espekulazioak piztu zituzten. Hala ere, Eusko, Eusko Jaurlaritzaren bozeramaileak “zoritxar sorta bat” aipatu eta abian jarritako ikerketak gertatutakoa argituko zuela esan zuen.

**II.2.12. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, en relación al accidente de una patrulla de la Ertzaintza en el río Urumea.**

“Reyes Carrere Zabala, concejala del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción de control, para que sea tratada en pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios Generales el 15 de marzo de 2021.

JUSTIFICACION

El 30 de diciembre del 2020 una patrulla de la Ertzaintza cae al río Urumea cuando salía del empinado pasadizo de Egia. El resultado de este accidente es trágico: el conductor del vehículo muere y el acompañante es rescatado en estado de shock y con síntomas de hipotermia.

La hora del accidente, 03:30 de la madrugada, el fuerte golpe que provocó la ruptura de la barandilla junto al puente de Maria Cristina, la distancia a la que cae el coche al agua y el impacto de dos disparos de bala en la luna delantera -aspecto confirmado tanto por el consejero de Seguridad del Gobierno Vasco Josu Erkoreka, como por el alcalde de Donostia Eneko Goia y el jefe de la Ertzaintza Rodrigo Gartzia- disparan las especulaciones entre la ciudadanía y la prensa. No obstante, en sus declaraciones, el portavoz del Gobierno Vasco habló de “un cúmulo de fatalidades” y que la investigación puesta en marcha aclararía lo sucedido.

Hala ere, bost hilabete igaro dira istripu horretatik, eta ezer berririk ez dakigu gertaeraz. Bien bitartean, Udal Gobernuak isilik dirau. Zergatik?

Sin embargo, han pasado cinco meses de dicho accidente y nada nuevo se sabe del caso. Mientras tanto, el Gobierno Municipal sigue sumido en el silencio. ¿Por qué?

Hori guztia, nahiz eta EH Bilduk behin baino gehiagotan eskatu Udal Gobernuari gertaerei buruzko gutxieneko informazioa eta polizia txostena, bere garaian Ertzaintzako zuzendariak berak azaldu zuenez, trafiko istripua izanik, Donostiako Udaltzaingoa zen ikerketaren arduraduna. Hala ere, bertsio ofizialik gabe jarraitzen dugu. Isiltasuna erabatekoa da. Zergatik?

Todo eso a pesar de haber requerido EH Bildu, en repetidas ocasiones, una mínima información al Gobierno Municipal sobre los hechos y haber solicitado el correspondiente informe policial, ya que en su día el propio director de la Ertzaintza explicó que, al ser un accidente de tráfico, la Guardia Municipal de Donostia era la encargada de la investigación. No obstante, seguimos sin una versión oficial. El silencio es férreo. ¿Por qué?

Donostiarrek ez ezik, zer gertatu zen ere galdetu zuen, joan den apirilaren 9an, Donostitik.com gunean egindako adierazpenetan, EHUko Gizarte Psikologia Saileko irakasle titular eta Kriminologiaren Euskal Institutuko zuzendariorde Cesar San Juan “txunditu samarra” agertu zen, ikerketaren atzerapenagatik eta auziaren “erabateko opakutasunagatik”.

No solo la ciudadanía donostiarra se pregunta qué pasó; sin ir mas lejos, el pasado 9 de abril en declaraciones realizadas a Donostitik.com , César San Juan profesor titular del Departamento de Psicología Social de la UPV y subdirector del Instituto Vasco de Criminología, se mostró “bastante estupefacto” por el retraso en la investigación y la “extrema opacidad” del caso.

Gure ustez, ezin onartuzkoa da udal Gobernu honen isiltasuna, gardentasun eza eta opakutasuna espekulazioak hazteko bide egokiena baitira, eta galdera gehiago sortzen baitituzte erantzunak baino.

No es de recibo, en nuestra opinión, el silencio de este gobierno municipal ya que la falta de transparencia y la opacidad son un caldo de cultivo para la especulación, y provocan más preguntas que respuestas.

Hala ere, badirudi Gobernu honek nahiago duela espekulazioa egia baino areago. Bitartean, donostiarrak zain daude.

No obstante, parece que este gobierno prefiere la especulación antes que la verdad. Mientras tanto, la ciudadanía donostiarra sigue a la espera.

Horregatik, behean sinatzen dudan zinegotzi honek Kontrol Mozio hau egiten dut

Por ello, la concejala abajo firmante formula la siguiente Moción de Control:

• Udalbatzak Udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio lehenbailehen eman dezala Udaltzaingoak egindako polizia txostena,

• El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que entregue a la mayor brevedad posible el informe policial realizado

2020ko abenduaren 30ean Ertzaintzaren patruila batek izandako istripuari buruzkoa, eta herritarrei azal diezazkiela, ahal bezain laster eta gardentasun osoz, istripu horren kausak.

Donostian, 2021eko maiatzaren 21ean

Reyes Carrere Zabala,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

por la Guardia Municipal en relación al accidente sufrido por una patrulla de la Ertzaintza el 30 de diciembre de 2020 y a que explique a la ciudadanía, en cuanto le sea posible, y con total transparencia, las causas que provocaron dicho accidente.

Donostia, 21 de mayo del 2021

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Eztabaida hasita, Reyes Carrere Zabala andreak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Borja Corominas Fisas jaunak, Marisol Garmendia Beloqui andreak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Reyes Carrere Zabala, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Borja Corominas Fisas, D.ª Marisol Garmendia Beloqui y D. Martin Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 6 – EH BILDU.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 6 – EH BILDU.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.**

----------------

**ETA BILERAK BESTE XEDERIK EZ DUENEZ, LEHENDAKARITZAK, AKTAKO LEHEN ORRIAREN BURUAN ADIERAZITAKO EGUNEKO ARRATSALDEKO HIRUAK ETA HOGEITA BOSTETAN AMAITUTZAT JO DU BILERA. ETA NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN ESANDAKO GUZTIAREN FEDE EMATEN DUT:**

**Y NO SIENDO OTRO EL OBJETO DE LA SESIÓN, LA PRESIDENCIA LA DECLARA TERMINADA, LEVANTÁNDOSE EL ACTO, SIENDO LAS QUINCE HORAS Y VEINTICINCO MINUTOS DE LA FECHA EXPRESADA EN EL ENCABEZAMIENTO DE LA PRESENTE ACTA, DE TODO LO CUAL, YO, EL SECRETARIO, DOY FE:**

**LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:**

**IDAZKARIA: / EL SECRETARIO:**